# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-10-31
EGUBAKOITZA
615. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM


## "Banatu egin behar dira lana eta aberastasuna"



**Mikel Olabe** | Ordaindu elkarteko bozeramailea | 8

## Arbola kutunetako bat botata, Arrasaten

Herritarrek omenaldi beroa egin diote bota baino lehen | 12

Aretxabaletako moda alfonbra gorrian gaur, egubakoitza | 22



Egun osoko jaia Bergaran, Antxintxika krosarekin | 28



100 urte beteko ditu Bergarako Lazpiur enpresak datorren astean | 4




Langileak protesta egiten, lantegiaren kanpoko aldean, atzo, eguena. | ARANTZAZU EZKIBEL

# Berri beltza konfirmatuta: Candy-Hoover enpresaren Bergarako lantegia itxi egingo dute

Atzo, eguena, jakinarazi zieten albiste txarra langileei, Italiatik etorritako ordezkariek | 3




Haragitegia zabalik!

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI zurekin
Musakola 11
ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

EROSKI club

1 BAZKIDE-PREZIOA
Ehunka produktu, merkeago.
0,95 0,76 BAZKIDE-PREZIOA
Etiketaren eredu fiktizio bat.

2 BAZKIDE-ESKAINTZA
Eskaintza esklusiboak zuretako bakarrik, bazkide, eta zure txartelean dirua pilatuko duzu ondorengo erosketetan deskontatzeko.

3 TRAVEL CLUB-EN ABANTAILAK LOR ITZAZU
Puntuak batu, eta bidaia eta opari zoragarriengatik trukatu ahal izango dituzu.

4 DESKONTU PERTSONALIZATUAK
Zure erosketa-txartelekin aurrezten segituko duzu, aprobetxa itzazu.


SINADURAK: RAFA MUNGIA | 9 · JON BEREZIBAR | 9 · XABIER HERRARTE | 26 · MIKEL IRIZAR | 40

DEBAGOIENA 3 | IRITZIA 9 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38




“A” gizartea
lortzeko

eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

ZATOZ EKONOMIA
GARDENERA

www.ekonomiagardena.net

Gipuzkoa
BERRIA




Candy–Hooverreko langileak, enpresak itxiera ofizialki baieztatu aurretik egindako elkarretaratzean. | MAIALEN TORRES

# Candy-Hooverren itxierak haserrea eta kezka sortu ditu langileengan

- Candy Taldeak lantegiaren "merkatuko lehiakortasun zailtasunetan" oinarritu du erabakia
- Itxieraren eta kaleratzeen baldintzak datorren hilabetean negoziatuko dituzte bi aldeek

**ENEKO AZKARATE** | BERGARA

Konfirmatu da. Langileen artean bolo-bolo zebilena egiaztatu zuen atzo Candy-Hoover taldeko giza baliabideetako arduradunak, Roberto Roncallik, eta hala komunikatu zien erabakia langileen ordezkari batek, batzarraren ostean, lantoki kanpoan zain zeuden langileei: "Bergarako lantegia itxi egingo da, langile guztiak kalera!". Haserrea, inpotentzia, ezinegona, kezka, urduritasuna... sumatzen ziren haien aurpegietan.

Zuzendaritzako ordezkariek langileekin egindako batzarraren ostean, tentsio uneak bizi izan ziren. Izan ere, langileek irteera oztopatu zieten zuzendaritzako kideei eta atzera egin behar izan zuten Italiatik etorritako ordezkariek zein haien abokatuek. Azkenik, Ertzaintza joan behar izan zen Candy-ra, eta orduan irten ziren zuzendaritzakoak bi autotan. Langileek pasilloa egin zieten eta "gezurti!" bezalako oihuak entzun dira, Roncalliri zuzenduta.

Orain, hilabeteko negoziazio epea irekiko da itxieraren eta langileen kaleratzearen baldintzen gainean. Berez, 152 langileri eragiten die neurriak, baina batzuek bulegoetan lanean segituko dute.

Bergarako lantegian 2008tik dihardute Enplegu Espediente Erregulazioekin, baina datorren urtean 140.000 makina egingo zituztela aurreratu zietenez, enpresako 152 langileek oraindik bazuten lanean jarraitzeko esperantza. Hori dela eta, atzo "engainatuta" sentitzen zirela zioten. "Urte luzez gauza asko egin ditugu langileok enpresak martxan jarrai zezan (dirua galdu, besteak beste), zuzendaritzakoek beti esan izan digutelako jarraipena izango zuela, baina orain ohartu gara hori gezurra zela, gu geldirik eta isilik egoteko estrategia baino ez" azaldu zuen Junkal Bakaikoa Candy-ko langileak. Bizi duten egoera, langileen esanetan, Candy-k Txinan irekitako lantegi berriak eragindakoa da, "deslokalizazioak azken punta jarri dio lantegiaren itxierari" dio Jesus Aristegi langileak.

## "Langileekiko elkartasuna"

Bergarako udalak, aho batez onartu du adierazpen instituzionala. Candy–Hooverreko langile eta haien familia zein hurbilekoei elkartasuna azaltzeko adierazpena. Kezka azaldu du, "Bergarako ehun industriala jasaten ari den galeragatik", baita "etorkizun hobe baten alde" lanean jarraitzeko asmoa ere. Horrela, datozen egunetan langile eta eragileekin batera egoerari aurre egiteko dauden aukerak aztertzeko ahalegina egingo dutela ziurtatu dute.

### Itxieraren arrazoiak

Roberto Roncalli bere abokatu talde eta guzti batzartu zen Candy-Hooverreko enpresa batzordeko kideekin. Ez zuen kaleratzeen baldintzen gaineko zehaztasunik eman, baina bai Bergarako lantokia ixtearen arrazoiak, eta enpresak prentsa ohar bidez jakinarazi ditu.

Batetik, diote, goitik kargatzen den garbigailu bakoitzeko produkzio kostua, salmenta kostua baino handiagoa dela, lehiakortasuna ezinbestekoa dela eta lehiakideak merkatu asiarrean edo produkzio kostu txikiko herrialdeetan ari direla. Horregatik, Candy-Hoover bide berean murgiltzera behartuta dagoela uste du enpresak, lehiakideen "baldintza berdinetan lehiatzeko". Bestetik, salmentak asko murriztu direla azkeneko urteotan, eta Enplegu Espediente Erregulazioak eta kostuak murrizteko beste hainbat neurri hartu badituzte ere, lantokiaren itxiera ezin izan dutela saihestu.

Horretaz gain, Bergarako lantokiaren itxierak administrazio eta bulego zerbitzuak beste toki batzuetara eroatea ekarriko duela aurreratu dute. Candy Taldeak dio bideragarritasun planean hartutako neurriak direla horiek. Eta gehitu dute bai Candy taldeak mundu mailan, baita Candy-Hoover Etxetresnak SAk ere, galerak izan dituztela azkeneko urteotan. Hortik, Bergarako lantokia ixteko erabakia.

Azkenik, enpresa batzordearekin harremanetan hasiko direla ziurtatu dute, kaleratzeak "ahalik eta kalterik txikienak" sor ditzan.

> **DATUA**
> **152**
> LANGILE
> Candy–ren itxierarengatik, 152 langile kaleratuko dituzte.

### Abenduan, kaleratzeak

Azaroaren 7an beste batzar bat egingo dute langileek zuzendaritzakoekin. Orduan emango zaizkie langileei kaleratze paper eta txostenak eta azaroaren 12tik aurrera hilabeteko epea izango dute negoziazioak egiteko. Epe hori amaitutakoan, abendu erdialdean, kaleratzeak gauzatuko dira. Hala eman zuen aditzera atzo, langileen eta hedabideen aurrean, Roberto Romero (ESK) Enpresa batzordeko presidenteak. Candy Taldetik ere, Bergarako lantokia ixteak "langileen kaleratze kolektiboa" ekarriko duela diote, eta administrazio eta komertzial saileko langileak beste lantoki batzuetan kokatzea suposatuko duela.

152 langile izango dira kaleratuko dituztenak. Junkal Bakaikoa langileak esan du, klase guztietako egoera pertsonala dutenak kaltetuko dituela enpresaren erabakiak. Haren hitzetan, badira etxeko diru iturri bakarra Candy-ko soldata duten bikote zein familiak, baita etxeko bigarren soldata galduko dutenak ere, eta bereziki gogoan izan ditu jubilatzear direnak, erretiroaren atarian "ezer gabe" geratuko direlako.

Horregatik, langileek mobilizazioekin jarraitzeko asmoa agertu dute, itxiera baldintzak negoziatu artean, eta herritarren zein gainontzeko langileen "elkartasuna" eskatu dute. Jesus Aristegi langileak gaineratu du, "egungo legedia eta gobernuak aldatzeko borrokatu" ezean, lan baldintzek "gaizki" egoten jarraituko dutela.

### Elkartasun mezuak

Atzo bertan eman zioten lehen erantzuna enpresak hartutako erabakiari, eta Candy-ren itxiera eta langileen kaleratzeak salatzeko manifestazioa egin zuten Bergarako kaleetan zehar. San Martin plazatik abiatuta, *Enpleguaren alde, deslokalizaziorik ez!* lelopean abiatu ziren langileak, eta hainbat herritarren babesa ere jaso zuten.

Bergarako EH Bilduk ere elkartasuna adierazi nahi izan die Candy-ko langileei zein haien familiei, esanez enpresaren buruek "azal gogorra" dutela eta langileak "salduta utzi" dituztela.

Gaineratu dute, baita ere, indarrean dagoen ereduak aukera ematen diela Candy-ko buruei "langileak kale gorrian utzi eta diru gehiago irabaziko duten lekura enpresa deslokalizatzeko", eta Madrilgo zein Gasteizko gobernuei leporatu diete, langileen kaltetan, "multinazionalen interesen alde" egitea.

# Ondo egindako lanaren eta kalitatearen emaitza: Lazpiur

▸ Eguaztenean, azaroaren 5ean, beteko ditu 100 urte

▸ Iñigo Urkullu lehendakariak fabrika bisitatuko du

**UBANE MADERA** | BERGARA

"Baserriko semea zen, baina ikasketaduna. Zaletasun handia zuen teknologiarako, mekanikarako... argazkilari nabarmena ere izan zen. Sasoi hartan, 1900 inguruan, irrati aparailuak egin zituen, lagun batekin. Entzunda dut zela jarduten zuten etxe batetik bestera, garai hartan, irratitik berbetan".

Horrelakoxea zen Jose Lazpiur Agirrebaltzategi, Bergarako Lazpiur enpresako ugazaba eta zuzendari diren Miguel eta Agustin Lazpiurren aitajauna. Miguel ilobak egindako deskribapenak erakusten duen moduan, modernitatea, teknologia berriekiko zaletasuna eta etorkizun-sena barru-barruan zeramatzan hark.

Eta horiek abiapuntu, orain dela bi mende erein zituen Murinondo auzoan dagoen Lazpiur enpresaren eta lazpiurtar enpresa familiarraren oinarri diren haziak, zapata-fabrika eran erein ere.

Orduko datu objektiboek erakusten dute Zurraberokua auzoan eraiki zuen enpresaren garrantzia: 200 beharginek jarduten zuten eta egunean 250 zapata pareko produkzioa izatera iritsi ziren.

Datuok gaur egun garrantzitsuak badira, pentsa 1914. urtean zenbaterainoko ikusgarritasuna eta garrantzia izan zuen Jose Lazpiur y Cya enpresak Bergaran eta Gipuzkoa osoan.

**Lehendakariaren bisita**

Bada, *nolako zura, halako ezpalak*. Esaera zaharrak ondo definitzen du lazpiurtarren enpresa-ibilbidea.

Ehun urte, lau belaunaldi, bi pabiloi, 112 langile, hogei patente, 25 herrialdetako merkatua... herri bakarra: Bergara.

Gaur egungo Lazpiur enpresaren zenbakiak dira horiek. Iñigo Urkullu lehendakariak datorren eguaztenean bertatik bertara ezagutuko dituenak.

Izan ere, Jose Lazpiur y Cia enpresari buruz dagoen lehen dokumentazioa oinarri hartuta (1914an azaltzen da, Gipuzkoako Diputazioaren datuetan), azaroaren 5a da Construcciones Mecanicas Lazpiur SA enpresaren ehungarren urteurrena. Eta hori dela-eta izango dute lehendakariaren eta bestelako autoritate ugariren bisita.

Eguaztenean, 10:00etan hasiko da urteurren ekitaldia. Eta lehendakariarekin batera Lazpiurren izango dira Arantza Tapia, Industria sailburua; Alex Arriola, SPRI-ko zuzendaria; Martin Garitano, Gipuzkoako diputatu nagusia; Bakartxo Tejeria, Legebiltzarreko presidentea; Jaione Isazelaia, Bergarako alkatea; Estibaliz Hernaez, Berrikuntzako sailburuordea; eta Confebask-eko, teknologia zentroetako, enpresa arloko... ordezkari, bezero, hornitzaile... ugari. 150 bisitari espero dituzte, gehiago ez badira.

Lazpiurrek dituen 30.000 metro koadroko instalazioak bisitatuko dituzte, eta halako ekitaldietan ohikoak diren diskurtsoak, bideoak-eta eskainiko dituzte.

**Orain, dotore**

Baina, batez ere, enpresa-familia horren "erretratuak" berta-



**EDUARDO ZUBIAURRE**
ADEGI-KO PRESIDENTE OHIA

### "Lazpiur benetan enpresa eredugarria da, bertako pertsonak ere badirelako"

"Enpresari, bertakoei eta Migueli, Agustini eta Joneri buruz dudan iritzia, pertsonalki eta profesionalki, ezin hobea da. Enpresa ezagutu dut, gure enpresarendako makina batzuk egin izan dituzte. Enpresari buruz dakidanak eta ikusi ditudanak dira enpresa eredugarria dela: balioetan; kudeaketa ereduan; pertsonen parte-hartzean; berrikuntzan, dudarik ez; dauden sektorean; makineria bereziak egiten; kalitatean ere aspaldi dabiltza ziurtagiriekin; badakite lana txukun egiten; nazioartean hedatutako enpresa... Lazpiur benetan enpresa eredugarria da eta hori bakarrik lortzen da bertako pertsonak ere horren adinakoak direlako. Enpresa on horietako bat".



**JUAN SAENZ**
MONDRAGON TALDEA

### "Gipuzkoan eredugarri den Maiatz proiektuaren bultzatzaile izan zen"

"Ecenarro kooperatibako gerente nintzela, Miguel Altuna institutuko zuzendariarekin etorri zitzaidan Miguel, institutuko tornuak berritzeko diru eske. Kooperatiban funtzio soziala geneukanez, baiezkoa eman genuen. Baina jakinarazi nien gabezia zegoela torloju fabriketarako estanpazioaren formazioarekin. Eta hor hasi zen gure harreman komertziala eta Maiatz proiektuaren enbrioia: Larrañagak gidatutako eta Miguelek bultzatutako Miguel Altuna Institutuarena. Torloju enpresei on handia egin zien. Inguruko enpresak orain hamar urte egiten zituztenak baino pieza askoz ere teknikoagoak, kualifikatuagoak eta balio erantsi askoz ere handiagoa dutenak egiten dituzte orain. Eredugarri da".



**JOSE ANTONIO AGIRREBEÑA**
TECNOSYSTEM

### "Miguel eta Agustin oso langile zorrotzak dira, zintzo jokatu dutenak"

"Miguel eta Agustin oso pertsona langileak dira, hori esan beharrik ez dago. Eta gauzak dauden moduan, eta pasatu dugun sasoian, hori oso garrantzitsua da. Langile izatea da behar den lehenengo gauza. Eta gauza guztietan oso jarraipen zorrotzak egin izan ditu. Proiektu bat edo beste edozer gauza sortu izan denean, beti oso-oso zorrotz jokatu du. Bai langile moduan, eta baita kalitateari dagokion arloan ere. Azken hori izan da balio bat beti lehen mailan izan duena. Nik horrela ezagutzen ditut. Batez ere, oso langile zorrotzak dira. Ideiak oso garbi izan dituztenak eta zintzo jokatu izan dutenak. Miguel eskolatik ezagutu dut, umetatik".



**JOSE MARI LARRAÑAGA**
MIGUEL ALTUNAKO ZUZ. OHIA

### "Miguelek beti azpimarratu izan du kalitatearen garrantzia"

"Antzinatik ezagutzen ditut; Agustin, adibidez, eskola garaitik. Gero, Elementaleko zuzendari izan naiz 12 urtez, eta oso harreman zuzena izan dugu; gure ikasleak praktiketan sartzeko... Lazpiurreko langile asko dira Elementalekoak. Gero, Bergarako, Elgetako, Oñatiko eta Antzuolako 28 enpresarekin batera Elementaleko tailer oso bat aldatu genuen, 2000n, 100 milioi pezetako aurrekontuarekin. Gero etorri zen Maiatz; gaur egun proiektu europarra, maila altukoa, eta ikasleen formazioan izugarri lagundu duena. Kalitatean ere aitzindari da Elementala, ISO 9001 lortzen aitzindarietakoa; Miguelek beti azpimarratu izan du kalitatearen garrantzia. Asko lagundu dit".

## Historiaren kronograma

**1914**
Jose Lazpiur y Cia zapata fabrikaren lehen dokumentazioa ageri da. 200 langilek egunean 250 zapata-pare egiten zituzten.

**ESPAINIAKO GERRA**
1937. Fabrika konfiskatuta. Familia erbestean.

**50EKO HAMARKADA:**
Pepe Lazpiur sartu zen fabrikan. Iltzeak produzitzen hasi ziren. 1957an hil zen Jose Lazpiur. Beste hamabost urtez segitu zuten iltzeak produzitzen.

**60KO HAMARKADA (1)**
Miguelek aita konbentzitu zuen *Osuma* tornua erosteko, tailerretarako piezak fabrikatzeko. Berak hartu eta eramaten zituen lanak bizikletan.

**60KO HAMARKADA (2)**
Agustin sartu zen enpresan. Piezen mekanizatuan zentratu ziren. Iltzeak fabrikatzeari uzten hasi ziren (1962).

**60KO HAMARKADA (3)**
1964: Miguel soldadutzan; Loiolako kuartelean bukatu zituen lehen patentearen planoak: torloju punteatzailea. Agustinek eraiki zuen makina. Gero, kooperatiben sorrera izan zen. Haiendako lanean hasi zen Lazpiur (1965). Eta pabiloi berria erosi zuten, Murinondon (1969).

**70EKO HAMARKADA**
Automoziorako makinak eraikitzeko eskaera, Mairen eskutik. Eta gero, Ford-en eskutik. SA bihurtu zen.

**80KO HAMARKADA**
Forjarako tresneria egiten hasi ziren. 1984an handitu egin zuten pabiloia. Kalitateren aldeko apustua (1989): ISO lortzen Euskadiko lehen enpresa izan zen. 2004an Zilarrezko *Q*-a eta 2006an Urrezko *Q*-a eskuratu zituen (enpresa industrial gutxik dute hori).

**1990-2000**
Nazioartekotzea. Pabiloia bigarren aldiz handitu zuten. GKN enpresarekin *Joint Venture*-a. (1998). 2003ra bitartean, Maiatz proiektua gauzatu zuten, Bergarako eskola profesionalarekin.

**2007**
Krisi hasiera. Leman Brothers jaustean, eskaera guztiak geratu egin ziren. Zenbaki gorriak hasi ziren.

**2012**
Zenbaki beltzak. Korta saria. Oraingoz, krisia gainditua.



Agustin eta Miguel Lazpiur, makina baten aurrean. | LAZPIUR



Familiaren hasierako negozioa, zapata-fabrika, 1914koa. | LAZPIUR

tik bertara ikusi ahal izango dituzte.

Egungoa, dotorea. 2007an hasitako krisiaren gorri koloreko zenbakiak atzean uztea lortu duenarena. Urteotan galerak izan arren, langilerik kaleratu ez duen enpresarena. "2008ko irailean, Leman Brothers jausi ostean, eskaera guztiak geratu egin zitzaizkigun. 2006an fakturatu genuenaren erdia fakturatu genuen. 3-4 urtean dirua galtzen egon arren, ez genuen inor etxera bidali. Batzuk erretiratu egin ziren, adostuta, baina inor ez genuen etxera bidali", kontatu du Lazpiurrek, pozik.

Gaur egun hogei milioi euroko fakturazioa lortzea helburu dutela gaineratu du Lazpiurrek, hark dioen moduan, "krisiari tamaina" hartu diotelako, "momentuz, behintzat. Umiltasunez esan behar da hori", zehaztu du, hala ere, bere ikurretako bati men eginda.

Baina familiaren beste ikurretako bati men eginez ere, aurrera begira, etorkizunari begira jarrita dio hori. Berrikuntza, kalitatea, lanarekiko kultura eta, batez ere, herriarekiko konpromisoa bandera dituela.

Azken horren adibide da 100 urtean, eta zailtasunak zailtasun, jaioterrian egoteari eutsi diotela gogor. Eta fabrikara sartuta herritartasun hori begi-bistan dagoela. Adibide handi bat: euskara da entzuten den hizkuntza. Eta adibide txiki bat: Lazpiurren bulegoak Ber-

>

**MIGUEL LAZPIUR** | ENPRESAKO GERENTE ETA UGAZABA

## "Hemen eta hemendik egingo dugu"



UBANE MADERA

Miguel Lazpiur (Bergara, 1942) da oraindik orain enpresaren gidaritzaz ardura dena, Agustin anaiarekin eta Jone alabarekin batera.

**Zuen ibilbidearen berri izan ostean atera dudan konklusio bat da lana gogor egin ezean ez dagoela ezer...**

Bai, hemen jai dago. Txantxetan hasiz gero, jai dago. Ikusi ditugu adibideak: beste batzuek lana egin, eurek ondo hartu gauzak eta alferrik galdu.

**Beste konklusio bat da berrikuntza ezinbestekoa dela.**

Dudarik gabe. Berrikuntza eta produktibitatea. Eta horrek ematen du lehiakortasuna. Hori derrigorrezkoa da. Hori da baserritarra eta belar motzaren kasua: zelaian belar motza duen baserritarrak kolpe asko eman beharko dio segarekin traktorea betetzeko; eta gaur egun hori dago. Baina hori horrela egonda ere, emaitzak lor daitezke.

**Enpresa baten oinarrizko zutabeak dira, beraz....**

Ilusioa, konpromisoa eta ondo egindako lanarekiko maitasuna. Horiek dira oinarrizko erremintak; eta horrek ekartzen ditu etengabeko egokitzapena, berrikuntza eta kalitatea. Eta horiek gakoak dira.

**Eta nahiz eta zerbaitek ondo funtzionatu, beharrezkoa da bai edo bai berritzea....**

Bai. Beti. Ze egoera azaltzen den merkatu horretan, egoera horretara moldatu beharra dago-eta. Egokitzeko gaitasuna da hori.

**100 urtean horrenbeste eraldatu den enpresa bat non ikusten duzu 100 urte barru?**

Uf, hori ez da erraza. Badihardugu anaiak eta biok... hemen dugun jendearen artean lanerako kultura sartu, hori sakondu, guk dakigun dena erakutsi, berrikuntzaren garrantzia barruraino sartu, eta kanpora begira enpresa jarri. Ze Espainiako merkatua bada, baina kanpora irten beharra dago, bestela jai dago-eta.

**Lazpiurrek altxor moduan definitzen du langileen inplikazioa. Kapitalaren gainetik?**

Bai, bai. Uste dut hori oso garrantzitsua dela, bestela jai dago-eta. Hori lortzen ez bada, ez da erraza. Kapital handia egon daiteke, baina bestea egoten ez bada...

**Lazpiur 100 urtean Bergaran egon da, beti. Horrek ahalegin berezia eskatu dizuete?**

Euskaldun bezala beti sentitu izan gara, bergarar bezala ere bai. Eduki izan ditugu egoera zailak. Adibidez, biolentzia-terrorismoa ere bai, lehergailua jarri ziguten... baina, hala eta guztiz ere, sekula ere ez dugu pentsatu hemendik alde egiterik. Geure konpromisoa hemen lan egitea da, hemen bizi gara, lagunak hemen ditugu, gure mundua da... Hemen eta hemendik egiteko asmoa dugu, betiko.

**Ez duzu sekula izan tentaziorik enpresa multinazional bati saldu eta trankil bizi izateko?**

Tentazio batzuk egon dira, bai. Baina hor gauzak garbi ditugu. Kalitateari hemen nahiko inportantzia eman zaiola esango zenuke? 1980an kanpora irteten hasi ginen eta erdi akonplejatuta etortzen ginen euren eta gure arteko kalitate desberdintasunarekin. Baina nik uste dut Euskadi oso eredu ona izan zela, eta Jaurlaritzak jarri zituen planak enpresetako kalitatea hobetzeko: ziurtagiriak... eta guk gaur egun dugun kalitatearekin, finlandiarrekin borrokan gabiltza. Industrian hobekuntza handia ikusi da. Kalitatea baino gehiago, euskaldunok izan dugun arazoa da beti saltzaile txarrak izan garela; ostera, egiten beti jakin izan dugu.

**100 urteotan zeintzuk izan dira enpresak izan dituen inflexio puntuak?**

Zortzi izan dira: *Osuma* tornua erosi; punteadorea egin; etxetresna elektrikoen sektorearendako lan egin; osagaien insertadorea egin; forjarako tresneria egiten hasi; kalitate ziurtagiriak eskuratu: zilarrezko *Q*-a, urrezko *Q*-a, EFQM...; GKN-Lazpiur *Joint Venture*-a; eta krisia. Eta horri zela tamaina hartu diogun, momentuan, behintzat. Umiltasunez esan behar da hori, tamaina hartu diogula, oraingoz.



# Aretxabaletan...

## zuk be erabaki

| | |
|---|---|
| **Herri Proiektua** | **Gernika plazako Jolasguneko** parte hartze prozesua |
| **Aurkezpena** | **Herritarrekin bilera. AZAROAK 5** • 18:30ean / Arkupen |
| **Bozka egunak** | **AZAROAK 7** • 9:00-12:00 / 16:30-19:00 • Arkupen<br>**AZAROAK 8** • 10:00-13:00 • Arkupen |



Animatu eta **zuk be erabaki!**

Aretxabaletako Udala


Langile bat Dixi izeneko makinarekin. | JAGOBA DOMINGO

> garako altxorren izenekin bataiatuta daude: Olaso dorrea, Irizar jauregia… "Laster tokien argazkiak jarriko dizkiegu letreroei, kanpokoek ere lekuak ikus ditzaten", dio Lazpiurrek bergarar izateagatik harro asko.

**Konfiskatu, kartzelan…**
Hori guztia ezagutuko dute bisitariek bai. Baina izango dute, baita ere, lazpiurtarrek 100 urteko enpresa ibilbidean gainditu behar izan dituzten oztopoen berri.

Adibidez, 1937an, Bergara jausi zenean, fabrika konfiskatuta egon zen: "Familia dena zen abertzalea, nazionalistak. Gerran galtzaile izatea tokatu zitzaien. Emakumeak hemen geratu ziren, baina gizonezkoek, gure aitonarengandik hasita, ia 60 urte edo gehiagorekin ihes egin behar izan zuten. Beste semeak, berriz, batzuk kartzelan egon ziren, beste batzuk Batallon de Trabajadores-en… denetik tokatu zen. Enpresa egon zen konfiskatuta bando nazionalaren eskutik; eta gerraren bueltan familiak ez zuen lortu enpresa martxan jartzea behar den moduan, eta fabrika geratu egin zen. Orduan, gure aita [Jose Lazpiur Elkoro, Pepe Lazpiur] hasi zen *puntaparitza*-k (iltzeak) egiten, Andaluzia aldean ihes eginda ibiltzetik bueltatu zenean. Oso urte zailak izan ziren, eta txakur handia edozein tokitatik atera behar izaten zen (…) 15 urterekin bukatu nuen eskola profesionala eta lanean hasi nintzen Eibarko tailer batean. Familiari lagundu egin behar zitzaion, eta lanbidea ikasi. Baina han nenbilela, Bergarako enpresari Teodoro Uriartek Industrias Niton lan egiteko deitu zidan, tornulari. Pare bat urtean ibili nintzen, oso gustura. Baina etxeko negozioa ez zebilen ondo, gure aita ere urteak aurrera, eta zerbait egin beharra zegoen. Orduan enteratu nintzen Mondragoen zela zegoen tornu bat saltzen: *Osuma* bat (…) Eskatzen zituen orduko 50.000 pezeta eta gure aitak, beti zintzo jokatuta, diru hori bazeukan, eta neuk animatu nuen hura erostera hemengo tailerrak atenditzeko (…) Bizikletan hartu eta eramaten nituen lanak", gogoan du Miguel Lazpiurrek fabrikaren ibilbidean inflexio puntu izan zeneko hura.

Bisitariek jakingo dute, baita ere, zela Miguelek asmatu zuen 60ko hamarkadan enpresaren lehen patentea, etxeko sukaldean hasi eta Loiolako kuartelean soldadutzan bukatu zuena planoetan; Agustin anaiak *Dos Caballos*-ekin Bergarara ekarri eta bertan muntatu zuena: torlojuen puntuatzailea, Espainian lehena.

Eta jakingo dute horrelaxe hasi zela Lazpiur makinak egiten. Gaur egungo negozioarekin, alegia. Gero etorriko ziren makina berriak, elektronika, forjarako tresneria lanak, nazioartekotzea, kalitate ziurtagiriak… gaur egungo krisia eta hura gainditzea.

Eta fabrikara doazen bisitariek konklusio moduan aterako dute 100 urteotan ikur izan duten filosofiarekin segitzen badute, Lazpiurrek beste horrenbeste urte lasai hartuko dituela.

## Lazpiur, hemen eta munduan

**EZAUGARRIAK**
- 110 langile .
- Bi negozio lerro: makinen eraikuntza eta forjarako tresneria, hotzerako, berorako eta erdi-berorako.
- Fakturazioa: 2013an 13,2 milioi. Aurten 20 milioi eurora iristea espero dute.
- Esportazio maila: %70. 25 herrialde (Alemania, Frantzia, Ameriketako Estatu Batuak…).

**ERREKONOZIMENDUAK**
- 1994: ISO 9001
- 2001: ISO 14001
- 2003, Zilarrezko *Q*-a
- 2005: OHSAS 18001
- 2006: Urrezko *Q*-a (Oso enpresa gutxik dutena)
- 2006: San Prudentzio Fundazioaren saria
- 2008: Diputazioaren saria, komunikazio berritzaileenari
- 2012: Korta saria
- 2013: ponentzia berritzaileenari saria
- 2014: Alemanian forjako kongresuan Estatuko bakarra izan zen Lazpiur


Langile bat lanean | J.D.

# Ziburuko ikastolaren alde manifestazioa: azaroak 8

## Arizmendi (Leintz), Aranzadi (Bergara) eta Txantxiku (Oñati) ikastolek autobusak antolatu dituzte

KOMUNITATEA GOIENA | ARIZMENDI

Ikasturtea hastearekin batera izan genuen Kaskarotenea ikastolak Ziburuko Herriko Etxearekin zituen arazoen berri. Ordutik, gainera, okerrera egin du egoerak, neurri zorrotzak hartu baititu ikastola kanporatzeko. Bada, azaroaren 8an Ziburun egingo den Euskal Herri mailako manifestaziora joateko autobusa antolatuko du Arizmendi Ikastolak Aranzadi eta Txantxiku ikastolekin batera.

13:00etan aterako da autobusa Zibururantz, eta 19:00etan itzuli. 10 euro ordaindu behar dira. Manifestazioan parte hartu nahi izanez gero, izen-ematea azaroaren 5a baino lehen egin behar da ikastolako webgunean. Eta, nahi izanez gero, idazkaritzara ere joan daiteke edo 943 77 20 25 telefonora deitu.

**Korrika, dirua batzeko**
Bestalde, kros solidarioa egingo dute azaroaren 28an Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Bergaran eta Oñatin. Asmoa da egun horretako arratsaldean, 14:30etik aurrera, klaseak etetea eta ikasleekin krosean parte hartzea. Ondoren, 17:30ean, herrira zabalduko da, herritarrek eta gurasoek ere parte har dezaten. Euro bateko izen-emate sinbolikoa proposatuko da. Antolakuntzan parte hartzeko batzordeak sortu dira hiru herrietan.

**Irailetik, elkartasunez**
Arizmendi Ikastolan iraila ezkero dabiltza egoera horren aurrean elkartasuna adierazteko eta laguntza bideratzeko ekimenak egiten bai foro baten bitartez, bai ikasle, guraso zein irakasle batzuei esker sortutako ekimenei esker (Goikobalu erromeriako gozokiak, Maritxu Kajoiko loreak, sanmigeletako azokako produktuak…).


Jon Akarregi otar bat eskuetan duela. | UBANE MADERA

# Nekazaritza eta euskalgintza, eskutik helduta Nafarroan

MAIALEN TORRES | DEBAGOIENA

*Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka* lelopean, bertako ekoizleen produktuei eta euskalgintza proiektuei bultzada emateko kanpaina abiatu du Errigora ekimenak. Nafarroa hegoaldeko hamar ekoizleren produktuekin otarrak osatu eta salmenten %25a euskalgintzara bideratuko dute. Izan ere, euskararen erabilera "baxua" da Erriberan, Errigorako kide Jon Akarregiren esanetan, baina administrazioak zona ez euskaldun izendatu duen arren, "lanerako gogoa" eta "ilusioa" badirela dio.

Gainera, lehen sektoreari ere ekarriko dizkio onurak. Akarregik azaldu duenez, nekazariek "egoera larria" bizi dute Nafarroa hegoaldean, hamabost urteotan inportazioen eraginez gainbehera jasan dutelako, eta ekimenak merkatuan bide berri bat zabaltzen laguntzen die. Gainera, parte hartzen duten ekoizleak "euskarak duen balio erantsiaz" ohartzea lortzen du kanpainak, eta horren erakusle da, horietako askok, produktuen etiketatzea euskaratzeaz gain, euren webguneak ere itzuli izana.

Iazko arrakastaren ostean, aurten prezioa mantentzea erabaki dute Errigorako arduradunek eta 50 euroan salduko dituzte otarrak. Debagoienan bederatzi salmenta gune izango dira, besteak beste, euskara elkarte eta kultura etxeetan. Salmentari eta proiektuari buruzko xehetasun guztiak *www.errigora.eus* webgunean irakur daitezke.

# Egoera politikoaz hizketan Xabier Barandiaranekin

M.T. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Euzko Alderdi Jeltzaleak antolatuta, Xabier Barandiaran irakasle eta soziologoak gaur egungo egoera politikoaren gainean jardungo du datorren asteko martitzenean, batzokian, 19:00etan hasita.

**Olanoren kabinete burua**
Xabier Barandiaran (Ataun, 1969) soziologian doktore izateaz gainera, zientzia politikoetan lizentziatua ere bada. Deustuko unibertsitateko Donostiako campusean dihardu lanean, eta EAJren Gipuzko Buru Batzarreko kidea ere bada. Ikerketari, hezkuntzari, komunikazioari eta politikari ere emana, aurreko agintaldian, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiaren kabineteko buru izan zen Barandiaran.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Debagoieneko Mankomunitateak BI TEKNIKARI behar ditu 7 hilabeterako lanaldi erdiz, 1 ESPERIENTZIADUNA, eta BESTEA ESPERIENTZIARIK GABEKOA.

**Beharrezko titulazioa:**
- Goi mailako unibertsitate-titulazioa (lizentziatua, graduatua edo baliokidea) ingeniaritzan edo arkitekturan.

**Eskaerak:** Azaroaren 3aren 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean. Bertan eta Mankomunitatearen web orrian dauzkazue oinarriak eta eskaera ereduak.

Nafarroa Etorbidea, 17 - ARRASATE
943 79 33 99
www.debagoiena.com

**Mikel Olabe** | Ordaindu plataformako kidea

# "Fagor Etxetresna Elektrikoen krisiaren arazoan erantzukizun garbia dauka korporazioak"

▸ Lantokia itxi eta urtebetera manifestazioak egin eta mozioak aurkeztu ditu Ordainduk

▸ "Gure dirua ez zigun enpresak itzuli eta hori ez da legezkoa, iruzurra da", dio Olabek

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE

Fagor Etxetresnen itxierak sorrarazi dituen kaltetuen bilgune dira Ordaindu eta Eskuratu elkarteak. Azken hori, Edesako langilez osatua. 1.100 lagun daude bi elkarteotan. Ordaindun 700 inguru dira. Diotenez, kaltetu guztiei, orotara, Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatibak zor dizkie 77 milioi euro. Fagor Etxetresnak itxi eta urtebetera manifestazioa egin zuten zapatuan kaltetu horiek Arrasateko kaleetan. Bestetik, mozioak aurkezten hasi dira Debagoieneko udaletan. Eskoriatzan aho batez onartu da oraingo astean. Ordaindu plataformako bozeramaile Mikel Olabek elkarrizketa honetan dio protesta ekintzekin jarraituko dutela, dagokiena lortu arte.

**Kooperatiba itxi zela urtebete igaro denean, zein da zuen egoera?**

Lanean eta protestatzen jarraitzen dugu. Gure egoera ez da aldatu. Erakundeekin harremanetan dihardugu, bitartekaritza eskatzeko, bai kooperatiban eta baita erakunde publikoetan ere. Urkullu lehendakariarekin elkartzeko asmoa daukagu. Hartzekodunen konkurtsoan ere kaltetu moduan presente izan gara. Ez dugu ezer lortu, baina azken alegazioak egiteko gertu gaude. Eta, azkenik, elkarretaratzeak eta manifestazioak egiten gabiltza. Demokraziak uzten dizkigun zirrikitu guztiak erabiliko ditugu; izan ere, gurekin lotsagabekeria handia egin dute. Gurekin gertatu denak ez dauka zerikusirik kooperatibismoarekin eta ezta enpresetan langileen parte-hartzearekin ere. Hortik urrun dago. Tranpa hutsa izan da.

**Zergatik tranpa bat?**

Kooperatibismoak dauka irudi onegia eta esku luzeegia. Irudi onegia hedabideetan eta politikarien artean. Beste enpresa batzuetan edo harreman arruntetan egin ezin daitezkeenak egiten uzten zaizkie kooperatibei.

**Ze eskatzen diezue erakundeei, lehendakariari?**

Gure arazoari arreta jartzeko. Sumatzen dugu gurago dutela gure arazoa lehenbailehen ahaztu dadila. Baina guk diogu gai honekin luzerako daukala kooperatibak, eta, gaia zenbat eta gehiago luzatu, arazoa areagotu egingo dela, geldi egoteko asmorik ez daukagulako. Seguru gaude, azkenean, negoziatu eta lortuko ditugula gure helburuak. Lortu arte ez gara geratuko. Konbentzimendu osoz egiten dut berba. Arrazoia daukagu.

**Oso konbentzituta diozu.**

Jendea haserre dago eta lasaitu beharrean izan gara behin baino gehiagotan. Gainera, oso egoera gogorrak bizi ditu jendeak. Bada Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarik kobratu ezin dezakeena, ustez kapital bat daukalako, nahiz eta, gero, errealitatean, kapitalik kobratu ez. Jende asko dago oso egoera larrian.

**Kooperatiban lan bazkideak zarete kooperatibaren jabe eta erantzule. Zeini eskatzen diozue dirua?**

Gure kasua bestelakoa da. Ez da burtsan jokatzea bezala. Gure lan jarduna arautzen dute estatutuek, barne araudiak eta kooperatiben legeak. Baina, horretaz gain, guk daukagu enpresarekin sinatutako kontratu bat. Kiebraren aurretik, enpresari eskatu genion dirua itzultzeko. Ez zigun itzuli. Eta hori ez da legezkoa. Iruzurra da. Gure arazoaren gainean ez dago erabakirik inongo batzar orokorretan. Sinatutako kontratu bat ez betetzea, horixe da gure arazoa.

**Malagon epailearen erabakia zela hartu duzue?**

Ez gaude batere ados epaiarekin. Gertatzen da Mondragon korporazioak abokatu bulego oso indartsua daukala, eta konkurtso legera joan aurretik guztia oso ondo prestatuta zeukan. Epaileak garrantzia eman die lanpostuei eta hori ondo dago, baina, horretaz gain, guk eskatzen genuen gure zorrak lehentasunezko moduan hartzea eta Mondragon korporazioa errudun egitea. Ez dugu ez bata eta ez bestea lortu. Alegazioak egin ditugu eta demanda orokorra egiten gabiltza.

**Mondragon korporazioak ez ditu ohar asko atera krisi honen gainean, baina oraingo asteko baten, imajinatzen dut izango dela zapatuko manifestazioagatik, dio Fagorren ekarpenak taldeari eskatzeak ez daukala zentzurik.**

Hori ez da horrela. Edozeinek daki Fagor Etxetresnen erabakiak Fagorrek bakarrik ez dituela hartu. Eta erabaki guztiak induzituta hartzen direla. Bestela, zertarako dago korporazioa? Fagor Etxetresnen krisiaren arazo baten aurrean korporazioak erantzukizunik ez badauka, zertarako dago? Lanpostuen arazoei konponbidea aurkitzen zertarako dabil orduan? Erantzukizun garbia dauka, gure ustez. Bestela, kooperatibismoa eta haren balioak jar daitezke zalantzan.

**Baina kooperatiba bakoitza burujabe ez da talde barruan?**

Fagor Etxetresnetako lan bazkideok, bereziki, sortu genuen eta finantzatu genuen Laborala. Orain zer gertatzen da?

**Laboral Kutxari eskatzen diozue laguntza?**

Elkarrekikotasuna eskatzen diogu. Txema Gisasolarekin batzartu ginenean, duela hilabete batzuk, korporazioko buru zela, aitortu zigun arazo bat geneukala eta arazo horri irtenbidea aurkitu behar zitzaiola. Kooperatibismoaren eta korporazioaren izatekoa aldatu egin da urtebetean?

**Irtenbide egokia iruditzen zaizu Fagor Etxetresnen ondasunak erosteko aukera CNA taldeari eman izana epaileak?**

Ez. Lehenengo kontua: ekonomia sozialeko enpresak onak dira ala ez dira? 60 urtean etxetresnak produzitzen eta kudeatzen ibili gara Arrasaten, euskal kooperatiba mugimenduaren muinean. Eta, orain, etorri da beste enpresa bat, tamainaz, erosi duen enpresaren laurdena dena; bertako zuzendaritzako kideak, teknikariak eta bestelako langileak kontratatu ditu eta beste enpresa bat sortu du. Ulergarria da? Badauka logikarik? Gainera, ez dago argi zer gertatuko den Basauriko edota Bergarako lantokiekin. Eta, une honetan, 1.500 langile daude lanpostu finkorik barik.

**Fagor Etxetresnen ondasunen erosketari ez diozue alde onik ikusten? Lanpostuak sortuko ditu.**

Bai, hori positiboa da. Baina guretako onena izango litzateke Mondragon korporazioak sortzea beste kooperatiba bat Fagor Etxetresnak zena hartzeko, haren langileekin-eta. Gure ustez, lana banatu egin behar da. Eta, bestetik, aberastasuna ere banatu behar da. Batez ere, ondo doazen edo etekin handiak lortzen dituzten kooperatibek banatu behar dituzte mozkinak; Laboral Kutxak, esaterako.

**Oraingo astean mozioak aurkezten zabiltzate herririk herri udaletan.**

Eskoriatzan eta Arrasaten sartu ditugu eta asmoa da besteetan ere sartzea.

**Alderdi politikoei dagokie zuen eskaerak babestu eta bide ematea?**

Uste dut alderdi politikoak daudela herritarrei babesa eskaintzeko eta herritarren arazoei irtenbidea aurkitzen laguntzeko; arazo konkretuei erantzuteko, ez berbetan jarduteko bakarrik. Eta ikusita, esaterako, joan den zapatuan zelako manifestazioa egin zen Arrasaten, uste dugu unea dela neurriak hartzeko eta posizioa hartzeko. Jakina, Eskoriatzako edo Arrasateko udalek ez dute arazoa konponduko, baina neurri zehatzak har ditzatela eskatzen gabiltza.

**Azaroan egingo du Mondragon Taldeak kongresua. Ze espero duzue?**

Egia esan, une honetan, inork ez daki zer eztabaidatu behar den kongresu horretan. Eta, begira, kooperatiba guztietako ordezkariak egongo dira kongresuan... Hori ez da logikoa. Kongresu aurretik kooperatibetan eztabaidatzea da logikoagoa.

**Mondragon Taldeko presidentea ere kongresuan aukeratuko da, seguruen.**

Bai, baina, gure ustez, erreferendum bidez lan bazkide guztiek aukeratu beharko lukete. Eta, horretarako, lehenengo, programa aurkeztu.



Mikel Olabe martitzenean Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

**"Lana eta aberastasuna banatu egin behar dira"**

**"Kongresu aurretik kooperatibetan eztabaidatzea da logikoena"**

**"Erreferendumean lan bazkide guztiek aukeratu beharko lukete presidentea"**

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

## ZABALIK



**RAFA MUNGIA**
goiena.net/komunitatea/

# Usaimena, hori gozamena

Jaiotzean garatuen dagoen zentzumena omen da usaimena (Wikipediara jo behar izan dut egiaztatzeko), baina sentsazioa daukat bost kideko familia horretan apenas erreparatzen diogula sudurretik jasotakoari besteen aldean. Beste erremediorik ez dugu hasieran amaren bularrera itsatsita gaudela, eta hortik aurrera bide bazterrean geratzen zaigu. Usaimena trebatu, elikatu eta jasotakoa kutxa ezberdinetan gordetzea egokitzen zaigu urteen poderioz, horretaz benetan jabetu gabe. Nik bizitako esperientzietan oinarritzen dut honako gogoeta hau, eta, egiari zor, Ambi Pur etxeak lagundutako ikerketak bide eman dit oker ez nagoela konturatzeko. Aire-freskagarri ekoizleak babestutako ikerketak dioenez, "gizakia usaindutakoaren %35 gogoratzeko gai da eta ikusitakoaren %5 baino ez".

**"Usaindutakoaren %35 gogoratzeko gai da gizakia; eta ikusitakoaren %5"**

Egin ezazue ariketa, jabetu zaitezte tarteka jasotako usainek nora eramaten zaituzteten eta harrituko zarete konturatzean usain soil batek zenbat irudi, pertsona, esperientzia eta momentu (gehienetan onak) irudikatzeko gai den.

Orain gutxi, gaztetxoen futbol partidu batek urtetan usainduko gabeko Reflex espraia hurbildu zidan sudurrera, eta hara non etorri zitzaizkidan di-da batean bizitako zenbait pasarte, ezagututako lagunak eta ahaztuta nituen lekuak.

Mendira onddo bila joan eta otarrea irudi eta oroitzapenez betea ekarri nuen orain gutxi (besterik ez bada, behintzat), eta hain ziren gardenak irudiak, usaimenaren indarraz jabetu nintzen orduan.

Txanponaren bi aldeak erakutsi dizkigute ikerlariek azkenaldian: *Biological Psychology* aldizkariak dio "harreman iraunkorretako sekretua usaimenean" dagoela eta *Plos One*-k, berriz, "usaimena apurka-apurka galtzen joatea heriotza gertu" dugun seinalea dela. Ahal dugun bitartean goza dezagun usaimenaren festarekin, garai aproposak datoz-eta horretarako: txokolatea, gaztainak, mandarinak, sagar erreak, hosto umelak, piñutelak...

## USTEAK USTE

**JON BEREZIBAR** | jberezibar@goiena.com

# Behin batean

Bikingoek uste zuten Yggdrasil zuhaitz erraldoia zela munduaren ardatza. Siddhartha fikus baten abaroan iritsi zen nirvanara eta kristau ipuinetan bizitzaren eta jakinduriaren ikurtzat dute zuhaitza. Druidentzat artea sakratua zen. Gurean ere ez da arrotza gurtza hori. Fikzioan, Printze Txikiaren galaxian baobabek izu-laborria zabaltzen zuten eta, Hogwartseko lorategietan, zume sentibera bezain hilgarria zeukaten. Springfielden, limoiondoa. Arrasaten indiar gaztainondo bat, antza. Astelehenean omendu zuten gudan hilari nola, krabelin gorriz, agur eta ohorez. Nork bere fantasia, nork bere epika, nork bere apeta. #agurarbolapeta

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | goiena.net/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Punica? Bat gehiago

**Inazio Arregi**
http://blogak.goiena.eus/margola/

Negua badator eta egurra egiten hasteko aroa iritsi da. Aizkorakada eta aizkorakada artean, edo moztutako ezpalak organ garraiatzen ditudan bitartean, burua beste pentsamendu batzuetara joaten zait. [...]

Azken urteotan azaleratutako ustelkeriari bueltaka aritu naiz. Ez dago honi nondik oratu. Albisteek frogatzen dute ustelkeria eta *sistema* gauza bat bera direla. Gaur zuk agintzen duzu, bihar nik *sistema,* Espainian era guztietako bilau, iruzurgile eta eskuluze sortzaile bihurtu da. Ezin iruzurgileak *sistema* gabe ulertu, ezta *sistema* iruzurgilerik gabe.

*Sistema* esperpento bitxi eta sinpatikoen sortzaile ere bada. Nikola txikiak, bere anaia handien ikasle argia dela erakutsi digu. Zubietan edota Lezaman idolo futbolariak gainditzeko saioetan ari diren gazteen nahiak kopiatuz, harribitxi preziatuenen mailan kokatu da iruzurgile gazteen rankinean. [...]

Iruzurra eta *sistema* eskutik doazela erakutsi digute bi alderdi nagusietako politikoek, dirua barra-barra, ahurka eramanaz euren patriketara, eta soberakinik zegoenean euren afiliatu edo zaleenetara. Diruaren euri langarra alderdi txikietara eta sindikalistengana ere iritsi da hauek ere *sistema*-ren partaide senti daitezen.

*Sistema*-ren *onurak* ez dira izan iruzurgile lotsagabeenentzat bakarrik. Aitzitik, legeen barruan aritu den hainbat ergel eta sorgin ere busti ditu oparo, zero askotako soldatak metatzeko aukerak eta arrazoi legal eta moralak eskainiaz. Guztiak bihurtu dira *sistema*-ren defendatzaile sutsu, eta zuten indar guztiarekin aldarrikatu dute *sistema*-ren antonimoa kaosa baino ez dela. Zirkulua ixteko hor daude *sistema*-k berak promozionatutako epaileak, *sistema*-ren aurka egiten ausartzen diren lankideak zigortzeko; Blesa jauna espetxera bidali zuen epaileari instrukzioa kendu eta hamazazpi urterako kargugabetzeko gai izan direnak, edo Garzoni ezker abertzalearen aurka egiteko baimena bai, baina *sistema*-ren barrunbeetan sartu eta denboran atzera egin nahi izan duenean ateak itxi dizkiotenak.

Gaur *sistema* aldatu nahi dute ezer ez dadin aldatu. Urteetan bizikide izan duten iruzurraz lotsa itxura egiten dute eta eskuluze guztiak alderdietatik at nahi omen dituzte horretarako berrogei urte luzetan indarrean jarri ez duten legedia abian jarri behar badute ere.

*Podemos*-en sorrerak herritarrengan piztu duen ilusioak tamainako erantzuna behar du. Botereko amaraunetik kanpo geratzea edota motorrak edo malgukiak ez kontrolatzea da gerta dakieken okerrik handiena. Horregatik zilegi da *Podemos*-en aurka ahaleginak eta bi egitea; alderdi nagusiek kontrolatzen dituzten hedabideak bihurtuko dira bidaide eta gezur eta irain bitxienak zabaltzeko otsein zintzoenak.

Alda dezagun zerbait eta zigor ditzagun gutxi batzuk *sistema*-ren onurak geure esku jarrai ditzaten. Hori izango da hauteskundeak iritsi bitarteko leloaren zati bat. Bestea, *Podemos* iraintzea, eta bere aukera gutxiesteko munduko pertsonai, ekintza, eta jarduera krudel, legez kontrako, edo arloteenekin nahastea. Edozerk balio du.

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

GUTUNAK

## Peter Pan, adiorik ez!

**Marije Ugalde**
(Bergarako Musika Eskolako zuzendaria)
Bergara

Bukatu da *Peter Pan*.

Intentsitate handiko bi urte izan dira. Aurretik, oinarrizko prestakuntzak: itzulpena (Valeni falta zitzaion lan bakarra, oraingoan hori ere egin du Jone Larrañagaren laguntzaz). Dekoratuak… zer egingo genuke gure ekipo teknikorik gabe eta garfiorik gabeko bere kapitain Alex barik? Zenbat lan, ze ona.

Haurrak izan dira benetako protagonistak, eta horiek prestatzeko lagun hoberik ezin izan: Nagore Sanz. Ekipo ona osatu dugu, markatutako helburua lortuz. Euskaldunan ez zuten hasierakoak ematen. Pilo bat hazi dira, alde artistikoan ere bai. Eszenatoki erraldoia bete egin zuten euren trebeziaz.

Ezin ahaztu Wendy eta Peter. Miren akordatuko da zenbat garrasi jaso izan behar zituen: "Publikoari begiratu!". Ondo ikasi zuen, Bilbon bikain, eta aurrekoak, zoragarri! Gure Peter Pan hasieratik artista zela erakutsi zigun; pertsonaia ez bezala, handitu egin da, batez ere artistikoki. Euskaldunan, liluratuta utzi zuen publikoa. Aitor Garitanoren izena askotan entzungo dugu musika eta antzerki arloan, zalantza gabe.

Argiñe, Rosa, Karlos, Fran, Julen, Valen, artista apartak. Beti Musika Eskolari laguntzeko prest. Zenbat barre egin dugun elkarrekin. Plazer bat halako lankideekin jardutea.

Oihan Vegari, mila esker. Eskatu eta egin. Musikalerako konposatutako bi tema zoragarriak dira.

Luxuzko orkestra izan dugu. Bi ordu eta erdiko saioa prestatzeko, entsegu asko egin dituzte gure maisuek. Eskolako ikasle ohiek, egungo irakasle eta ikasleek eta ohikoak diren kolaboratzaileek osatu dute orkestra. Hasieran, Xabier Torresen zuzendaritzapean (zoriontzeko Xabik egindako lan guztia) eta azken bi saioetan, Jose Miguel Laskurain. Ausarta izan da gure Lasku. Hain entsegu gutxirekin: musika ikasi, eszena kontrolatu, soinu anplifikatuarekin ohitu, sarrerak… sekulako erronka! Bikain egon zen. Zorionak eta mila esker, Lasku.

Mariñe eta Leirerentzat (Ariana, Sara eta Andoni ahaztu gabe) hirugarren musikala izan da. Aurreko bietan haurrak bezala hartu zuten parte, baina oraingo honetan ardura handia izan dute: erregidoreak, efektuak kontrolatu, mozorroak erabili… primeran egin dute! Bergaran lasai egon gaitezke, etorkizuna ziurtatuta dago.

Altxor bat ere aurkitu dugu gure musikal honetan, eta bera Eibartik etorri da. Musika Eskolan irakasle lanean aritu zenean, garbi utzi zigun balio handiko neska zela. Dantzaria, abeslaria, aktorea, piano-jolea… gurekin behar genuen. Eta espero genuen baino askoz gehiago eman digu. Fin-fin entsegu guztietara etorri da, koreografiak muntatu eta haurrei erakutsi. Oholtza gainean, espektakularra! Irene Hernandok partaide guztien bihotzak liluratu ditu. Ezin albo batera utzi bere ama Karmelek azkeneko bi emanaldietan egin duen laguntzaile lana. Talentua nondik datorkion argi utzi digu.

Behar-beharrezkoa den Tramoia taldea bikain aritu da. Zenbat nerbio pasa behar; dekoratuak aldatzeko orduan, haurrak erdian, tokirik ez… anekdota ugari kontatzeko. Mila esker hauei ere, bihotzez!

Aipamen berezia egin nahi diet gure ama, makillatzaile, zaintzaile, saltzaile… zenbat lan! Ekipo zoragarria osatu dute: Ana, Nora, Nerea, Marijose, Lurdes, Ane, Marian, Viky, Josean… publikoaren txalo zuzenak jasotzeko aukera ez dute izan, baina gure esker beroena eta txalo handienak haientzako dira. Mila esker!

Musikalean *"sinisten dut…"* abesten dugu. Guk sinetsi dugu gure proiektuan. Horri esker eta Pikupe Produkzioen laguntzaz, ia 13.000 ikus-entzulek ikusi eta gozatu dute gure musikala Euskal Herriko areto onenetan. Musika Eskolako ordezkari bezala, pozik eta harro sentitzen naiz. Arrakasta hau guztiona da.

Zuekin… Sekula Betiko Lurraldera!

## Erreka garbia eta biziagoa nahi dugulako

**Unai Etxeberria**
(Erreka Garbiketarako Batzordea )
Bergara

Bigarrenez antolatu dugu erreka garbitzeko auzolana. Iaz moduan, aurten ere pertsona pila bat aritu gara lanean, 350etik gora. Sekulako auzolana!

Goizean goiz elkartu ginen hiru gunetan: Labegaraietan, San Martin plazan eta Osintxun. Taldeak egin eta lanean hasi ginen, batzuk kamioiekin, beste batzuk piraguekin eta gehienok hankak uretan sartu eta eskuetan traste zahar eta zikinkeriak jasotzen. 17 tramutan barrena, 17 taldetan antolatuta, Epeletik Osintxuraino.

Leku askotan iaz egindako lana igartzen zen arren, oraindik ere asko atera genuen. Dena den, sorpresa politak ere bizi izan genituen, gure errekan bizia ikusi baikenuen.

Lerro hauekin eskerrak eman nahi dizkiegu ekimen honetan lagundu duten honako erakunde eta pertsona hauei: Txapa Irratia, DYA, Beti Busti elkartea, Debagoieneko Mankomunitatea, Hierros Naparra, Elur-lan, Miner Banaketak, Bergarako Udala, Oilagorra, Pertxa, San Migelpe eta Artatse elkarteak eta Elorregira bidean bidegorria konpontzen ari diren langileei.

Eta zuzenean parte hartu zenuten lagun guztiei! Eskerrik asko eta datorren urtera arte!

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

### ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

### AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTOAK

**BIARK ARKITEKTOAK**
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# HERRIAK

LEINTZ GATZAGA

# Altxorrez betetako jauregia

- XVI. mendeko etxeak antzinako askotariko objektu baliotsuak babestu ditu
- Nahiz eta data zehazteke dagoen, objektuekin erakusketa-merkatua egin nahi dute

ANDER LARRAÑAGA. | LEINTZ GATZAGA

Jakina da Soran jauregia, *Indiano etxea* bezala ezaguna, Leintz Gatzagako ondare garrantzitsuenetako bat dela. Izan ere, 2008an amaitu zituzten etxeko zaharberritze lanak eta ordutik hotel eta jatetxe bilakatu zuen Montse Valerio eta Loren Larrañaga bikoteak. Etxea bere osotasunean miresteko lana da: garai hartako harri eta egur gehiena mantendu da berezko duen xarma horri ere eusteko. Duda barik, altxorrez betetako lekua da.

**Historia aberatsa**

XVI. mendeko etxea da; Soran familiak –herriko hamaika fundatzaileetako bat– eraiki zuen jauregia eta Dorleta (orduan, gazteluko ama birjina) eta Atxorrotzekin batera Gatzagako gotorlekua osatzen zuen.

Urteak pasa ahala, indiano batek –hortik dator *Indiano* izena– erosi zuen gaurko Soran etxea eta ordutik, Frantziarako bidean erregeen loleku eta klase sozial handiko pertsonen ostatu izan da. Ustez, Izaga familia bizi izan zen azkenekoz han: 60ko hamarkadara arte egon ziren *Indiano etxea*-n. Etxea, berez, historikoki altxor kutun bat dela esan daiteke, baina santutegi horren *tripetan* ere altxor asko daude.

**Paretetako altxorra**

Izagarrek azaldu dutenez, garai hartan haurrak zirenek alegia, etxea ez da altxor bakarra: euren amamak kontatzen zien elezaharrak dioenez, etxeko pareten artean altxor bat dago ezkutatuta eta eurek, haren bila, askotan azazkalak odoleztatu zituztela aitortu dute.

**Erakusketa-merkatua**

Etxea, ordea, ez da altxor bakarra: 2008ko eraberritzean antzinako objektu baliotsu asko aurkitu zituzten: eserleku isabeldarra, txokolatea egiteko harria, sehaska bat, askotariko kutxak... Valeriok azaldu duenez, antzinako objektu dotore horiekin erakusketa-merkatua egin nahi du; hala ere, ez dago data zehatzik finkatuta. Aipatzekoa da ez duela bere objektuekin bakarrik egingo; izan ere, norbaitek bere objektuak saldu edo erakutsi nahi baditu gonbidapena eginda dagoela adierazi du. Ez dauka argi enkante edo salmenta ohiko bat izango den, baina halako zerbait egin gurako luke.



**SOFA ISABELDARRA** Erregeendako eta goi karguko jendearendako erreserbatua. Jabeek diotenez, 2008an, bere egoera kaxkarragatik, tapizatu egin zuten.



**HABEAK** Gurutzatutako habe bakarrenetakoak dira. 500 urte pasa dituzte eta egoera oso onean mantendu dira. Egurra mozteko orduan ilargia izaten zuten kontuan.



**HARRIA** Harrizko arrabolaren laguntzaz, batik bat, kakaoa ehotzen zen horrekin: harri azpian sua jarrita, kakaoa desegin eta masa antzeko bat irteten zen.



**'SATARTEA'** Inork ez du argitzerik lortu zer den berez objektu hori, baina Soranekoek *satartea* deitzen diote. Hala ere, animalia txikiak eramateko erabiltzen zela uste da.



**SEHASKA** *Erregeen sehaska* bezala bataiatua. Hori ere bi bider berritu dute, eta, gaur egun, hoteleko bezeroen haurtxoek erabiltzeko dago bertan.



**LEIHOAK** Egurraren lanketa ikusgarria da. Oso leiho handiak izan arren, irekidura txikikoak dira, lehen, etxeetan, kanpoko argi gutxi sartzen uzten baitzen.



**ATEAK** Leihoek bezain lanketa fina dute eta oso handiak dira. Aipatzekoa da etxean ate original asko falta direla: urteetan etxea hutsik egon da eta jendeak eraman egin zituen.



ARGAZKIAK: ANDER LARRAÑAGA

**ESKAILERA** Etxea hustu zenean obra guztiak egiteko, etxe barruan geratu zen elementu bakarra da; beraz, esan daiteke etxearen bizkarrezurra dela.





Cespako langileak arbolari azken zerrakada eta bultzada ematen. | IMANOL GALLEGO

# Sustraiak arrasatearren bihotzetaraino

## Eguaztenean bota zuten Arbolapetako gaztainondoa; astelehenean omenaldi beroa egin zioten herritarrek

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Erreka arbola ondotik igarotzen zenean, estalita egon barik, eskailera batzuk zeudela aprobetxatzen zuten gaztetxoek baldea urez bete eta arbola ureztatzeko. Aitajaunak txanponen bat ematen zien lan horren truke... Izenari dagokionez, nik txikitatik ezagutu dut Arbolapeta izenarekin". Jose Luis Arantzabali, Arbolapetako gaztainondoa landatu zuen Canuto Arantzabal ezagunaren bilobari, hamaika oroitzapen sortzen dizkio zuhaitzak. Eguazten goizeko mozketaren hasierako uneak gertutik jarraitu zituen, lasai: "Ez dit pena askorik eragiten, ikusita azken urteotan nola egin duen txarrera. Nik orain beste zuhaitz bat jarriko nuke, gaztea izan dadila", proposatu du.

Arantzabalen arabera, haren aitajaunak 1900. urte inguruan landatu zuen indiar-gaztainondoa: "Urte luzez osasuntsu egon da, baina aspalditik zegoen ustelduta".

### Hamaika testigantza

Testigantza bat da, beste hainbat eta hainbaten artean. Arrasatear gehienendako, bereziki adinean aurrera doazenendako, arbola berezia eta kutuna da: "Kontaezinak dira plazatxo honetan eman ditudan orduak; orain, beste bat jarri beharko da. Euskal Herrikoa, noski", zioen arbola parean hainbat urtez bizi izan den Imanol Morenok asteleheneko omenaldiaren ostean.

Josemari Velez de Mendizabal ikerlari eta idazlearendako, "arrasatearron izaerara itsatsita" dagoen elementua da Arbolapeta: "Hamaika gertaeraren testigu isil eta sufritua izan da; eta bere aurretik denbora luze honetan

SAN FELIPE APOSTOL
ELKARLAGUNTZAKO ELKARTEA
Sociedad de Socorros Mutuos

www.sanfelipeapostol.com
funerariasanfelipe@gmail.com

Gipuzkoa etorbidea 33 behea
Tel.: 943 79 16 82
Tel./Faxa: 943 77 30 22

ARDURADUNAK
Alberto Ojanguren Ugarte
Kontxi Bedia Madinabeitia


SAN FELIPEKO ZUZENDARI BATZORDEA:
Zutik, ezkerretik eskumara: Antonio Murillo (Presidenteordea), Alberto Ojanguren (Maiorala), Alberto Laskurain (Bokala), Santiago Garai (Diruzaina), Eduardo Celemín (Bokala), Mikel Iturbe (Bokala), Kepa Ormaetxea (Bokala)
Eserita, ezkerretik hasita: Juan Rodríguez (Bokala), Juan Jose Pagaldai (Presidentea), Jon Arsuaga (Bokala), Joshe Elorza (Idazkaria)

1. ERAKUNDEA SAN FELIPE APOSTOL etekinak lortzeko asmorik ez duen eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Segurantza eta Lan Departamenduko Gizarte Segurantza Zuzendaritzan izena emanda duen elkarte bat da, 1.898ko apirilaren 13an sortu zen eta 13.289 bazkide ditu.

2. ESKAINITAKO PRESTAZIOAK
San Felipe Apostol elkarteak hildako bazkideari honoko gastu hauetan lagunduko dio:
- Espaniako Estatu barruan egin beharreko leku aldaketak, hau da, hileta gertatzen den tokitik hildakoa bizi zen edo erroldatua zegoen herrira eramatea
- Hildakoari lur emateko arka.
- Herrian zehar eskelak jartzea.
- Hildakoen jazte lanak.
- Auzitegian egin beharrekoak. Mediku ziurtagiria
- 750 euroko diru-laguntza, hildako bakoitzagatik.

3. SARRERAKO KUOTAK

| | |
|---|---|
| 40 urtera arte sarrera doan | 56 etik 60 urtearte..................775 € |
| 41 etik 45 urtearte..................150 € | 61 etik 65 urtearte..................900 € |
| 46 etik 50 urtearte..................225 € | 66 etik 70 urtearte...............1.125 € |
| 51 etik 55 urtearte..................550 € | 70 urtetik gorakoak .............1.800 € |

4. URTEKO KUOTAK
Titularrak: ...........30 € Ezkontideak: .......30 € Onuradunak: .......15 €

INFORMATU ETA EGIN BAZKIDE

Omenaldi beroa, hunkigarria eta jendetsua egin zioten arbolari. Txalapartariak, txistulariak, dantzariak, Txorbela otxotea, lore eskaintza... Era berean, bi herritarrek hartu zuten hitza: "Bizitzeko memoria garrantzitsua den bezala, etorkizuna eraikitzeko zuhaitzak behar dira. Ez dugu nahi zuhaitzik gabeko etorkizunik, ez dugu nahi memoria gabeko herririk", adierazi zuten, besteak beste.





Ezkerrean, txalapartaria arbolaren enborrean jotzen. Erdian, Txorbela otxotea *Agur, agur, betiko agur!* abesten; eskuinean, lore eskaintza. | JOKIN BEREZIARTUA

**DATUA**

# 114

BAT URTE ZUTIK

1900. urte inguruan landatu zuen gaztainondoa Canuto Arantzabalek.

igaro den giza jarioaren erreferentea". Velez de Mendizabali ere hainbat oroitzapen sortzen dizkio zuhaitzak eta haren inguruak: "Ni Toribio Agirre kalean –egun Olarte– bizi izan nintzen haurtzaroan eta Montxoneneko arbolak genituen mutur batean eta Arbolapetakoa bestean. Horixe zen gure jolas eremua. Zarugaldekora sartzea *arriskutsua* zen. Eta badaezpada ere, Kondeko Zubian geratzen ginen".

**Omenaldiak mozketa atzeratu**

Herritar talde batek antolatuta, omenaldi beroa eta hunkigarria egin zitzaion astelehenean. Jende asko erakarri zuen ia modu inprobisatuan egin zen deialdiak: "Oso ondo irten da dena. Bagenekien jendea etorriko zela, sentimendu asko transmititzen dituelako arbolak eta plazatxo honek", zioen hunkituta omenaldia antolatzen aritu zen Joseba Ugaldek. Omenaldiak atzeratu zuen mozketa astebetez. Izan ere, Udalak, haustura arriskua ikusita, urriaren 22an bota gura zuen. Bada, herritarren azken agurra jaso eta gero, Cespako langileak eguaztenean moztu zuten. 09:00etan hasi ziren eta bi ordu eta erdi inguru behar izan zuten lana amaitzeko. Goitik behera aritu ziren, adarrez adar. Gero, askok etxera eraman zuten zatiren bat; gehienek etxea, denda edo taberna apaintzeko erabiliko dute, oroigarri gisa.

Kalean galdetuta, herritar gehienek beste arbola bat jartzea gura dute eta Udalak ziurtatu du hala izango dela. Hori bai, denbora beharko da betiko arbolaren hutsunea betetzen hasteko.

**'#AgurArbolapeta'**

Omenaldian plazatxoa jendez bete zen eta arbolaren mozketa ere gertutik jarraitu zuten askok. Era berean, gaztainondoa botako zutela jakin zenetik hainbat herritarrek argazkia atera dute momentua betikotzeko, eta, kalean bertan gertatu bezala, bor-bor ibili da gaia sare sozialetan; *#AgurArbolapeta* traolaren erabilera izan da horren adibide garbia.

**Mozketaren prozesu osoa bideoz ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

**ESANAK**

**"Beste zuhaitz bat jarriko nuke orain, gaztea izan dadila"**

JOSE LUIS ARANTZABAL
ARBOLA LANDATU ZUENAREN BILOBA



Arizmendi Ikastolako Olarte guneko talde bat astelehen goizean.



1979an jaiotakoek kintada ospakizuna aprobetxatu zuten unea betikotzeko.



Jose Luis Arantzabal, Canutoren biloba.



Goienako lantaldeak ere egin zion omenalditxoa arbola mitikoari.



Herritar batek *selfie*–a ere egin zuen.



Txatxilipurdiko langileek ere atera zuten argazkia arbolaren aurrean.



Ointxe saskibaloi taldeko jokalariak. | ARGAZKIAK: GOIENA, TWITTER.COM ETA J.B.

## Txikiteroen talde argazkia 1953an

Arbola botako zutela jakin ostean, hainbat herritarrek argazki bidez betikotu dute momentua. Ondoko erretratuko protagonistak, ordea, ez ziren asmo horrekin jarri. 1953ko urtarrileko domeka baten, elurra egin arren, txikitero kuadrilla hark ez zion errondari uko egin.

Atzealdean, ezkerretik hasita: Kataide, Aranbarri, Etxebarria, *Cano* Arana eta Markiegi. Aurrealdean: Azkarate, Briones, Arregi, Zeziaga, Sologaistoa eta Garmendia. Erretratua nondik aterata dagoen ulertzeko: atzeko etxearen ezkerraldean Monterron jauregia dago.



Txikiteroak Arbolapetan, 1953ko urtarrilean. | ITURRIA: JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

# Arrasatek Hezi sortu dute, herria ikuspegi hezitzailetik hobetzeko asmoarekin

## Udalak, Txatxilipurdik eta Bagarak parte-hartze prozesu bat abiatu gura dute urtea amaitu bitartean

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Arrasateko Udalak, Txatxilipurdik eta Bagarak elkarlanean landutako proiektua da Arrasatek Hezi: "Arrasate ikuspegi hezitzailetik hobetzeko helburuz ekimen berri bat jorratu nahi dugu", adierazi dute asteon egindako aurkezpenean. Horretarako, parte-hartze prozesu bat abiatu gura dute, "laburra, interaktiboa eta emankorra" izatea espero dutena. Hainbat eragilerekin egon dira dagoeneko eta orain herritarrengana jo gura dute "modu zabalean", galdetegi baten bidez.

Martitzenean Kulturaten egindako aurkezpenean jakinarazi zutenez, galdetegia azaroaren 4tik aurrera Interneten (*blogak.goiena.eus/arrasatekhezi*) eta herriko hainbat gunetan egongo da eskuragarri: BAZen, Udal Bibliotekan, gazte txokoetan eta ludoteketan, Gazte bulegoan eta erretiratu etxeetan. Herritarrendako bide hori izango da eraginkorrena ekimenean parte hartzeko.


Udaleko, Txatxilipurdiko eta Bagarako ordezkariak ekimena aurkezten. | J.B.

### Hezitzailea "modu propioan"

Epe luzerako proiektua da Arrasatek Hezi, "iraunkorra" izateko asmoa du eta Arrasateko ezaugarriak kontuan hartu gura ditu. Ekimenaren sustatzaileen arabera, herritarrak "eragile hezitzaile eta hezkuntza proiektu komunitario baten partaide potentzialak" dira: "Horren garrantziaz jabetuta eta beste herri batzuetan landutako esperientziak kontuan hartuz, datozen hilabeteotan, modu propioan, Arrasate herri hezitzaile izateko bidea elkarrekin landu nahi dugu proiektu komunitario gisa, denboran iraunkorra izateko asmoarekin", adierazi zuen Hezkuntza zinegotzi Amaia Larrañagak.

Beste esperientzia horien adibidetzat jarri zituzten EAEko hiriburuetan, Ordizian edo Zarautzen –kasu– martxan dauden ekimenak. 1990ean Bartzelona Udalak antolatutako hiri hezitzaileen lehen biltzarra du jatorri proiektuaren ideiak: "Horren lekuko dugu 20 printzipio biltzen dituen hiri hezitzaileen gutuna", esan zuen Larrañagak aurkezpenean.

### Bateratze-saioa urtarrilean

Parte-hartze prozesuak sei interes talde identifikatu ditu: hezkuntza formala, hezkuntza ez-formala, asmo eraldatzailea duten eragileak, hezkuntzan aditu eta arituak, Udala eta herritarrak. Hala, hiru interes taldetako partaideek bina saiotan parte hartuko dute. Saio horiek azaroan eta abenduan zehar gauzatuko dira.

Gero, 2015eko urtarrilean edo otsailean bateratze-saio bat egingo dute: "Interes talde ezberdinetan irtendako ideiak partekatu eta guztion artean hurrengo urratsen norabidea definitzeko".

## Hondakinen gaineko informazioa erretiratuei

Hondakinen bilketa sistema berria heldu aurretik, Hondakinen Mahaia informazio kanpainarekin dabil. Asteon erretiratu etxeetan egon dira: "Orain arte hondakinak gaika bildu dituztenek ez dute aldaketa handirik igarriko. Erretiratuak finak dira orokorrean", dio hondakinen bulegoko Asier Etxanizek. Etorkinekin ere egon dira asteon.


JULEN IRIONDO

### Domu Santu eguna dela-eta, herri barruko autobusak zerbitzu berezia eskainiko du asteburuan

Domu Santu egunaren harira, autobus urbanoak zerbitzu berezia eskainiko du gaur eta bihar, herritarrek hilerrira egingo dituzten joan-etorriak errazteko. Hilerrira joateko lehen autobusak 10:00etan irtengo dira Gorostizatik eta azkenak, berriz, 18:00etan. Itzulerakoan, berriz, hilerritik lehen autobusa 10:30ean irtengo da eta azkena, aldiz, 18:30ean.

### Santamasetako artisau azokan parte hartzeko azaroaren 22a baino lehen egin behar da eskaera

Santamasetako Komisiñoak jakinarazi du abenduaren 22ko artisau azokan postua jarri gura duenak azaroaren 22a baino lehen bete behar duela eskaera orria. Izen-emate orria Komisiñoaren webgunean kontsulta daiteke: *www.santamasak.com*. Webgune horretan irakur daitezke, era berean, onarpenerako irizpideak. Komisiñoko artisau azokako lantaldea abendu hasieran jarriko da harremanetan azokan parte hartuko duten artisauekin.

### OHARRAK

**1956AN JAIOTAKOAK**
Azaroaren 8an Getariako Gaintza Txakolindegira joango dira. Izena emateko 60 euroko ordainketa egin behar da honako kontuan, izen-abizenak jarrita: 3035 0202 75 2021044131 (Laboral Kutxa).

**1973AN JAIOTAKOAK**
Azaroaren 8an Bergarako Tartufo jatetxean bazkalduko dute. Izena emateko 50 euroko ordainketa egin behar da azaroaren 4a baino lehen: 3035 0001 55 0010129054 (Laboral Kutxa).


Lehen eskailerak zeuden lekuan jarriko dute igogailua. | IBAI IREGI

# Azokan igogailua jartzeko lanak hasi dira dagoeneko

## 20 lagunendako lekua izango du eta obrek hiru hilabete iraungo dutela aurreikusten du Udalak

**J.B.** | ARRASATE

Astelehenean hasi zituzten Azoka Plaza irisgarriago egiteko igogailua jartzeko lanak. Construcciones Moyua SA enpresako langileak ari dira lanok gauzatzen eta obrek hiru hilabete iraungo dute. Aurrekontua 159.626 euro da (BEZa barne) eta Udalak Jaurlaritzaren diru laguntza bat aprobetxatu du lanok egiteko. Igogailu berriak hogei lagun hartzeko gaitasuna izango du.

Eskailera zaharrak bota dituzte dagoeneko eta azokara heltzeko sarbideak izango dira barruko eskailerak eta kanpoko arrapala.

### Txokolate-janik ez

Udalak jakinarazi duenez, obrak amaitu bitartean berton txokolate-jana egiteko baldintzak ez direnez egokiak izango eta, "batez ere" segurtasuna bermatzearren, epe horretan ez da halako ospakizunik egiteko baimenik emango.

NAFARROAKO PIPERRAK
Arrasaten egosita
Eroski hipermerkatuaren parkingean gaude
609 21 00 62



Ford Mugarriko jokalaria aurtengo denboraldian. | GOIENA

# Jokatzeko bi modu ezberdinek 'talka' egingo dute Iturripen

## Uharteren aurka jokatuko dute domekan Pablo Gartziaren mutilek: 12:00etan izango da lehia

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARRASATE

Lehenengo Nazionaleko taldeak Uharteren aurka jokatuko du domekan ligako 7. jardunaldia.

Bai Ford Mugarri eta baita Uharte ere emaitza onak lortzetik datoz. Hala, euren helburua bola-da onari eustea izango da. Etxekoen entrenatzaile Pablo Gartziak azaldu du "lehia polita" izango dela. Izan ere, jokatzeko modu ezberdina duten taldeak dira, eta hori nabaritu egingo da Iturripeko kantxan.

### Jokatzeko modu ezberdinak

Elkarren kontra ez dute inoiz jokatu; hortaz, aurrean nolako aurkariak izango dituzten ez dakite arrasatearrek. Hala ere, talde gaztea eta fina dela aurreratu du Gartziak: "Nahiko talde gaztea da, pisu gutxiko jokalariak dituzte, eta, horren ondorioz, nahiko joko azkarra egiten dute". Batez ere, erdiko jokalariarekin ibili beharko dute argi arrasatearrek: "Pisu gutxi dauka, eta oso ona da", gaineratu du.

Arrasatearren jokoa, aldiz, guztiz bestelakoa da. "Pisu handiko jokalariak ditugu, 95 edo 100 kilo ingurukoak asko. Horregatik, gure jokoa kontaktu handiagokoa da, talkara jokatzen dugu", azaldu du Gartziak. Aurreko jardunaldian sei jokalarik min hartu zuten –Bilbon jokatu zuten Askartzaren aurka–, baina entrenatzaileak uste du domekarako jokatzeko prest egongo direla. "Uste baino zailtasun gehiago izan genituen partidua aurrera ateratzeko", esan du.

### Sailkapenean erdialdean

Bi taldeak sailkapeneko erdialdean daude. Ford Mugarri sailkapeneko bosgarren postuan dago bederatzi punturekin. Jokatutako sei partiduetatik lau irabazi dituzte, bat galdu eta bestea berdindu. Uharte, aldiz, zazpigarren postuan dago zortzi punturekin. Hortaz, domekan Iturripen jokoan egongo diren puntuak garrantzitsuak izango dira sailkapen orokorrari begira.

# Zaldibarko areto futbol txapelketa hasiko da bihar, 14 talderekin

**A.E.** | ARRASATE

Aste bukaeran jarriko dute baloia jokoan Zaldibarren. Aurtengo denboraldiari begira gogotsu eta indartsu datoz taldeak. Antolatzaileak gustura daude, iazko talde kopuruari eutsi diotelako. Aurten ere hamalau talde izango dira nor baino nor gehiago. Zapatuan hasiko dituzte lehiak, 10:00etan.

### Bi talde ez dira izango

Denboraldi berria hamalau talde hauek hasiko dute: Dribling 2.0, Lasagabaster, Aldatz, Ostantz, Alytis FK 2.0, Kantzerlauten, Betrayer, Jibaros, Sonografos, Haizea's Weah, Abokajarro, Arrasate Taberna, Iluntz eta Drink Team-ek. Bada, iazko denboraldiarekin alderatuta, Fidel&Discipulos eta Birigarruak taldeak ez dira txapelketan izango.

**ZALDIBAR**

**PARTIDUAK**

| | |
|---|---|
| AZAROAK 1, ZAPATUA | |
| **10:00** | Dribling 2.0-Jibaros / **Aldatz** |
| **11:00** | Aldatz-Haizea's Weah / **Dribling 2.0** |
| **12:00** | Kantzerlauten-Iluntz / **Haizea's** |
| **13:00** | Alytis FK 2.0-Arrasate taberna / **Iluntz** |
| AZAROAK 2, DOMEKA | |
| **11:00** | Betrayer-Drink team / **Lasagabaster** |
| **12:00** | Lasagabaster-Sonografos / **Betrayer** |
| **13:00** | Ostantz-Abokajarro/ **Sonografos** |

# Erregional Preferenteko futbol taldeak Soraluzera egingo du bisita asteburuan

**A.E.** | ARRASATE

Erregional Preferenteko mutilak Soraluzera joango dira hiru puntuen bila. Etxean Lazkaoren aurka 2-1 irabaztetik datoz Gotzon Urtzelairen mutilak; hortaz, bolada onari eustea izango da euren helburua. Zapatuan jokatuko dute, 16:30ean, Ezozia futbol zelaian. Soraluze bosgarren dago, hamaika punturekin.

### Harrapatzea helburu

Arrasatearrek zortzi puntu dituzte. Zapatuko hirurak lortuz gero, Soraluzerekin berdinduta geratuko lirateke. Taulan gora egitea izango da helburua.





Emaiozu neguko hotzari
ongi etorri beroa

- Diru laguntzen kudeaketa (EVE):
  - Biomasa (egurra, pelleta, ezpalak...)
  - Prever plana
  - Galdara gela berrituak
- Berokuntza instalazioen efizientzia hobetzea
- Egin beharreko lanak finantzatzeko aukera zabala
- Galdara indibidualen (partikularrak) mantentze lanak (azterketa, berrikuspena)
- Galdara gela kolektiboen mantentze lanak

**Deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe.**

... eta informa zaitez bainuontzia dutxa bihurtzeko daukagun eskaintza bereziaz!

Amaia-Berri S.L.

Otalora kalea, 18. Aretxabaleta
Tel/Faxa.: 943 77 06 49
amaiaberri@amaiaberri.com
www.amaiaberri.com



**Marian Porcel** | Kazetaria eta idazlea

# "Oso hizkuntza kaletarra erabiltzen da: istoriorako, erritmoa oso egokia da"

## Kulturaten egingo den aurkezpenean bost ale zozketatuko dira gerturatzen direnen artean

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Duela hilabete inguru kaleratu zuen Marian Porcel arrasatearrak *Todo saldrá bien* izeneko lehen nobela. Oraingoan, baina, jaioterrian egingo du aurkezpena: eguaztenean, azaroaren 5ean, Kulturateko areto nagusian izango da, 19:00etan. Gainera, eleberria zabaltzeko asmoz, bost bat aleren zozketa egingo dute. Punk eta skin giroan kokatuta dago, duela 20 urte inguruko hiri batean. Gazte batzuk dira protagonistak eta haiek bizitzari aurre egiteko modua jorratzen da nobelan.



Marian Porcel. | MARIAN PORCEL

**Zergatik giro hori?**

Protagonistak gazteak dira, eta duela 20 urteko girora jo nuen. Ezagutu nuen nik giro hura: gazte anarkiko samarrak izatea nahi nuen, apur bat libreagoak, eta garai egokia zela pentsatu nuen.

**Zer kontatzen da eleberrian?**

Nahiko istorio klasikoa da. Laguntasun eta amodiozko istorioa ere bada: gaztetasun espiritu hori islatu nahi nuen.

Protagonistetako batek bere bizitza aldatzeko gogoa du eta bide horretan gertatzen zaizkion gauzek beste leku batera eramango dute. Askotan, bizitzan hautu desberdinak egiten ditugu eta, nolabait, gure bizitza berriro bideratu nahi dugunean pairatzen dugun borroka hori azaltzen da. Gazte batzuk nahiko egoera kaotikoetan daude sartuta, eta, hain zuzen, horietatik nola irteten diren kontatzen da.

Bestalde, idazkera aldetik ere oso azkarra da: oso hizkuntza kaletarra da eta iruditu zitzaidan istoriorako oso egokia izan zitekeela *underground* estilo hori erakustea.

**Nolakoa izan da harrera?**

Jendeari asko gustatu zaio: nahiko azkar irakurri dute; orduan, egia esan, horrek ere erantzuna erraztén du. Elkarrizketa asko dituen nobela da eta ez du deskribapen luzerik. Esaldiak nahiko motzak eta zuzenak dira. Eszena batzuk dira, bata bestearen atzetik, eta pelikula baten antzera eramaten zaitu. Nahiko azkar irakurtzen da, motza da, pelikula bat ikustea bezala. Indarra ere hor du, nahiko bisuala da, irakurtzen duzuna ikusten duzu eta errealitate horretara eramaten zaitu. Gainera, amaiera aldera, guztiek antzeko sentsazioekin amaitu dute, eta hori niretako positiboa da, duda barik. Sortu nahi nituen emozioak sortu ditudala dirudi.

**Nori zuzenduta dago liburua?**

Hasiera baten, helduendako idatzi nuen, baina, behin bukatuta, nerabeendako egokia dela ohartu naiz; erraza da irakurtzeko eta pertsonaiekin identifikatuta sentitzeko joera egon daiteke.

**Eta titulu hori?**

Liburuan zehar askotan agertzen den lelo edo esaldia da. Protagonistetako batek bere bizitzari aurre egiteko erabiltzen dituen hitzak dira. Pertsona optimista da, eta bere pentsatzeko modua islatzen da hor.

# Berdintasunaren aldeko areto literarioa Galtzagorriren eskutik

A. L. | ARRASATE

Galtzagorri elkarteak antolatuta, genero berdintasunaren gaia jorratzen duen *Itsaspeko bihotzak* areto literarioa egingo dute bihar Kulturateko klaustroan, eta lehendabizikoz egingo da Arrasaten 17.30-20.30era.

Areto literarioak jolas literarioak dira: haurrek aktiboki batean hartzen duten parte proposatutako jolasean. Haur literaturan genero berdintasunaren gaia hainbat ikuspuntutatik jorratzen dituzten liburuak hartuta, ilustrazioa, musika eta ikus-entzunezkoak uztartuz, genero berdintasuna eta pedagogia bera lantzen da. Hala, jolas bilakatuta, 8-11 urte bitarteko haurrei bideratutako areto literarioa izango da biharkoa.

**Ez Arrasaten bakarrik**

Edozelan ere, *Itsaspeko bihotzak* areto literarioek bide luzea dute aurretik: Arrasatez gainera, Hernanin eta Donostian ere egingo dira.

25-30 haurrez osatutako taldeetan egingo dira areto literarioak. Arrasaten hamalau saio egingo dituzte, bihartik hilaren 15era bitartean. Hernanin hamazazpi saio eskainiko dituzte azaroaren 18tik 28ra arte, eta, amaitzeko, Donostian, Donostia2016ren egoitzan, hamar saio egingo dituzte azaroaren 29tik abenduaren 14a bitartean.

# Arrasate izango da 'Ezkutuko altxorrak' bisita gidatuen geltoki bihar, zapatua

A. L. | ARRASATE

Ignaziotar Lurraldeak antolatuta, *Ezkutuko altxorrak* bisita gidatuak egiten ari dira; urriaren 4tik abenduaren 14ra bitartean, Debagoienean, Urola Erdian eta Urola Garaian. Asteon da Debagoienaren txanda: bihar, azaroak 1, *Arrasate eta atlantikoa XVI. mendean* bisita gidatua egongo da, 12:00etan hasita.

**Erreserbak**

Bisita gidatu horietan parte hartu nahi izanez gero, *info@tierraignaciana.com* helbidera idatzi edota ondorengo telefonoetara deitu: 943-79 64 63 / 943-15 18 78 / 943-72 20 42.



# Seminarioko eliza kultura-areto bihurtzeko aurreproiektua, prest

## Herritarrendako aurkezpena egingo dute azaroaren 4an, 19:00etan, Seminarioko elizan

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA

Udalak beste urrats bat egin du Seminarioko eliza erabilera askotariko kultura-areto bihurtzeko prozesuan; dagoeneko badute aurreproiektua.

Eliza babes berezia duten eraikuntzen multzoan jasota dagoenez, proiektua gauzatu ahal izateko elizaren elementu artistikoak ezinbestean kontuan hartu eta babestu behar dira. Abiapuntua hori izanda, eta ikuspuntu bat baino gehiago izateko asmoz, Zetabi Arkitektura Bulegoari, BEB Arkitektoei eta Vaumm Arkitektura eta Hirigintzari eskatu zieten aurreproiektua egiteko Udaletik. "Eliza ondare aldetik babestuta dago eta hori oso aintzat hartu beharra dago erabilera berria emateko orduan, ezin da edozer egin", azaldu du Leire Iruinek, Kultura zinegotziak.

Hirurek "oso ideia politak eta berritzaileak" aurkeztu dituztela gehitu du Iruinek, baina Vaumm Arkitektura eta Hirigintzaren alde egin dute, "ondarearen babesa eta erabilera ondoen uztartu dituena" delako.


Harmaila teleskopiko automatikoak jarriko direnez, batuta daudenean, elizak jatorrizko itxura erakutsiko du. | VAUMM

**Harmaila teleskopikoak**

Jon Muniategiandikoetxea Vaumm-eko arkitektoaren esanetan, euren proposamenak bi alderdi jorratzen ditu: "Batetik, elizak duen monumentaltasuna erakustea, eta bestetik, era askotariko ekitaldiak egitea ahalbidetzea eraikinaren izaera eraldatu gabe". Eta horretarako, proposatu dituzten elementu guztiak itzulgarriak dira, edozein unetan desmuntatu eta eliza eraberritua jatorrizko izaerara bueltatzea ahalbidetzen dutenak. Hain zuzen, ikusleak esertzeko hiru harmaila teleskopiko automatiko proposatu dituzte, eta agertokirako, aldarearen osagarri, tarima sistema, ikuskizunaren beharraren arabera agertokia handitu ahal izateko. Horrek guztiak, konfigurazio bat baino gehiago egiteko aukera ematen du, eta guztiak, oso denbora tarte laburrean: "Pertsona bakar batek, ordu erdian, konfigurazio guztiak alda ditzake", esan du Muniategiandikoetxeak.

Ikuskizun motaren edo momentuko beharraren arabera, konfigurazio bat edo beste aukeratu ahal izango da. Aforoari dagokionez, 700 lagunendako lekua dago zutik, eta 350 inguru, eserita.

Konfigurazio aniztasun horrek, erabilera asko izatea ahalbidetuko du, Udalak nahi zuen moduan eta Leire Iruinek azaldu duenez, erakusketak, antzerkia, kontzertuak –bandarenak barne– eta zinema proiekzioak egiteko aukera emango du. Turistendako harrera-gunea ere izango da.

**Herritarrendako aurkezpena**

Herritarrei aurreproiektuaren gaineko xehetasunak emateko, aurkezpena antolatu dute. Datorren martitzenean, azaroaren 4an, izango da, 19:00etan, Seminarioko elizan, eta aurreproiektua egin duen Vaumm arkitektura estudioko Jon Muniategiandikoetxea arkitekto bergararrak eta Xabier Ieregi udal arkitektoak emango dituzte azalpenak. Erakusketa ere jarriko dute osoko bilkuren areto ondoko pasilloan.

Datorren asteko aurkezpenaren ondoren, hurrengo astean, hainbat kultura diziplinatan diharduten herritarrekin kontraste teknikoak egingo dituzte: "Soinuaren, argiaren eta halako behar teknikoen gaineko ekarpenak jaso nahi ditugu gaia ezagutzen duten herritarren partetik", esan du Leire Iruinek.

Hori guztia zehaztu ostean, proiektuari ekingo dio Vaumm-ek, 800.000 euroko aurrekontuarekin.


MONIKA BELASTEGI

## Liburutegiak banatu ditu sariak

Liburutegien Egunerako antolatutako 5. eta 6. mailetako ikasleendako argazki lehiaketako sariak banatu zituen martitzenean Mila Agirrezabalek, liburutegiko arduradunak. Peru Muxikak jaso zuen lehen saria –100 euroko erosketa bonua– eta bigarrena, –75 euroko bonua– Unai Martinezek eta Aitor Roosek eroan zuten. Pozik jaso zuten saria irabazleek. Lehiaketan 24 lagunek hartu dute parte.

## Deba ibaiaren gaineko bideoa eta solasaldia

### Bi zientzialari inguru honetako ibai eta erreken gaur egungo egoeraz arituko dira, besteak beste

**M.B.** | BERGARA

*Ura eta erreka Deba ibarrean* kanpainari amaiera emateko, proiekzioa eta solasaldia egongo dira datorren eguenean, hilaren 6an, 19:00etan, Irizar jauregiko areto nagusian.

Alde batetik, *Ura Deba ibarrean* izeneko ikus-entzunezkoa ikusteko aukera egongo da, Lexeia Larrañaga bergarararren eskutik. Dokumental horretan, urak Debagoienean egiten duen ibilbidea erakusten da; mendietan sortzen diren iturburu txikiak, ibai nagusiarekin elkartu eta Deba herrian itsasoratu arte.

Horren ondoren, berbaldia egingo dute bi zientzialarik. Jorge Gonzalezek hartuko du hitza lehenengo. Biologian doktorea da, ur gezatako ugaztunen kudeaketan aditua eta desagertzeko arriskuan dauden ugaztun erdi-akuatikoen kontserbazioan dihardu lanean hainbat administraziorentzat. Ibai ekosistemen gainean duen ikuspegia emango du, zertan lan egiten duen azalduko du, eta esango du nola baloratzen duen inguru honetako ibai eta erreken gaur egungo egoera. Gonzalezek gazteleraz egingo du hitzaldia.

Arturo Elosegik hartuko du hitza ondoren. Biologia katedraduna eta Euskal Herriko Unibertsitateko Landareen Biologia eta Ekologia Saileko irakaslea da, eta ibaien ekologia ikertzen duen lantaldeko ikerlaria. Elosegik ere ibai ekosistemen gainean duen ikuspegia emango du, zertan lan egiten duen azaldu, eta esango du nola baloratzen duen inguru honetako ibai eta erreken gaur egungo egoera. Elosegik euskaraz egingo du berbaldia.

### Bertso afaria Artatsen azaroaren 8an

Artatse elkarteak bertso afaria antolatu du azaroaren 8rako, datorren zapaturako. Julio Soto eta Jone Uria bertsolariekin izango da, 21:00etan, eta interesa duten herritar guztiei irekita dago. Txartelaren prezioa 25 euro da eta dagoeneko salgai daude Pol-Pol, Kortazar eta Arrano tabernetan.

### Hilaren 5ean azoka berezia Oxirondon

Hileko lehen eguazteneko azoka berezia 18:00etatik 20:30era izango da eta bertako baserritarren zein herriko bestelako ekoizleen produktuez gain, udazkenarekin lotutako erakusketa egongo da. Horrekin batera, hurbiltzen diren umeek eskulanak egiteko aukera izango dute Jardunekin, eta sasoiko produktuekin egindako pintxoak ere dastatu ahal izango dira.




Agorrosin ekintza-guneko sarrera. | GOIENA

# Agorrosingo tasak izan ezik, gainerako tasak mantendu egingo dira

- KPIaren bilakaera ikusita, udal tasa gehienek ez dute igoerarik izango
- Bilkura berean, Kataluniako kontsultaren aldeko mozio bat onartu zen

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Ohiko osoko bilkura egin dute asteon. Gai-zerrenda luzea zuten, eta, besteak beste, aurreko bi bilkuren akta onartzeaz gain, hainbat kreditu aldaketa eta Ibarra kaleko zebra-bidea eraikitzeko zesioa ere eztabaidatu zen. Gai-zerrendako puntu gehienak aho batez onartuak izan ziren arren, bi ordu baino gehiago iraun zuen osokoan eztabaidarako tartea ere izan zen.

Dudarik gabe, eztabaida handien sortu zuen gaia datorren urteko ordenantza fiskalak izan ziren. Udal tasak gobernu taldearen aldeko botoekin onartu ziren, eta jeltzaleek eta sozialistek kontra bozkatu zuten.

### Tasak bere horretan

"Agorrosingo zerbitzua %1 igoko da, eta haurrentzako uretako ikastaro batzuk %2; gainerako tasek ez dute gehikuntzarik izango", esan zuen Lauri Askargortak, Bergarako Ogasun zinegotziak. Gainerako taldeak tasak ez igotzeko planteamenduarekin bat etorri ziren arren, ez zuten gobernu taldeak aurkeztutako mozioa babestu.

EAJko zinegotziek gogor kritikatu zuten euren proposamenak aintzat hartu ez izana, eta euren ustez, tasek, hondakinen arloan, adibidez, defizita handitzea baino ez dute sortuko. "Planteamendu honekin, inbertsio edo beste arlo batzuetara bidera daitekeen 600.000 euroko partida garrantzitsu bat hondakinen bilketan xahutzen du", azaldu zuen Julen Alberdi jeltzaleak.

Askargorta zinegotzia ez zen jeltzaleen datuekin bat etorri, eta adierazi zuen hondakin sistemaren hasierako urteetan zerbitzuak kostu handiagoa izango duela. Dena den, ezarpen fasea gauzatzen denean zerbitzua egonkortu egingo dela argitu zuen zinegotziak. Horrez gainera, atez ateko bilketak duen garrantzi ekologikoa ere azpimarratzeko modukoa dela azaldu zuen Ogasun zinegotziak.

Tasa bere horretan mantentzen den arren, ondasun higiezinen gaineko zergaren errekargua bertan behera lagatzea proposatu zuten jeltzaleek, euren ustez dirua biltzeko neurri bat besterik ez da-eta: "Legealdia amaitzear dago eta gobernuak 300.000 baino gehiago batu ditu eta ez du ezer egin". Askargortak errekargua alokairu soziala sustatzeko planaren barruan dagoela zehaztu zuen, eta helegiteak direla-eta prozesua luzatu egin dela argitu ostean, dirua batzeko neurri bat denik baztertu zuen.

### Kataluniako kontsulta

Azaroaren 9ra begira Kataluniako Parlamentuak egindako subiranotasun adierazpenaren gainean Auzitegi Konstituzionalak hartutako ebazpena baztertzen duen mozio bateratu bat aurkeztu zuten Bilduk, Aralarrek eta EAJk. "Herriek bere etorkizun politikoa erabakitzeko zilegitasun demokratikoa daukate", jasotzen da mozioan.

Zinegotzi sozialistak ez zuen mozio hori babestu, eta propioa irakurri zuen. Mari Carmen Barrenetxearen ustez, demokrazia ez da herritarrei "edozein galdera" eginez indartzen.

### Taxien tarifa

Bilkura berean AGITAX elkartearen proposamena ere onartu zen. Taxiaren kostuen eboluzioa eta sektorearen egoera ikusi ostean, taxi gidarien elkarteak datorren urtean ere tarifa berdinekin jarraitzeko proposatu zuen. Gauzak horrela, abiasaria 3,5130 eurotan laga du eta lanegunetako kilometroa 1,1005 eurotan; eta jaiegun eta gauetakoa aldiz, orain arte bezala, 1,7553 eurotan geratu da.

Udalbatzak erabakia onartu ostean, Euskadiko Prezioen Batzordeari eta AGITAXi berari ere emango diote erabakiaren berri.

### Osoko bilkura telebistan

Goiena telebistako udazkeneko eta neguko programazioa berrikuntzaz beteta dator. Aurrerantzean, bailarako hiru herri handienetako, hau da, Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko osoko bilkurak Goiena telebistan eskainiko dira ikus-entzuleek aukera izan dezaten udalbatzek erabakitzen dituzten berriak lehen eskutik jasotzeko.

Bergarak hasi zuen saio berri hori, eta udalbatzak egingo duen hurrengo osoko bilkura azaroaren 24koa izango da. Herritarrek egun bat geroago Goiena telebistan ikusi ahal izango dute.



Ikasleak AGORA proiektuaren jardunaldi batean. | MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

# Ideiak sortu eta negozioak eredu berriak garatzen

Azaroaren 4an egingo dugu AGORA proiektuaren hurrengo saioa Oñatiko Zuazola Larraña Institutuan

**KOMUNITATEA GOIENA** |
MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA | BERGARA

Urriaren 28an izan genuen Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako AGORA proiektuaren jardunaldia Miguel Altunan. MUko LEINNeko ikasleek dinamizatuta, Bergarako MAIko mekatronika industrialeko eta fabrikazio mekanikoko diseinuko ikasleak, Mariaren Lagundiko haur hezkuntzako moduluko ikasleak eta Arizmendiko ikasleak bildu ginen, guztira 60 bat ikasle, ekintzailetasun jarrerak lantzeko.

Saioa hasteko, jakintza eta alor askotariko taldeak osatu eta elkar ezagutzeko *check-in* bat egin genuen, ideiak sortzen hasi eta lotsak kentzeko. Jarraian, egindako *brainstorming*-ean azaldutako ideiak marrazkien bidez plasmatu genituen, horren ostean ideien balorazio bat egin ahal izateko.

Hainbat ideia on agertu ziren, baina, denak lantzea ezinezkoa zenez, askotariko teknikak erabiliz talde bakoitzak proiektu bakar bat aukeratu zuen. Ondoren, Canbas metodologia erabiliz, negozio eredua garatu genuen. Aukeratutako negozio ideiak prototipo bidez aurkeztu genituen: baratze ekologiko bat, hainbat ezintasunetara egokitutako parke bat, kafe antzoki berritzaile bat eta hainbat hezkuntza maila biltzen zituen ikastetxe berri bat.

Azaroan 4an egingo dugu azken saioa, eta Bergarako eta Oñatiko ikasleak Zuazola Larraña Institutuan batuko dira. AGORAn sortutako prototipo guztiak MAIn ikusgai egongo dira.



Angiozarko ikuspegi orokorra. | GOIENA

# Herrigunetik kanpo, bailara baten ondarea eta historia ezagutzeko asteburua

**I.G.** | BERGARA

Bergarako erdiguneak dituen eraikin ikusgarriez gain, bere auzo eta bailarek pasarte eta garrantziz beteriko hamaika istorio gordetzen dituzte.

Horren adierazle garbia da Angiozar. Urtetan, eskualdeko bidegurutze garrantzitsua izan zen, eta, tamainaz txikia bada ere, bere ondarea oso handia da. "Pasartez beteriko historia dauka auzoak", dio bisitak gidatuko dituen Arantza Otadui historialari arrasatearrak.

### Auzoa ezagutzeko bi aukera

*Iraganeko oinatzak* proiektuko kideek aurrez izena eman dutenekin bi talde sortu dituzte: zapatuan 17:00etan euskarazko taldearen txanda izango da eta domekan 11:00etan gaztelaniazkoak egingo du bisita.



Fly shit, bergarako taldeko kideak. | FLY SHIT

# Txaparen urteurrenaren barruan, kontzertua bihar

Irratiaren urteurreneko bazkarirako txartelak datorren astetik aurrera erosi ahal izango dira

I.G. | BERGARA

30 urte ez dira egun bakarrean ospatzen, eta, horregatik, zapatu honetarako, uhinak eta entzuleak astinduko dituen kontzertua antolatu dute. 22:30ean, eta 5 euroren truke, doinu gogorrek beteko dute gaztetxea.

**Eskarmentu handiko bi talde**

Bergaran 1996. urtean sorturiko hardcore banda da Fly Shit. Musika bide luze bezain oparoa egin du taldeak, bidean diskoak eta zuzenekoak pilatuta. *Barneko ahotsaren bila* disko berria aurkeztuko dute bihar.

Estricalla taldeak, aldiz, hardcore punk estiloa jorratzen du. El Corazon del Sapo-Kuraia eta Kloakao taldeetan ibilitako kideek osatu dute.

**Bazkaria hilaren 15ean**

Jaiak mahaiaren bueltа ospatu ohi dira, eta Txapa Irratia ez da gutxiago izango. Hilaren 15ean txarangarekin hasiko dute festa, eta, gaztetxeko bazkariaz gain, The Potes taldearen kontzertua izango dute. Egun horretako txartelak datorren astean Pol-Polen eta Arranon erosi ahal izango dira.

## Sailkapeneko azken postuetatik irteteko moduko partidua egin beharko dute eskubaloiko mutilek

Eskubaloiko mutilek ez dute denboraldia ondo hasi eta jokatutako bost partiduetatik bakarra irabazi dute. 12:30ean Labegaraietako kiroldegian Erandio izango dute aurkari. Erandiok partidu bakarra galdu du, baina, etxekoek herrian asko hobetzen dutela kontuan izanda, partidu polita izango da.

## Soraluze BKEko mutilek aurreneko postuetan kokatzeko moduko partidua jokatuko dute bihar

Saskibaloiko mutilak bosgarren postuan egonkortu dira, baina bihar 16:30ean Labegaraietan jokatzen dutela kontuan izanda, lehen postuetara iristeko aukera hori lor dezakete. Parean hamaikagarren doan Bosteko –Irauli B– taldea izango dute. Ziur etxekoen aurrean partidu borobila egingo dutela.

## OHARRAK

**1945EAN JAIOTAKOEN AFARIA TARTUFON**

Azaroaren 15an egingo dute, 21:00etan; ordu erdi lehenago azokako autobus geltokian elkartuko dira. Izena emateko 15 euro aurreratu behar dira jatetxean bertan, azaroaren 13a baino lehen.

**1933AN JAIOTAKOEN KINTO BAZKARIA AZPEITXIN**

Azaroaren 16an egingo dute. Santa Marinan 12:30ean meza izango dute eta 14:30ean bazkaria. Izena emateko Intxortan 6 euro aurreratu behar dira.

**1966AN JAIOTAKOEN AFARIA BATZOKIAN**

Azaroaren 22an egingo dute, 22:00etan. Interesa dutenek 10 euro aurreratu beharko dituzte Ariznoa tabernan, eta taberna horretan elkartuko dira egunean bertan, 19:30ean.

**1970EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA TARTUFON**

Urteko bazkaria azaroaren 22an egingo dute Tartufo jatetxean. Ariznoa tabernan elkartuko dira, 13:00etan. Izen-ematea Sugoi denda egin behar da, 943-76 59 54.

**Juan Ramon Unamuno** | Aldeta taldeko musikaria

# "Bigarren lan hau osoagoa, samurragoa eta intimoagoa dela uste dut"

'Izarrak izaretan' etzi, domeka, Zabalotegi aretoan aurkeztuko dute, eta 8 euro da sarrera

IMANOL GALLEGO | BERGARA

*Txorien aberria* diskoaren ostean, Aldeta taldeak bigarren diskoa kaleratu berri du. Folk doinuak bidelagun, Felipe Juaristiren poemei musika jarri diete. Zortzi abestiz osatutako *Izarrak izaretan* diskoan, talde helduagoa entzun daiteke. Lau kideek poesia arlo pribatutik atera, eta euren doinuei esker esparru publikoan gozagarri egin dute. Herrikoia bezain originala den diskoak entzulea barrutik biluztea lortzen du, bere sentimenduak azaleratuta. Domekan (20:00) etxekoen aurrean, Zabalotegin, aurkeztuko dute.



Juan Ramon Unamuno. | GOIENA

**Bigarren diskoa den arren, musika kontuetan ibilbide luzea duzue.**

Bai, bai. Taldekide guztiak beste talde batzuetan ibilitakoak gara. Nire kasuan, 70eko hamarkadan Uberako abade batekin hasi nintzen musika kontuetan, *Txitxo* Vomito taldekoa da, Monika abesbatza batetik dator eta Felipe, aldiz, poeta da.

**Bigarren disko honetan, Bergarako bi musikariren laguntza izan duzue.**

Bai, halaxe da. Gure doinuak helduagoak dira orain, eta biolina eta kontrabaxua sartu ditugu. Horretarako, Leire Ibartzabalen eta Josu Unamunoren kolaborazioa izan dugu. Bi musikari horiei esker, diskoa samurragoa eta gozoagoa dela esango nuke.

**Zergatik poesia eta musika elkartzeko lan hau?**

Gure marka da. Lehen diskoan ere gauza bere egin genuen, baina *Izarrak izaretan* lanean pauso bat harago joan garela uste dut. Disko borobilago edo osoagoa egitea lortu dugu. Poesia abesti bihurtzea ez da batere lan erraza, askotan aldaketak egin behar dira-eta.

**Letra guztiak Feliperenak dira?**

Lan honetan Feliperen hiru poema musikatu ditugu. Guztiak amodioaren eta desamodioaren inguruko letrak dira, kontrako sentimenduak izan arren batera doazen emozioak direlako.

**Poesia oso intimoa da, eta musika aldiz, publikoa, da. Entzuleek nola jasotzen dute aldaketa hau?**

Entzuleek eta guk geuk asko disfrutatzen dugu. Oso emanaldi intimoak izaten dira. Azkeneko aldiz Errioxan izan ginen, eta bertaratu ziren 100 pertsonek kontzertua luzatzeko eskatu ziguten. Kontuan izan gure kantu gehienak euskaraz direla, eta, entzuleek gure kantuak behar bezala ulertzeko, hasieran laburpen bat egiten diegu.

**Abestiaren esanahia hain garrantzitsua den disko batean, euskara ulertzen ez dutenek nola jaso dute lan hau?**

Ingelesarekin ere gauza bera gertatzen da. Musika gustuko izan arren, gehienetan ez duzu esanahia ulertzen. Baina jendeari abestiaren esanahia azaltzen badiozu, jendea barruraino sartzen da. Horretan Felipe maisua da, eta bere hitzen bidez abestiaren esanahia entzule guztiek berehala jasotzen dute.

**Etxean jotzea berezia da?**

Egun, Donostian bizi nahiz, baina nire sustraiak Bergaran daude. Kanpoan ere izan gara, baina domekakoa berezia izango da. Kuadrilla eta lagun artean emanaldia festa izango da. 20:00ak oso ordu erakargarria ez den arren, ziur oso emanaldi polita izango dela.

**FITXA**



DISKOA

**IZARRAK IZARETAN**

**Estiloa:** Folka.

**Argitaletxea:** Autoekoizpena.


Bergarako Udala

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

**Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:**

1. Ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duena.
2. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.
3. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena.
4. Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.
5. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituena.
6. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden prezio publikoak arautzen dituena.

Erabakia Udalbatza Osoak 2014ko urriaren 27ko bileran hartu zuen. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, behin-behineko erabaki hau 30 lanegunez jarriko da ikusgai jendaurrean Udaletxeko iragarki taulan, interesatuek espedientea aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinaraziko zaio jendeari, eta iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauzko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berririk hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2014ko urriak 28
ALKATEA

# Nesken saskibaloi taldea sortu da Aloña Mendin, hiru denboraldiko etenaren ostean

Astean birritan egiten dituzte entrenamenduak Zubikoako kantxa urdinean eta saskibaloia ondo ezagutzen duen Gorka Judezek zuzentzen du

**M.B. / O.E.** | OÑATI

Nesken taldea sortu da Aloña Mendiko saskibaloi sailean, eta pozik daude herriko kirol elkartean. "Oso berri ona izan da, bai. Pozik gaude. Saskibaloian jokatu zuten azken neskek 2010-2011 denboraldian jokatu zuten, eta sorpresa pozgarria izan da aurten taldea sortzea", dio entrenatzaileak, Gorka Judezek.



Infantil mailako nesken taldea. | MIREIA BIKUÑA

**Hutsetik hasi dira**

Duela bi uda erabaki garrantzitsua hartu zuen Aloña Mendiko saskibaloi sailak: etorkizuna finkatzeko hausnarketa estrategikoa egin zuen. "Zer ginen eta nora eta nola heldu gura genuen hausnartzeko bildu ginen, eta horri eusten diogu gogor", dio Judezek. Hala ere, lanak ondo egiten ari diren seinale izateaz gain, talde berri hori sortzeko zorte pittin bat ere izan dutela aitortzen du: "Bat-batean sortu den taldea izan da. Bagenekien eskolan jokatzen zutela, baina ez genuen uste saskibaloia aukeratuko zutenik kirola egiteko. Zortea ere izan dugu, beraz". Hutsetik hasiko den taldea moldatzea tokatuko zaie orain entrenatzaile eta teknikariei. Eta dagoeneko hasi dira lan hori egiten. "Egia da ez dela samurra izango, eta hori eurek ere badakite. Arautegia erakusten hasi gara, oinarrizko pausoekin. Lehiaketa mailan jokatuko duten lehen aldia da, eta kosta egingo zaigu horretarako behar den kontzentrazioa lortzea; erraz despistatzen dira oraindik. Hala ere, hasiera kosta arren, uste dut taldearen hobekuntzan aurrera egitea ez dela hain zaila izango, hutsetik hasten gara-eta. Ze kategoriatara helduko diren eta etorkizunean ze maila izango duten jakitea zaila egiten zait oraindik. Ez nuke jakingo erantzuten", aitortu du taldeko entrenatzaileak.

**Oinarriak, jarrita**

Gipuzkoako infantil mailako kategoria txikian jokatuko du talde berri horrek. "Gure mailaz kanpo egon ginen. Geurera etortzeko pausoa eman genuen gero eta uste dut hemendik aurrera gorako bidea hartuko dugula. Eskoletako umeez gain, gazte eta kadete asko ditugu. Duten adinerako maila ona dute. Lehen taldean ere gazteak daude. Proiektu berrirako oinarriak jarrita daude", dio Gorka Judezek.

# Kalegoieneko aparkalekura sartzeko modua aldatuko dute

**O.E.** | OÑATI

Datorren azaroaren 3tik aurrera aldaketak egingo dira Kalegoieneko lurpeko aparkalekura sartzeko. Oinezkoen zein ibilgailuen sartzeko moduan egingo dira aldaketak. Oinezkoen sarrerari dagokionez, aparkalekutik irteterakoan automatikoki zabaltzen den ate bat jarriko da, baina sartzeko aparkalekuko txartelaren zenbakia tekleatu beharko da. Autoen sarrerako atea, berriz, itxita egongo da 00:00etatik 07:00ak arte. Ordutegi horretan ezingo da autoa sartu (jabeek izan ezik) eta irteera arrunta izango da.




Kalegoieneko lurpeko aparkalekuko sarrera. | O.E.




Txantxi sorta bat. | TXOMIN MADINA

# Txantxiak euroen truke astelehenetik aurrera

**O.E.** | OÑATI

Herritarrek euroak txantxiengatik aldatzeko bulegoa astelehenean zabalduko dute udaletxean.

**Gutxienez 20, gehienez 500**

Udaletxeko beheko solairuan egongo da txantxiak euroen truke eskuratzeko bulegoa. Harrera-guneko postu baten jarriko dute bulegoa, igogailuaren ondoan. Bulegoaren ordutegia hauxe izango da: astelehen, eguazten eta eguenetan 11:30etik 13:30era eta martitzenetan 15:00etatik 17:30era. Trukea egin gura duen herritarrak 18 urte baino gehiago izan behar ditu eta gutxienez 20 euro aldatu beharko ditu eta gehienez, 500 euro. Trukean, hori bai, %5eko hobaria lortuko du herritarrak. Aldatu gura duen euro kopuruarekin batera, bere izen-abizenak eta nortasun agiriaren zenbakia ere eman beharko ditu.

**Hobariak**

Trukatzen diren txantxiek hiru hilabeteko iraungitze data izango dute. Hala, orain eskuratzen direnak abenduaren 31 aurretik erabili beharko dira eta abenduaren 1etik aurrera hartzen direnak, aldiz, martxoaren 31 baino lehen. Txantxiak hartuko dituzten herriko komertzio, zerbitzu eta negozioek dagoeneko agerian dute hori baieztatzen duen pegatina.

Herriko moneta martxan jarri zenetik hona, urriaren hasieratik, 19.000 euro daude funtzionamenduan txantxitan. Udalak emandako sarietan eta dendariek kanbiotarako hartutakoak tartean, esate baterako.

Udalaren hurrengo pausoa hobarietako batzuk txantxitan ematea da.

# Kultura Astea hasiko dute Pake Lekun astelehenean

**O.E.** | OÑATI

Kultura Astea egingo dute Pake Leku erretiratuen elkartean datorren astean. Kontzertua, hitzaldia, bingoa eta antzerkia antolatu dituzte, besteak beste.

Astelehenean, esaterako, kontzertua egingo dute Aloña eta Hernaniko Goiz Eguzki abesbatzek. Santa Anan izango da, 18:00etan. Martitzenean, berriz, lehengo oñatiarrek nola ligatzen zuten azalduko du Jose Antonio Azpiazuk elkartean bertan, 17:30ean. Eguenean bingo berezia izango dute eta egubakoitzean, *Novedades en villa Titiritaina* antzezlana Santa Anan, 17:30ean. Emanaldi hori erretiratuendako bakarrik izango da. Sarrerak elkartean hartu behar dira aste barruan.



Aitor Biain. | O.E.

**Aitor Biain**
Kazetaria

# "Lehengoek ere kirolarekiko apustu handia egin zuten Oñatin"

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

*1953, historia pedalkadaz* dokumentala egin du Aitor Biain gazteak.

**Zergatik aukeratu duzu ziklo -krosaren gaia?**

Egia esan, kosta egin zitzaidan gaia aukeratzea, dokumental bat egin dudan lehen aldia da-eta. Baina banuen ziklo -kroseko mundu txapelketa Oñatin egin zutenaren berri, eta horri heldu nion.

**Ze irizpide jarraitu dituzu zure lanerako?**

1953an izan zen txapelketa hori eta irudi aldetik agian eskas ibiliko nintzen beldurra nuen. Beraz, argi nuen lekukotasunak topatu behar nituela: Jerardo Elortza historialaria, Antton Elortza txirrindularitza-zalea, Remigio Biain txapelketa antolatzen ibilitakoa, eta txirrindulari moduan parte hartu zuen Joxe Mitxelena, besteak beste.

**Ekitaldiaz idatzi zuen kazetari katalan bat ere agertzen da.**

Bai, Jerardo Fuster. Bartzelonara joan nintzen harekin egotera eta istorio asko kontatu zizkidan. Esaterako, Oñatira trenean etorri zela du gogoan eta bidaia berean Bartzelonako futbol jokalariak etorri zirela, Realaren aurka zuten partidua jokatzera.

**Anekdotak eta Oñatin egindako beste proiektu batzuk ere aipatzen dira.**

Bai. Esaterako, munduko txapelketa egin zen egunean 40.000 lagun etorri zirela, baina bazkaltzeko inor gutxi gelditu zela. Bestalde, Oñatin belodromo ibiltaria egin zutela ere kontatzen da. Herriko arotzek egin zuten.

**Baina txapelketa horretara Oñati nola heldu zen ere azaldu gura izan duzu.**

Bai, bai. 1895ean heldu zen lehen bizikleta Oñatira eta 1920ko hamarkadan hasi ziren bizikleta lasterketak antolatzen herrian. Orduko herri mugimenduaren zati bat agertzen da, indartsua zen.

# Euskarak jasandako zapalkuntza, erakusketan

Azaroaren 9a arte dago ikusgai, kultur etxean, Euskal Memoria fundazioak Foru Aldundiaren laguntzarekin osatutako 'Euskara, ospeletik eguterara' erakusketa

MIREN ARREGI | OÑATI

Ikusgai dago Oñatiko kultur etxeko erakusketa gelan Euskal Memoria Fundazioak Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatu duen *Euskara, ospeletik eguterara* erakusketa. Datorren domekara arte, azaroaren 9ra arte, egongo da hori ikusteko aukera, egunero, 18:00etatik 20:00etara. Hamabi panelek eta oñatiarren testigantzak eta lekukotasunak jasotzen dituen hogei minutuko ikus-entzunezko batek osatzen dute erakusketa eta Gipuzkoako hainbat udalerritatik pasatu ondoren etorri da herrira.

**Memoria bizia jasoz**

David Anauten *Euskararen kate hautsiak* liburua da erakusketaren oinarria. "Euskara zapaldua izan da historian zehar, baina batez ere zapaldua izan dena da euskal hiztuna", dio Anautek erakusketa osatzeko egin duten dokumentalean. Bada, jazarpen historikoa jasotzeaz gain, euskal hiztunei ipinitako zigorretan oinarritutako memoria ere jaso du Euskal Memoria Fundazioak. Erakusketak euskarak azken mendean jasandako zapalkuntza erakusten du; hortaz, hainbat garaitako lekukotasunen eta agirien bitartez.

**Hitzaldia, Jerardo Elortzarekin**

Erakusketaren aitzakian, Oñatiko Euskal Memoriak bestelakoak ere antolatu ditu; besteak beste, datorren eguaztenean, 19:00etan, kultur etxean, Jerardo Elortzak hitzaldia egingo du: Oñatiko eskoletan euskarak bizi izandako gorabeherez egingo du berba.

Bestetik, bihar, *Euskara, añubea eta eguzkibegixa* ikuskizuna estreinatuko dute Santa Anan [Ikus 32. orria].



Gazteak erakusketako panelei begira. | MIREN ARREGI

## Martitzenetik aurrera egongo da mendiko federatu egiteko aukera

Horretarako azken eguna azaroaren 14a izango da

M.A | OÑATI

Aloña Mendiko mendi sailak 2015eko federatu kanpainari ekingo dio martitzenean, azaroaren 4an. Hala, egun horretan eta azaroaren 6an, 10ean, eta 12an, arratsaldeko zazpietatik bederatziak arte egongo da federatu egiteko aukera Aloña Mendiko egoitzan.

Aurtengo federatuei automatikoki berrituko zaie txartela, baina federatu berriak egiteko edota edozein aldaketa egiteko bi modu egongo dira: Aloña Mendiko egoitzara bertara joanda eta Internet bidez. Hala, *alona.federatuak@gmail.com* helbidera bidali beharko dira datuak azaroaren 14a baino lehen. Azaroaren 17 eta 23 bitartean kobratuko dute banketxe bidez gero Federazioan tramitatzeko.

**Federatzeko "beharra"**

Aloña Mendik federatuta egotearen garrantzia eta beharra azpimarratu gura izan ditu, mendiko jarduerak egiten dituzten pertsonen kasuan. Ez hori bakarrik; izan ere, datorren urtean Aloña Mendik antolatutako edozein irteeratan parte hartzeko federatuta egotea ezinbestekoa izango da.

## Umeendako irakurketa saioak, hilaren 12an hasita

M.A | OÑATI

3 eta 6 urte bitarteko umeei zuzendutako irakurketa saioak martxan dira berriro. Azaroaren 12an izango da lehena, 18:00etan, kultur etxean; bigarrena azaroaren 26an ordu eta toki berean eta azkena abenduaren 10ean, hori ere 18:00etan kultur etxean. Galtzagorri Elkarteak eta Oñatiko Liburutegiak antolatuta, saioen helburua bikoitza da: gozatzeko une bat sortzea eta umeek ipuin, kantu, olerki eta hitzekin goza dezaten lortzea, eta bestetik, gurasoen prestakuntza.



Zurraia talde oñatiarra kontzertuan. | GOIENA

## Batzar irekia bihar, 11:00etan, ikasturteari forma emateko

M.A | OÑATI

Betea dator azaroa Oñatiko Antixena gaztetxean; izan ere, batzarrak eta topaketak, ikastaroak, hitzaldiak eta kontzertuak izango dira. Bihar emango diote hasiera hilabeteko egitarauari, 11:00etan gaztetxean egingo den batzar irekiarekin. Ikasturtean zehar aurrera eramango diren ekintzak proposatu, eztabaidatu eta landuko dira bertan.

**Elkartasun keinuak eta beste**

Azaroaren 11n, martitzena, *Elikadura inperioak nekazaritza kapitalaren aroan* autoformakuntza saioa egingo dute gaztetxean bertan eta hilaren 16an, domeka, kafe-tertulia egongo da Sahararen gainean. Abuztuan Saharako lurralde okupatuetan izan diren bi hizlari oñatiarrek hartuko dute parte eta baita Oñatin bizi den saharar batek ere.

Azaroaren 28rako, *Diario Fatxorekin elkartasuna* delako jaia antolatu dute gaztetxean. Gauez izango da hori eta kontzertuak izango dira ardatza. Oñatiko Zurraia eta BENEH taldeek eta Legazpiko D-Pintxos-ek hartuko dute parte. Hurrengo egunean, azaroaren 29an, Oñatiko bertso txapelketako kanporaketa jokatuko da gaztetxean.

Bestetik, urtero moduan, gaztetxeak parte hartuko du azaroaren 21etik 23ra Arrasaten egingo diren bailarako gaztetxe topaketetan.

### Azaroaren 9tik aurrera neguko ordutegia izango du Arantzazu eta Oñati lotzen duen autobus lineak

Azaroaren 9tik aurrera neguko ordutegia izango dute Arantzazu eta Oñati lotzen duten autobusek. Hala, Oñatin 07:30ean hasiko da zerbitzua eta Arantzazutik azken autobusa 18:00etan jaitsiko da. Eguerdian, 14:00etatik 16:30ak arte, etenaldia izango du zerbitzuak. Bada, neguko ordutegia datorren martxoaren 29ra arte egongo da indarrean.

### Arroza, pasta edo patata tortilla prestatu beharko dute gaur gaztetxoek topalekuko I. txef lehiaketan

Herriko gaztetxoendako lehen txef lehiaketa egingo dute gaztelekuko topalekuan gaur, 17:00etan. Bertakotze programako hezitzaileekin batera antolatu dute txapelketa, eta gazte etorkinen integrazioari begira egindako ekintza da. Lau sukaldari egongo dira talde bakoitzean eta hiru menu hauetako bat egin beharko dute: arroza, pasta eta patata tortilla, hain zuzen ere.

### Espeleoabentura irteera egingo dute domekan Arrikrutz kobetan 16 urtetik gorakoendako

Espeleoabentura irteera berezia egingo dute domekan, azaroak 2, Arrikrutz kobetan. 16 urtetik gorakoendako izango da, eta ohiko bisitetako ibilbidetik kanpora eta bestela ikusten ez diren galeria fosil eta aktibo batzuk ezagutzeko irteera izango da. 09:30ean da hitzordua, Arrikrutzen. Prezioa 20 euro da eta izena aurrez eman behar da telefonoz deituta: 943-08 20 00.

### Pow Pow Pows talde nafarrak joko du, zuzenean, domeka iluntzean Pako tabernan

Nafarroatik, Iruñetik, etorriko den Pow Pow Pows taldeak joko du domeka honetan, 19:30ean, Pako tabernan. 2012. urtean sortutako rock-and-roll taldea da Pow Pow Pows. *Animales fantásticos* lehen diskoa grabatu berri dute, eta bertan, pop, psikodelia eta power pop estiloak entzun daitezke. Britainiar Handiko eta Kaliforniako 60ko hamarkadako soinuak ere antzematen dira.

# Gernika plazarako egindako hiru proiektuak Arkupen daude ikusgai

Azaroaren 5ean argibideak emateko batzarra dago eta 7an eta 8an bozkatu ahal izango dute herritarrek



Etxetxo itxurako jolaserako txirrista. | LAPPSET



Hainbat altueratara egindako parkea. | HPC

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Gernika plazako jolasparkearen itxura berria herritarrekin elkarlanean erabaki gura du Udalak. Hala, hiru enpresari proiektuak egiteko eskatu ondoren, proposamenok Arkupe kultur etxeko sarreran daude ikusgai. Argibide gehiago gura dituenarendako, gainera, batzarra egingo dute datorren eguaztenean, azaroak 5, 18:30ean, Arkupen. Gero, azaroaren 7an (09:00etatik 12:00etara eta 16:30etik 19:00etara) eta 8an (10:00etatik 13:00etara) gustukoenaren aldeko botoa emateko aukera izango da: "Izan ere, herritarrek inork baino hobeto dakite zelako herria gura duten gaur eta etorkizunari begira", dio alkateak.



Hainbat txirristekin osatutako gunea. | HAGS

**Herritarrek hamabost puntu**

Herritarren erabakiak hamabost puntu balioko du eta gainerako 37ak Hirigintza Sailak emango dizkio, hainbat aspektu kontuan hartuta; besteak beste, segurtasuna, mugikortasuna, berrikuntza eta inguruarekiko integrazioa. "Familiendako parkea da, ume txikiak edo autonomia txikia dutenak egoteko lekua, eta hori hartuko dugu kontuan", jakinarazi du Ana Bolinaga alkateak. Hala, 6 eta 10 arteko neska-mutikoendako izango da jolaslekua. Udalak hori berritzeko partida dauka gordeta, 60.000 euro inguru.

**Ikuspegi globala**

Gernika plazako parkeaz gain, aisialdiarekin zerikusia duten beste proiektu batzuk esku artean dituztela esan du Ana Bolinaga alkateak: "Skate parkea eta kiroldegi aurreko zelai-gunea, esaterako, ditugu hor. Hala, ikuspegi globalarekin gabiltza lanean".

# Alfonbra gorria gertu dago plazako ibiltokian herriko modeloak hartzeko

- 'Herriko Plaza fashion day' moda desfilea egingo du Aretxartek gaur, 18:30ean, Herriko Plazan
- Arropen eta osagarrien zazpi dendak hartuko dute parte, hiru ile-apaindegik eta argazkilari batek

**M.A.** | ARETXABALETA

Udazken eta negu sasoiko azken nobedadeen berri izan gura duenak aparteko aukera dauka gaur Aretxarte merkatarien eskutik. Badator *Herriko Plaza fashion day* desfilea. Herriko zazpi komertziok egingo dute, eta aurtengoan hiru ile-apaindegik ere hartuko dute parte; baita Begira argazkilaritzak ere. Herriko Plazan izango da, 18:30ean.



Desfilean parte hartuko duten Aretxarteko kideak: merkatariak, ile-apaintzaileak eta argazkilaria. | M.A.

**Arropak eta orrazkerak**

Alfonbra gorria gertu daukate herriko modeloek. Azken urteotan legez, umeak, gazteak eta helduak, guztiak izango dira atzera eta aurrera, jira eta dantza, alfonbra gainean. Gainera, oraingoan, oholtza gainera igoko dira, ikusleek gertu-gertutik jarraitzeko modeloen lanak.

Azken produktuak erakutsiko dituzten komertzioak honako hauek izango dira: Kilima eta Haurrak umeendako arropa-dendak; Amaia umeendako produktuak eta arropak dituen komertzioa; M-5 kirol-denda; Titare lentzeria-denda; Lie opari-denda; eta Belar Meta gazteendako arropa-denda. "Berokiak, txamarrak eta abrigoak; jertse potoloak eta txanoak; pijamak eta etxerako batak; ume-kotxeak eta horiendako osagarriak; kirola egiteko arropak eta oinetakoak; eta arropa eta osagarri mordoa erakutsiko dugu", jakinarazi dute Aretxarteko antolatzaileek.

Horiekin batera, orrazkera dotoreak eta makillaje kontuetan azken nobedadeak erakutsiko dituzte hiru ile-apaindegik: Irudi; L-10; eta Gemes irudi aholkulariak. Begira argazkilaritza dendako Ane Idigoras ere bertan izango da modeloei argazkiak ateratzen. Hala, bada, herriko komertzioak eta herriko modeloak, musika dantzagarria lagun, herritarrendako jai giroa sortzen gaur, plazan.

**IDOIA ELEXPURU**
LEHENDAKARIA

## "Cibeles? Gurea askoz hobea da!"



M.A.

Aretxarteko lehendakariak nondik norakoen berri eman du.

**Zergatik Duranatik plazara?**
Gero eta gehiago gara, eta hobeto antolatze aldera. Herritarrek, gainera, hobeto ikusiko dute, oholtza gainean ibiliko dira–eta modeloak.

**Zer erakutsiko duzue?**
Herrian daukagun eskaintza handia, denetik dugulako: kirol–denda, argazki–dendak...

**Zelan antolatu duzue desfilea?**
Kurtzebarri BHI eraikinetik irtengo dira modeloak eta *T* forma (alderantziz jarrita) izango du ibiltokiak, hamar bat zentimetroko altuerarekin. Argi–fokuak ere jarriko ditugu.

**Cibeles ez da izango, baina bai zeuon ibiltokia, ezta?**
Cibeles ez, hobea! Herrikook gertatua herritarrendako.

**Fruiturik ematen du gero?**
Bai, asmoa da zer dugun erakutsi eta dendetara gonbidatzea, beldur barik sar daitezela.

# Argazki kamera ondo ezagutzeko ikastaroa

## Loramendik antolatu du eta Ekaitz Filarmendik gidatuko du; lau saio izango dira, martitzenetan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Argazkilaritzaren gaineko ikastaroa antolatu du Loramendi elkarteak Udalaren laguntzarekin, argazki kamera automatikoan jarri barik argazkiak ateratzen ikasteko. Aparteko irakasle batek gidatuko du: Ekaitz Filarmendi argazkilari aretxabaletarrak.

Ikastaroak lau saio izango ditu, martitzenetan: azaroaren 4an eta 18an eta abenduaren 2an eta 16an. Udaletxe zaharrean elkartuko dira, 18:30etik 20:00etara. Izena aurrez eman behar da Loramendira jota; hona bideak: 943-77 09 70 eta 685 75 67 29 eta *loramendielkartea@gmail.com*. Prezioa da 10 euro bazkideendako eta 12 euro gainerakoendako.

**Manualean erabiltzen ikasi**

Sei ordu iraungo duen ikastaroan hainbat gai landuko ditu Filarmendik: "Abiapuntua izango da kamera baten barruan zer gertatzen den ezagutzea. Horretarako, kartoizko kaxekin egindako kamera pare bat gertatu ditut argia barrura sartzean zen gertatzen den ikusteko", azaldu du. Eta beste hainbat gairen artean honako hauek landuko ditu: sentsibilitateak, hau da, isoak zelan aldatzen diren; eta abiadurak eta diafragmak erlazionatu. "Batez ere gai horiek landuko ditut kamera era manualean zelan erabili behar den ikas dezaten. Denbora izanez gero osagarrietan ere sartuko gara: tripodeen erabilera, filtroena…", argitu du Filarmendik, eta onartu du denbora luzerik ez dutela izango praktikak egiteko, baina igual "etxerako lanak" emango dizkiela: "Ikasitakoa praktikan jartzea komeni izaten da-eta".

> **ESANAK**
>
> **"Kamera barruan zer gertatzen den erakutsiko dut"**
>
> EKAITZ FILARMENDI | ARGAZKILARIA




BASOTXO ERRETIRATUEN ELKARTEA

## Ikusteko asko eta jateko ona dago Burgos aldean

Burgos aldean ibili gara Basotxo erretiratuen elkarteko kideak. Lehenengo Aranda de Duero herrian *Las Edades del Hombre* erakusketa ikusi genuen, eta bertan bazkaldu; eta nola ez, bildots ederra jan genuen. Amaitzeko, Burgos hiriburura joan ginen eta katedral aurrealdean argazki dotorea atera genuen guztiok batera.

KOMUNITATEA GOIENA | BASOTXO | ARETXABALETA

## OHARRAK

**'EUSKAL HERRIKO HILARRIAK' ERAKUSKETA**

Astelehenean, azaroak 3, hasita *Euskal Herriko hilarriak* argazki erakusketa izango da Arkupen azaroa bukatu bitartean. Pedro Zarrabeitiaren argazkiak dira.

**'LA GRAN BELLEZA' FILMA ZINEKLUBEAN**

Datorren astean jarriko dute abian zinekluba eta lehenengo filma izango da: *La gran belleza* (Italia, 2013), 142 minutukoa. Atzerriko film onenaren Oscarra eskuratu zuen. Eguenean da, 19:30ean; sarrera, 4 euro.

**AQUA XUMBA SAIOA KIROLDEGIAN**

Aqua xumbaren gaineko egun bateko ikastaroa antolatu dute Ibarra kiroldegian. Egubakoitzean, azaroak 7, izango da, 18:15ean, igerilekuan. Izena aurrez eman beharra dago kiroldegiko harreran. Abonatuek debalde izango dute.

**SARE SOZIALEN GAINEKO HITZALDIA**

*Gazteak eta sare sozialak* hitzaldia egingo du Amaia Arroyo arrasatearrak HitzHartu akademian hilaren 8an, 10:30ean. Izena emateko deitu edo idatzi: 943-08 76 32 eta *hitzhartu@gmail.com*. Prezioa, 10 euro (HitzHartuko ikasleen gurasoek erdi prezioan).

# Eskola jasangarriaren ziurtagiria berritu du Kurtzebarri BHIk

## Agenda 21eko lehiaketaren saria jaso dute

KOMUNITATEA GOIENA | I. GUTIERREZ
KURTZEBARRI BHI | ARETXABALETA

Kurtzebarri BHko bigarren mailako ikasleek astelehen honetan, hilaren 27an, iazko logotipo lehiaketan irabazitako sariaz disfrutatzeko aukera izan dute. Donostiako Aquariuma bisitatu eta bertan bazkaldu ondoren, egun-pasa ederra izan dute.

**Lehendakariaren aitortza**

Gainera, 2010eko abenduan ikastetxeak Eskola Jasangarriaren ziurtagiria jaso zuen ingurumenaren alde egindako apustuagatik. Urte hauetan guztietan arlo honetan egindako lanari eutsi eta iaz auditoria sendo bat gainditu eta gero, ziurtagiri hori berritzea lortu zen. Era horretan, datorren asteazkenean, azaroaren 5ean, eta Iñigo Urkullu lehendakariaren eskutik, egindako lana aitortuko da.

Zorionak eta mila esker proiektu honen aldeko apustua egin duten guraso, irakasle, ikasle, herritar, udal… eta eragile guztioi. Urte luze hauetan pertsona ezberdinek egindako lana goraipatzea ezinbestekoa da; guztiona da ziurtagiria. Zorionak!




Saria jaso duen biodibertsitatearen gaineko irudia. | KURTZEBARRI BHI

### Pablo Maloren 'Lasa eta Zabala' filmak zabalduko du zinema denboraldia bihar Arkupen

Negu parteko zinema denboraldiari ongietorria emateko *Lasa eta Zabala* filma emango dute aste bukaeran Arkupeko Zaraia aretoan (Euskal Herria, 2014, 101 minutu). Hona egutegia: bihar, 19:30ean eta 22:00etan; domekan, 19:30ean; eta astelehenean, 16:00etan. Umeek, ostera, *Como entrenar a tu dragón 2* filma izango dute bihar eta etzi, 17:00etan.

### Haur masaje ikastaroa egingo dute Kurtzebarri eskolan azaroko martitzenetan eta eguenetan

Kurtzebarri eskolak haur masaje ikastaroa antolatu du hilabete eta sei hilabete arteko umeak dituzten familiendako. Azaroan dira saioak, martitzenetan eta eguenetan, 17:30ean. Hona egunak: 11, 13, 18 eta 20. Interesatuta daudenek dei egin dezatela eskolara: 943-79 00 49. Antolatzaileek gomendatu dute jantzi erosoak eta eskuoihala eroatea saioetara.

### Bazkaria egingo dute Bainetxe kalean jaiotakoek azaroaren 8an, eta zabalik dago izena emateko epea

Aretxabaletako Bainetxe kalean jaiotako hainbat lagunek bazkaria egitea pentsatu dute. Lagunarte giroan egingo dute, kontuak kontatzeko aitzakiarekin. Ospakizuna azaroaren 8an, zapatua, izango da, Atseden tabernan. Izena aurrez eman behar da honako telefono zenbaki honetara deituta: 615 79 05 75 (Gorka). Azken eguna astelehena da, azaroak 3.

### Angel Elortza eta Jabier Egaña abadeen urrezko ezteiak ospatuko dituzte azaroaren 16an

Angel Elortzaren eta Jabier Egañaren urrezko ezteiak ospatu gura dituzte Pastoral Barrutia osatzen duten Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzaga eta gainerako hamalau elizateetako parrokiek. Azaroaren 16an izango da: 12:30ean, meza nagusia Eskoriatzako parrokian; eta 14:30ean, bazkaria, Aretxabaletako Hirusta Jatetxean. Izena aurrez eman behar da sakristian edo Hirustan (40 euro).

# Aste bukaeran irekiko ditu ateak gazte txokoak

KOMUNITATEA GOIENA |
GAZTE TXOKOA | ANTZUOLA

Azaroaren lehenengo asteburutik aurrera, azaroaren 1-2ko asteburutik, irekita egongo da Antzuolako gazte txokoa. Beraz, 12 eta 15 urte bitarteko gaztetxoek asteburuero izango dute lagunekin elkartu eta ekintza desberdinak egiteko aukera. Aurreko urteetan bezala, gazte txokoaren ordutegia izango da: zapatuetan 17:00etatik 21:00etara eta domeketan 17:00etatik 20:00etara.

Jada, hezitzaile zein koordinatzaileak hasi dira ikasturteko programazioa egiten eta aurten ekintza, ikastaro, tailer, irteera ugari izango dituzte gazte txokoan. Azaroan, esaterako, lehen egunean merendola egingo dute ongietorri gisa, eta hirugarren asteburuan mural erraldoia eratuko dute aurreko urtean ateratako argazkiekin. Azken zapatuan tortilla lehiaketa izango dute. Horrez gain, asteburuo sukaldean jarduteko aukera izango da, besteak beste, krepeak, natillak edota pizza goxoak egiten.

### Hiru hezitzaile

Aurten hiru hezitzaile ibiliko dira neska-mutikoekin: Nagore, Olaia eta Eloien. Itsaso izango da koordinatzailea. Iaz, 30 bat lagun egon zen gazte txokoan, eta, ekintzez gain, hiru irteera egin dituzten urtean zehar.

Adin tarte horretakoa bazara, animatu eta etorri lagun artera jolastera!





Ima Beristain, Arño Gastanbide eta Metxe Aizpurua hitzarmena sinatzen Aiherran. | JONE LARRAÑAGA

# Aiherrara egindako bisitaren ostean, itzulerakoa prestatzen

Azaroaren 22an etorriko dira aihertarrak 30. urteurrena ospatzera

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Antzuolaren eta Aiherraren arteko harremanaren 30. urteurreneko lehen ekitaldiak joan den astean egin zituzten, Aiherran. Haraino joan ziren Antzuolako herritarrak eta udal ordezkariak. Guztira, 50 lagun inguru.

Egun osoko festa egin zuten, eta bi herrien arteko hitzarmena sinatu zuten Ima Beristain Antzuolako alkateak eta Arño Gastanbide Aiherrako alkateak. Mertxe Aizpurua Udalbiltzako lehendakaria egon zen ekitaldian. Horren ostean, zuhaitz bat landatu zuten. Elkarrekin bazkaldu ostean, dantzaldia egin zuten Kiki Bordatxo taldearekin. Gainera, pilotan jokatu zuten. Antzuolako ordezkariak Ibai Larrea eta Xabi Jauregi gazteak izan ziren.

Aiherrako festa bukatzeko kontzertu erraldoia egin zuten hiru taldek: Goliath-ek, Governors arrasatearrek eta Ze Esatek-ek.

### Hitzaldia

30. urteurreneko joaneko ekitaldiak egin ostean, itzulerakoak geratzen dira: azaroaren 22an egingo dituzte ekintzok Antzuolan. Egun handia horixe izango da, baina aurretik, azaroaren 5ean, eusko monetaren gaineko hitzaldia egingo dute: *Euskoa: Iparraldeko tokiko moneta* delakoa. Xebax Christyk "moneta alternatiboa eta euroaren osagarri" denaz egingo du berba, Olaranen, 18:30ean.

### Gaztainondoa landatu

Aiherran egindako moduan, Antzuolan ere arbola landatuko dute 30. urteurrena ospatzeko: Aiherratik ekarriko duten gaztainondoa, hain zuzen ere.

Udal ordezkariek hitzarmena berretsi ostean, Aiherrako Beltzuntze elkarteari omenaldia egingo diote: Antzuolako bandera emango diote, eurak izan zirelako senidetzearen bultzatzaileetako batzuk. Horren ostean, gaztaina erre dastatzea egingo dute.

### Gaubeila

Antzuolako ospakizunak bukatzeko, gaubeila egingo dute, 19:00etan. Aiherran egiten den ekitaldi garrantzitsua da. Urtero azaroaren 10ean egiten dute, baina aurten, Antzuolara egingo duten bisita aprobetxatuko dute, eta lehen aldia izango da Aiherratik kanpo egingo dutena.



AITZOL ITURBE

# Kutxabanken gaineko berbaldia Antzuolan

Kutxabanki buruzko berbaldian hamazortzi lagunek parte hartu zuten astelehenean. Joseba Permachek eta Jone Etxeberriak Kutxa banku fundazio bihurtu arteko prozesuaren berri eman zuten, fundazio arrunt bihurtzeko Gipuzkoako Aldundiaren proposamena zehatz azaldu eta aldaketak izango dituen eragin negatiboak jakinarazi zituzten.

# Andoaindik Leitzara bizikletan Arrola mendi taldearekin

Arrola mendi taldeak mendiko bizikletarekin egiteko irteera antolatu du biharko, Domu Santu eguna. 09:00etan autobus geltokitik abiatuta, egun osoko irteera egingo dute antzuolarrek. Ume, gazte eta helduek parte hartuko dute. Hori horrela, bi ibilaldi zehaztu dituzte. Biak ala biak Andoainen hasiko dira. Laburrena Leitzaraino izango da, 25 kilometrokoa, eta luzeena Lekunberriraino: 50 edo 80 kilometro egiteko.

Egun osoko ibilaldia denez, janaria norberak eraman beharko du, eta baita tuneletatik pasatzeko frontalak.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI

KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika

Aingeru Guarda Pasealekua 31. • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 40 10

# Bitartekari jarduteko eskatu diote Udalari Fagorren itxierak kaltetuek

Mozioa aurkeztu dute osoko bilkuran eta argibideak eman dizkiote udalbatzari

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Ohiko osoko bilkura egin zuen martitzenean udalbatzak, eta Fagor Etxetresnen eta Edesaren itxierak kaltetutakoen bisita izan zuten, iragarrita zeukaten moduan, udalez udal aurkeztuko duten mozioaren berri emateko. Eskoriatza da mozioa aurkeztu duten lehen herria eta aho batez onartu zuten alderdi guztiek: Bilduk, EAJk, Ezker Anitzak, Elizateek eta alderdi sozialistak.



Mikel Olabe osoko bilkuren mahaian argibideak ematen martitzenean. | M.A.

**Udalbatzaren baietza**

Ordaindu plataformako Mikel Olabek egin zituen kaltetutakoen bozeramaile lanak, eta eskatu zioten udalbatzari bitartekari izateko Mondragon Korporazioarekin. Besteak beste, honako eskaera hauek egin zituzten: lanik gabe daudenei behin betiko lanpostua; kapital sozialak eta borondatezko ekarpenak itzultzea; eta kooperatibisten erretiro aurreratu duinak bermatzea. Era berean, udal ordezkariei esan zieten Aldundiari eskatzeko dituen baliabide guztiak erabil ditzala. Beñat Herce alkateak baietza eman zien: "Eskualdeko gainerako udal ordezkariekin egingo dugu berba eta ea guztiok eseri eta soluziorik onenak lortzen ditugun". Aho batez onartu zuten mozioa.

**Udal tasak eta zergak izoztu**

Beste gai batzuk ere landu zituzten osoko bilkuran; ordenantza fiskalak, adibidez. Udal tasak eta zergak izoztea proposatu zuen alkateak, "egoera ekonomikoak hala eskatzen duelako". Izoztutakoen artean daude honako hauek: ondasun higiezinen gaineko zerga, ibilgailuena, hondakinen tasa eta kiroldegiko prezioak. Tasa bakarra igo dute: ur hornikuntzarena. Horren arrazoia da Gipuzkoako Urak enpresak %5 igoko diola uraren kostua Udalari, eta, horri aurre egiteko, herritarrei %2,5 igoko diete.

Ezker Anitzako Juan Luis Merino ez zen bat etorri horrekin. Haren esanetan, "udal hauteskundeen gertutasunagatik" hartu du erabaki hori Bilduk. Merinok uste du herritarrei zerbitzu publikoak bermatu behar zaizkiela eta horretarako "arrazoizko" igoera bat izan beharko luketela tasek. EAJ eta Alderdi Sozialista abstenitu egin ziren, eta ordenantza fiskalak onartuta geratu ziren.

## Merkatariek komertzioen erakusleihoak tapatuko dituzte

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Axtroki Merkatari Elkartea osatzen duten 25 komertzioek kontzientziazio kanpaina hasi dute. Atzo, egun osoz egin zuten, eta gaur, egubakoitza, ere merkatu bat ixten denean erakusleihoan jartzen den paper marroiarekin tapatuta egongo dira komertzioak, herritarrak komertzioek eskaintzen duten zerbitzuaz jabetzeko.

Erakusleihoetan jarri duten paper marroian hiru kartel daude, salgai dagoen komertzio baten ipintzen den moduan: *Denon artean ekidin dezakegu, Gaur zabalik, bihar?* eta *Entre tod@s podemos evitarlo.* Kartel bakoitzaren azpian *Hemen bizi, hemen erosi* esaldia joango da; hala, komertziorik gabeko herri bat nolakoa izango litzatekeen erakusteko. Esan beharra dago erakusleihoak tapatuta egon arren, komertzioak irekita egongo direla.

**Komertzioek zozketa**

*Hemen bizi, hemen erosi* zozketa egingo dute Axtroki Merkatari Elkartekoek azaroaren 7an, egubakoitza. Izan ere, Joseba Iñurrategik pilota partiduak antolatu ditu. Eta, hain zuzen ere, partiduetara joan nahi duenak sarrerak lortu ahal izango ditu Axtroki Merkatari Elkarteko komertzioek egingo duten zozketa bidez.

## Luis Ezeiza ikastetxeko neska mutikoek aste bukaera mikologikoa antolatu dute

I.B. | ESKORIATZA

Hainbat ekintza prestatu dituzte Luis Ezeiza ikastetxekoek aste bukaera mikologikorako. Bihar, zapatua, 09:30ean, mendi irteera egingo dute perretxikoak hartu eta ezagutzeko. Herriko plazatik irtengo dira, eta inguruko mendietan ibiliko dira. 16:30ean, berriz, perretxikoen sailkapena egingo dute kultur etxean. Hori zapatuan, baina domekan ere izango da zer ikusi; izan ere, 11:30-14:00 bitartean hainbat ekintza izango dira: perretxiko erakusketa, taloak eta umeentzako marrazketa txapelketa. Parte hartzen dutenek opariak jasoko dituzte. Hori guztia herriko plazan.

## Baserritar jantziak egiteko ikastaroan izena emateko azken eguna

Baserritar jantziak egiten ikasi nahi duenak aukerako ikastaroa du Amaia Albesen eskutik. Hain zuzen ere, azaroaren 3tik abenduaren 15era izango da, astelehenetan, 18:30etik 20:30era. Izena emateko azken eguna gaur da, eta hamar euro ordaindu behar dira. Kultura etxera deitu behar da: 943-71 46 88.

## 'Donde no hay mata, hay patata' antzerkia izango da Ibarraundin

Elikadura subiranotasunari buruzko zikloari amaiera emateko antzerkia izango da Ibarraundin. Izan ere, *Donde no hay mata, hay patata* antzerkia egingo dute gaur egubakoitza, 22:00etan. Gizakiak lurrarekiko duen harremanaren eta kontsumitzen ditugun elikagaien gaineko gogoeta egiteko.

## Kanpoko igerilekuaren gaineko hausnarketa gaur Ibarraundin

Kiroldegiko kanpoko igerilekua nola dagoen azaltzeko bilera egingo dute gaur, urriak 31, 18:30ean, Ibarraundi museoan. Horren helburua da gune ludiko horretarako alternatibak aztertzea. Interesa duten herritarrak gonbidatu dituzte ideiak eta proposamenak partekatzera.

## Saltzeko edo trukatzeko bigarren eskuko azoka egingo da Eskoriatzako plazan azaroaren 15ean

I.B. | ESKORIATZA

Bigarren eskuko azoka egingo da herriko plazan azaroaren 15ean, 11:00etatik 14:00etara bitartean. Nork bere etxean dituen gauzak itxura onean badaude eta inori baliagarri izan dakizkiokeela uste duenak aukera bikaina izango du. Bertaratzen denak gauza ugari erosi edo trukatzeko aukera izango du: jostailuak, arropak, liburuak... baita objektu bitxiagoak ere, seguru asko. Hori bai, ez dira produktu berriak onartuko. Postua jartzeko mahai bana izango da eskuragarri eta azoka ondo antolatzeko parte-hartze konfirmazioa eskatzen da. Horretarako, 943-71 46 88 telefonora deitu edo *kultura@eskoriatza.net* webgunera mezu bat idatzi beharko da azaroaren 13a baino lehen.



# Musika ikasteko eskaera "handiari" erantzun guran

- Larraitz Arriolabengoa bigarren urtez dabil eskolak ematen, 50 bat ikasleri
- Udaleko ordezkariekin elkartzeko asmoa du aurten ere, datorren urterako

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Musikarako zaletasunak Aramaion harrobi jendetsua duen adierazle, 50 bat ikaslek eman dute izena 2014-2015 ikasturtean Larraitz Arriolabengoa irakaslearen klaseetan. San Martin eskolako guraso elkartearen babesarekin iaz hasi zen eskolak ematen, eta aurten ere zerbitzua eskaintzen segitzea erabaki du. Hala, hastapen eskoletan, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako lehen mailarainoko ikasleak hartzen ditu, 7 urtera artekoak.

Horrez gain, hizkuntza musikala ere eskaintzen du, iazkoek ikasketekin jarraitzeko aukera izan dezaten. Instrumentu aldetik pianoa, gitarra eta txistua ikasteko aukera dago. San Martin eskolako ikasleez harago, Arrasate Institutuan ikasten dutenetako batzuek ere ikasten dute Arriolabengoarekin: "Berez eskaintza herri osoari dago zabalik, musika ikasketak Aramaion bertan egiteko aukera eskaini gura dugu", dio.



Arriolabengoa piano klaseak ematen. | LARRAITZ ARRIOLABENGOA

**Lanez gainezka**

Sei talde ditu guztira. Horietako bat DBH mailan diharduten ikasleek osatzen dute, beste hiru hizkuntza musikaleko taldeak dira eta gainerakoak hastapenetakoak.

Arriolabengoaren kalkuluen arabera, 50 bat ikasle izango ditu ikasturte honetan, urritik ekainera: "Topera nabil. Aurten dagoeneko zailtasun handiak izan ditut ordutegiak egokitzeko. Solfeoa nik bakarrik ematen dut, eta, beraz, lan handiarekin nabil. Aurtengoa bigarren urtea da eta dagoeneko jendez gainezka nabil; datorren urterako beste bide batzuk hartzea pentsatu beharko dut".

> **ESANAK**
>
> **"Aurten zailtasunak izan ditut ordutegiak egokitzeko"**
>
> LARRAITZ ARRIOLABENGOA | IRAKASLEA

**Musika eskolaren "beharra"**

Izan ere, irakasleak uste du herriak musika eskola bat edo antzeko zerbait behar duela: "Ikusten da jendeak zerbitzu hori eskatzen duela. Ez dakit eskola izan behar den edo lokal bat...". Izan ere, Arrasatera jaitsi beharraren edo herrian musika ikasteko aukera izatearen artean "alde handia" dagoela uste du: "Aurten jende gehiagok eman du izena; eta oraingo umeek gerora instrumentu bat hartuko dute", gaineratu du.

San Martin eskolako musika gelan ematen ditu eskola batzuk eta bere etxean beste batzuk. Iaz Udalak musika instrumentu batzuk erosten lagundu zion, gerora begira musika eskolan geratzeko asmoarekin. Hala, Udalak proiektuen artean du lokal bat egokitzea: "Iaz Udaleko ordezkariekin egon nintzen eta proiektu bat aurkeztu nien. Euren erantzuna oso ona izan zen, proiektua asko gustatu zitzaien. Baina urtebete pasatu da eta ez da ezer egin; badakit ni naizela lehen interesatua, eta badut asmoa datorren urteari begira zerbait adosteko Udalarekin. Datorren urtean ikasleei ez diet ezezkorik eman nahi", adierazi du Arriolabengoak.





## Omenaldia Beitiari eta Ibaberi, aramaioar edadetuenei

ARAMAIOKO UDALA

Urriaren 25ean Erretiratuen Eguna ospatu zela aprobetxatuta, Edurne Uribarren-Iturrieta eta Lierni Altuna zinegotziek bisita egin zieten Maria Angeles Beitia eta Balentin Ibaberi, aramaioar edadetuenei. 1918ko martxoaren 1ean jaio zen Beitia, Altzaga auzoan, eta urte bereko uztailaren 4an Ibabe, Eguzkierripan. Beraz, 96 urte bete dituzte; Udalak oroigarri bana oparitu zien. Zorionak!

## Zuzendari talde berriko kideok gogotsu gaude, lagundu gura duenari zabalik

KOMUNITATEA GOIENA
ORIXOL ELKARTEA | ARAMAIO

Gorka Urbinak, Iker Senarrek, Aitor Zabalak, Beñat Arregik eta Mikel Arriolabengoak osatzen dugu zuzendaritza talde berria. Aramaioko bost mendizale gazte gara. Urtebete egongo gara zuzendaritzako lehengo kideekin, lanaren nondik norakoak ikasteko. Talde osoa da berria eta ateak irekita daude gura duenarendako. Elkartea ondo dago osasunez eta horrela jarraitu dezan aurrekoek egindako lan onari jarraipena eman behar diogu; 200 bazkidetik gertu gaude eta jende berria erakartzea da helburuetako bat. Gogotsu gaude, eta laguntzeko gertu dagoen edonori zabalik.

## Mahaia jarriko dugu gaur okindegi parean, azaroaren 8ko mosaikoari begira

KOMUNITATEA GOIENA
GURE ESKU DAGO | ARAMAIO

Erretiratuen Eguneko azokan mahaia jarri genuen, azaroaren 8an Donostiako Zurriola hondartzan egingo den mosaiko erraldoiaren gaineko informazioa emateko. Bada, gaur ere mahaia jarriko dugu, mosaikoan parte hartu gura duenak izena eman dezan. Ekainaren 8ko giza katerako egin moduan, okindegi ondoan jarriko dugu mahaia; gaur, 19:00etatik 21:00etara. Kataluniako galdeketaren bezperatan eta Eskoziako erreferenduma pasata, gu ere erabakitzeko eskubidea noizbait egikaritzeko lanean ari garela adierazi gura dugu. Harremanetarako: 610 26 62 32.

NIRE USTEZ



XABIER HERRARTE

## Ondasunai uko

Lastimie da Aramaixoko herrixen daukun ondasun kultural aberatsenetariko bat galduaz duekigule ikustie. Gaixe askontzako aspergarrixe izen leikien arren, nire helburue, honen inguruen, alarma lekaixo bat egin eta jentie hausnarketara bultzeketie baiño ez da. Erantzunkizune danona dan arren, konpromisuen ifiñi gure nittukienak egunero euskal hiztunek die, bestiek aittteketarik be ez nittuke gure.

Edade batetik gorakuek, eta batez be baserri inguruko jentiek, harrigarrixe egitten jat ikustie askok eta askok zeiñen euskera pobrie egitten dauen, eta batez be umiekin dabitzenien.

Erderazko berba eta esamoldiek nahasketako ohittura haundixe dau eta sarritten, umiekin batez be, batureko joerie hartzen dou, hobeto ulertuko duskuelakuen. Hitanuen gaiñien, barrez, hika entzutie ondiokan be normaltxuaue egitten bajaku be, noka entzutie oso arrarue da zenbait emakume nagusitten izen ezik, eta gizonezko askok, barrez, emakumiei be hika egitten dutzie toka eta noka bereiztu barik. Kapaz izengo ete giñake hausnarketa txiki bat egin eta euskalkixen jator berba egitteko, ahal dan neurrixen garbi eta aberats kanpoko beste hizkuntzen eragin barik, eta baloretan herrixen daukun hizkuntza ondasune, atzetik datozenentzako transmisiño lana egiñaz?

## Pilota partiduak gaur, San Martin txapelketaren barruan

San Martin pilota txapelketako zortzigarren jardunaldia jokatuko da gaur kiroldegian. 18:00etan hasita, benjamin, alebin eta infantil mailetako partiduak jokatuko dira. Sei lehia izango dira, bikoteka, eta guztietan egongo da herriko ordezkaritza.

## Euskal dantzak ikasteko ikastaroa azaroaren 7an hasita

Urtero moduan, aurten ere euskal dantzak ikasteko aukera egongo da gura duenarendako. Izena emateko nahikoa izango da azaroaren 7an, 18:00etan, eskolako gimnasioan agertzearekin. Aurten Iban Gartzia arrasatearra izango da irakaslea.

ELGETA



Seigarren mailako ikasleak, iaz, Arimen Gaueko antzezlana egin aurretik. | L.Z.

# Gaur iluntzean, karlista galduaren altxorraren bila

Maala guraso elkarteak umeendako jokoak eta 'Altxorraren bila' iragarri ditu 17:00etarako

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Arimen Gauarekin lotuta, Maala guraso elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu gaur arratsalderako. 17:00etan neska-mutikoendako jokoak egingo dituzte, herriko plazan. Jokoak izango dira; besteak beste, zaku eta arrautza lasterketa, pinaburuak jasotzea, sagarrari kosk egitea... Aurpegia margotzeko tailerra ere egongo da.

Ilundutakoan, 19:00 aldera, karlista galduaren altxorraren bila abiatuko dira. Seigarren mailako neska-mutikoak antzezle lanetan ikusiko ditugu, eta, jaramon eginez gero, Elgetan desagertutako karlista baten istorioa ezagutuko dugu. Eta ez hori bakarrik, herrian aspalditik ezkutatuta dagoen altxor misteriotsu bat topatzeko aukera ere izango dute-eta parte-hartzaileek. Ilunduta egongo da ordurako, eta antolatzaileek gomendatu dute linternarekin parte hartzea. Jokoak herriko gune asko hartuko ditu; batez ere, San Roke eta Domingo Iturbe kaleak.

## Domekarako, mendi irteera familian

Domekarako Udalak mendi irteera antolatu du. Hiru bat orduko txangoa izango da, familian egiteko modukoa, eta herriko iturriak eta errotak ezagutzeko aukera emango duena. Egoarbitza aldera egingo dute lehenengo, eta gero Aixolara jaitsiko dira. Bidean, Oilarkortako karobia eta Beko Errota ikusteko aukera egongo da. Auzotarrek, gainera, azalpenak emango dituzte. Taldea 10:00etan abiatuko da herriko plazatik.

## Txomin de Vega, Open Euskadiko txapelduna, bere kategorian

Domekan, urriak 26, jokatu zen, Galdakaon, Los Robles izeneko jaitsiera eta Open Euskadiko azken proba puntuagarria. Domekan, zazpigarren egin zuen De Vegak, eta bigarren master 30 kategorian. Open Euskadiko txapelketari dagokionez, lehenengo amaitu du De Vegak master 30 kategorian. Argazkian, elgetarra saria jasotzen.



De Vega, podiumean. | N. OJANGUREN

# Udalak izoztu egingo ditu udal tasak eta ordenantza fiskalak 2015erako

L.Z. | ELGETA

Udalbatzak martitzenean egin zuen urriko osoko bilkura. Bertan, 2015eko udal tasak eta ordenantza fiskalak izozteko erabakia hartu zuten, zaborraren tasa barne. Oxel Erostarbe alkateak azaldu zuen, dena den, aurrekontuan aurreikusi beharko dela tasak estaltzen ez duen zerbitzuaren kostua.

Hobariak eta errekarguak mantendu egingo dira, eta puntu horretan aurka agertu ziren EAJ alderdiko bi zinegotziak, etxebizitza hutsei aplikatzen zaien errekarguarekin ados ez daudelako.

EH Bilduko zinegotziek Udal Gobernuaren proposamena babestu zuten zenbait ekarpen egin ostean.

## Idazkari eta kontu-hartzaile berria

Elgetako Udalak idazkari berria du. Gotzon Goikoetxea zestoarrak hartu du Maria Angeles Elkorok martxo hasieran utzitako lanpostua. Bitarte honetan Juan Ramon Irazabalek bete du zeregin hori. Goikoetxeak hiru aste daramatza Udalean, eta astelehenetik eguaztenera egongo da Elgetan. Beste bi egunak Gatzagan egingo ditu.



Gotzon Goikoetxea. | L.Z.



MARIANO ARANTZETA

## Erretiratuak gustura Gernikan

Astelehenean Gernikan eta Lekeition egin zuten egun-pasa Xalbadorpe elkarteko erretiratuek. "Hiru bat ordu izan genituen Gernikako azoka ikusteko, eta 13:00 aldera abiatu ginen Lekeitiora. Bazkaldu eta giro zoragarria zegoenez, bertan egin genuen arratsalde-pasa", azaldu du elkarteko kide Maria Jesus Letek.

KOMUNITATEA GOIENA
XALBADORPE ELKARTEA | ELGETA

## Gaur jokatuko dituzte pilota txapelketako lehen norgehiagokak

Hiru partidu iragarri dituzte, 19:30ean hasita. Aurrez aurre izango dira Jabier Bolinaga-Jose Mari Zubiaurre eta Iñaki Ugarteburu-Gorka Bolinaga; Iban Retolatza-Diego Cantabrana eta Oskar Sarasua-Iñaki Olaortua; azkenik, Koldo Erostarbe-Mikel Ormaetxea eta Mikel Beretxinaga-Ibon Untzetabarrenetxea.

## Euskadiko hiru txirlo txapelketako azken saioa azaroaren 8an

Bolibarren gauzak apur bat okertu ziren elgetarrendako. Geaxi Ezpeletak bi txirlo jo zituen, eta Sebastian Arantzabalek bakarra. Behera egin dute sailkapenean, baina azaroaren 8ko azken tiraldian "dena emateko gertu" daudela esan du Arantzabalek.

## OHARRAK

**ELKARRETARATZEA**
Gaur, hilak 31, 20:00etan, presoen eskubideak aldarrikatzeko elkarretaratzea, herriko plazan.

**IPUINAK, ESPALOIAN**
Gaur, barikua, helduendako ipuin kontalari saioa Cecilia Paganiniren eskutik, 22:00etan. Gazteleraz. Sarrera: hiru euro.

**BISITA LUBAKIETARA**
Etzi, domeka, bisita gidatua lubakietara 10:00etan abiatuta. Izen-ematea: 943-79 64 63 edo *turismo@debagoiena.net*.

**EZETZ IGARRI!**
Adi! Astelehenean, azaroak 3, emango dute liburutegitik Ezetz Iragarri! lehiaketako lehenengo pista.

**UPATEGIRA IRTEERA**
Azaroaren 22rako, zapatua, irteera antolatu dute DLuisR upategira. Prezioa 65 euro da, autobusa eta bazkaria barne. Izen-ematea azaroaren 14ra arte 660 01 48 45 telefonoan.

LEINTZ GATZAGA

# Puntu-lanen ikastaroak erabateko arrakasta lortu du izen-ematean

UBANE MADERA | GATZAGA

Eguaztenetan, 17:00etatik 19:00etara talde esanguratsua elkartuko da Labidean puntu-lanak egiten ikasteko.

Izen-emate epea itxita, hamalau lagun animatu dira gaur egun etxe gutxitan egiten den lan hori ikastera. Mari Millet izango dute irakasle, eta datorren asteko eguaztenean izango dute lehen eskola. "Oraingoz, Gabonetara begira jarri gara; horren aitzakiarekin opariak-eta lantzeko asmoarekin. Baina ikastaroarekin aurrera segitzeko aukera guztiak zabalik daude. Guztia egongo da irakaslearen eta parte-hartzaileen esku", esan du Inaxio Gabilondok, ikastaroaren antolatzaileak eta Labidea saltoki-zerbitzuaren arduradunak.

Halaber, hark adierazi du ikastarorako izen-emate epea itxita dagoen arren, oraindik badagoela ikastaroan parte hartzeko aukera. "Baina, hala ere, komeni da izena ematera etortzea", zehaztu du.

**Trikiti eskolan ere arrakasta**

Bestalde, izen-emate epean ere erabateko arrakasta lortu duen beste ikastaro bat da Leintz Gatzagan trikiti eskola sortzearena.

Kasu horretan, hogei lagunek baino gehiagok eman dute izena. Orain, beraz, eskola horren funtzionamenduari dagozkion xehetasunak (ordutegiak, egunak...) zehazteko zereginetan dihardute.

Trikitia zein panderoa. Bi instrumentuak jotzen ikasteko eskola da udalerrian sortu gura dutena. Besteak beste, Gose taldeko kideak –Ines Osinaga abeslari eta gidaria tartean– dabiltza egitasmo berri hori bultzatzen. Oraingoz, baina, ez du hasiera eperik zehaztuta.

## San Milixan azoka hasi da gorpuzten, azken ukituen faltan

Joan den asteko egubakoitzean, urriaren 24an, bukatu zen San Milixan azokan parte hartu gura dutenentzako izen-emate epea. Eta horren arabera egin dute azokan egongo direnen aukeraketa: hamabost artisau izango dira aurten; horietatik bakarra izango da gatzagarra. Eta tailer bat, zeramikaren gainekoa.




Prentsaurrekoan batu ziren udal ordezkariak, antolatzaileak eta kirol egokituko federazioko ordezkariak. | NOTICIAS DE GIPUZKOA

ATLETISMOA

# Antxintxika krosa, kirolerako eta festarako aitzakia

## Domekarako egun osoko jaia antolatu dute Bergaran; goizean krosa, arratsaldean Irrien Lagunekin jaialdia

**XABIER URZELAI** | BERGARA

Iritsi da Antxintxika taldeak krosaren 10. urteurrena ospatzeko eguna. Hala, domekan, 400-500 korrikalari inguru batuko dira Soraluzen, hamar kilometroko lasterketa egiteko gertu. Aste barruan 260 lagunek emana zuten izena, eta gaur da, egubakoitza, izena emateko azken eguna, *www.kirolprobak.com* webgunean.

**11:00etan hasita**

Hala, asteleheneko aurkezpenean aurreratu zutenez, Antxintxika krosa Antxintxika Eguna izatera pasa da, egun osoko jaialdia antolatu dute-eta domekarako, kirol jarduera eta Irrien Lagunekin egingo duten jaia bateratuta.

Hala, 11:00etan irtengo dira Soraluzetik krosa gurpildun aulkietan egingo duten parte-hartzaileak. Hamabost minutura, 11:15ean, irtengo dira patinatzaileak, eta 11:30ean krosa antxintxika egingo dutenak. Horiek guztiek helmuga pasatzen dutenean hasiko dira umeen lasterketak –Bergaran– 12:45 inguruan. Gaztetxoak bi taldetan banatuko dituzte. 9-10 urte bitartekoek 500 metro egingo dituzte korrika eta 11-13 urte bitartekoek 1.000 metro, nagusien krosaren azken 1.000 metroak, hain zuzen ere.

**Segidan, familien festa**

Gaztetxoen lasterketak amaituta ekingo diote familien festari; hau da, etxekoekin korrika egiteko aukera emango dute Antxintxikakoek. Bi taldetan egingo da hori ere: 5-8 urte bitartekoek 500 metro egingo dituzte korrika; 3-5 urte bitartekoek, berriz, 200 metro.

**Arratsaldean, Dortokaren alde**

Arratsaldean jarraituko du jaiak, Irrien Lagunen eskutik. 18:00etan hasiko da jaialdia, frontoian: Porrotxek eta Ane Piratak lagunduta, Bergarako hainbat taldek hartuko dute parte, eta helburua Dortoka kirol egokituko taldea diruz laguntzea da: "Goizean zaletasun moduan hartuko dugu krosean parte, atsegin dugulako korrika egitea. Baina arratsaldeko jaialdian parte hartzera animatu nahi ditut herritarrak, egunerokoan zailtasunak dituzten gazteei laguntzeko da-eta".

**Goienak, zabal**

Goienak zabal batuko du egunak ematen duena. Besteak beste, krosa *Goiena.eus* atarian ikusi ahal izango da zuzenean, *streaming*-ez, eta asteleheneko *Goiena* paperak zabal landuko du lasterketa, baita telebistak ere.

ESANAK

**"Arratsaldeko jaian parte hartzera animatu nahi dut jendea"**

AITOR REMENTERIA | ANTOLATZAILE

**"Antxintxika zoriondu, egiten duten lanagatik eta kroseko 10 urteengatik"**

LAURI ASKARGORTA | UDAL ZINEGOTZIA

**"Domekarako 400-500 atleta inguru espero ditugu kroserako"**

IBAN DA SILVA | ANTOLATZAILEA

**"Antxintxikari esker kirol egokituan beste hitzordu bat dugu"**

MAIDER BLASCO | FEDERAZIOKO ORD.

ZIKLISMOA

# Gorlako Igoeraz jarduteko batuko dira bihar 120 lagun

## Bazkarirako jada ezin da izenik eman, baina berbaldian zabalik egongo dira frontoiko ateak

**X.U.** | BERGARA

Gorlako Igoera irabazi duten ziklistekin egun ederra igaroko dute bihar, zapatua, Lokatzako lagunek –hamazazpi ziklista batuko dituzte– eta omenaldi batekin hasiko dute eguna, 12:30ean, San Martin plazan.

Horren ondoren, udaletxeko osoko bilkuren aretoan dagoen erakusketa ikusiko dute elkarrekin, eta bazkaltzera joango dira gero: "Jende asko animatu da bazkarirako; azkenean, 120 lagun batuko gara frontoian, eta, jana aurrez zehaztu behar dugunez, dagoeneko amaitu da izena emateko epea", adierazi du aste barruan Jon Unamunok, Lokatzako presidenteak.

**Denondako berbaldia**

Dena dela, inor ez dadila ziklismo gogoz geratu: 18:00 aldera, eta Euskadi Irratiko Arritxu Iribarrek gidatuta, berbaldia egingo dute frontoian: "Ezin dugu zehaztu zein ordutan hasiko dugun berbaldia, baina ordu horren bueltan izango da. Hala, ordurako, frontoiko ateak zabalik egongo dira, berbaldiaz gozatu gura dutenak lasai asko sar daitezen". Arritxu Iribarrekin batera Benito Urraburu eta Vueltan esatari lanetan ibiltzen den Juan Mari Guajardo izango dira, eta euren galderei erantzuten jardungo dute, besteak beste, Gorospek, Cabestanyk, Laspiurrek, Mikel Landak, Omar Frailek, Santi Blancok eta konpainiak.



Julian Gorospe –argazkian 1991n– izango da bihar Bergaran. | GOIENA

SASKIBALOIA

# Natural Rioja Vintage taldea izango du kontrario MUk

**X.U.** | ARRASATE

Mikeldiren kontra egindako akatsak zuzentzeko asmoz aste barruan gogor entrenatu ostean, Mondragon Unibertsitateak Logroñon jokatuko du zapatuan (20:00etan). Elkarteak autobusa antolatu du hara joateko; autobusa 16:00etan irtengo da Garibaitik. Hala, taldea gertutik animatu gura duenak Ederra tabernan har dezake autobuserako txartela, 8 euro ordainduta –egubakoitzera arte.

Hain zuzen, garai batean Clavijo izenaz ezagutzen genuen taldea da Natural Rioja Vintage, eta jokatutako bi partiduetatik bat irabazi dute, MUk moduan.

**Natra Oñatik etxean**

Bigarren mailan, berriz, Natra Oñatik oso ondo hasi du aurtengo denboraldia, eta dagoeneko bigarren dago sailkapenean –joan den astean 40-91 irabazi zion Jarrilleros taldeari–. Gaur, egubakoitza, jokatuko dute oraingo asteburuko jardunaldia, 20:00etan, partidu bakarra irabazi duen Leioaren kontra.

ZIKLO-KROSA

# Abenduaren 21ean egingo dute Oñatiko lasterketa

**X.U.** | ARRASATE

Joan den egubakoitzean aurkeztu zuten Oñatiko Arrikrutz Oñatiko Kobak taldea, eta, ziklistak ezagutzeaz batera, aurtengo lasterketarako eguna ere zehaztu zuten: abenduak 21. Ez zen izan eguneko albiste bakarra, aurtengo lasterketan aldaketa gehiago izango dira-eta; adibidez, lekua.

Hala, San Martingo zelaietan egin ordez, abenduaren 21eko lasterketa kanposantu inguruan egingo dute.

**Aitor Biainen dokumentala**

1953an munduko ziklo-kros txapelketa egin zen Oñatin, eta hori aitzakia hartuta egin du Aitor Biain gazteak *1953, historia pedalkadaz* izeneko dokumentala. Egubakoitzean eskaini zuten zinema-aretoan, ziklo-kros taldearen aurkezpena egin aurretik. Bada, lasterketa haren garrantzia eta haren aurretik eta ondoren Oñatin txirrindularitzaren alde egindako lana jasotzen ditu, argazki, agiri eta irudi zaharrekin eta lekukoen adierazpenekin.



Antzuolak Aretxabaletaren aurka iaz jokatutako derbian, Iker Sanchez baloiarekin. | GOIENA

FUTBOLA

# Zapatuan derbia Aretxabaleta garaiezinaren eta Antzuolaren artean

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Aste bukaeran Ohorezko Erregional mailako taldeek zazpigarren jardunaldia jokatuko dute. Partidu azpimarragarriena Antzuolaren eta Aretxabaletaren arteko derbia izango da.

Izan ere, Aretxabaleta lehen postuan dago, partidurik galdu barik, eta Antzuola, berriz, azken-aurreko. Antzuolarrek dena eman beharko dute zulotik ateratzeko, eta, etxean jokatu arren, ez dute lan erraza izango liderrari irabazteko. Aloña Mendik, aldiz, Irunen jokatuko du Real Unionen aurka, eta, aurreko jardunaldian Antzuolaren aurkako derbia irabazita, gogotsu joango dira garaipenaren bila.

Bergarak, berriz, etxetik kanpo jokatuko du, Ordiziaren aurka, eta ez du partidu erraza izango. Izan ere, ordiziarrak hirugarren postuan daude, eta, aurreko partidua galdu ondoren, indartsu joan beharko dute garaipenaren bila.

Bestalde, maila bat beherago dagoen Mondra taldeak Soraluceren aurka jokatuko du, etxetik kanpo. Bada, sailkapenean hamaikagarren postuan daude, eta, azken postuetara jaitsi nahi ez badute, haiek ere irabazi egin beharko dute.

### Aretxabaleta, garaiezin

Aretxabaletako UDA taldeak jardunaldi hau irabaziz gero, sei hilabete beteko ditu partidu bat galdu gabe. Urte erdi beteko dute Gorka Valleren mutilek porrotik jaso gabe.

Duela bi jardunaldi berdindu egin zuen Ostadar taldearen aurka, baina, gainerako partidu guztiak irabazita, liga aparta egiten ari dira liderrak.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Antzuola-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Estala.
Real Union-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Gal.
Ordizia-Bergara
Zapatua. 16:30. Altamira.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Aretxabaleta B -Tolosa
Domeka. 16:30. Ibarra.
Soraluce-Mondragon
Zapatua. 16:30. Ezozia.

**EMAKUMEZKOEN ERREGIONALA**
Bergara-Mutriku
Zapatua. 18:00. Ipintza.
Eibar-Mondragon
Domeka. 15:30. Unbe.
Ilintxa-Arizmendi
Zapatua. 16:00. Bikuña.

**GIZONEZKO GAZTEEN OHOREZKOA**
Mondragon-Zestoa
Zapatua. 16:00. Mojategi.
Bergara-Amaikak Bat
Zapatua. 16:00. Ipintza.
Burumendi-Aretxabaleta
Zapatua. 12:30.San migel.
Aloña Mendi-Elgoibar
Domeka. 16:30.Azkoagain.

**GAZTEEN LEHEN MAILA**
Urola-Aloña Mendi
Domeka. 11:30. Argixao.
Soraluce-Antzuola
Zapatua. 12:30. Ezozia.
Bergara-Arizmendi
Domeka. 11:30. Ipintza.
Aretxabaleta-Mondragon
Domeka. 11:30. Ibarra.

**KADETEEN OHOREZKOA**
Lagun Onak-Bergara
Zapatua. 10:30. Garmendipe.
Elgoibar-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Mintxeta.
Anaitasuna-Arrasate
Domeka. 12:30. San Juan.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
Eskoriatza-Bilkoin Legorreta
Domeka. 11:00.Manuel Muñoz.

**GAZTEEN OHOREZKO MAILA**
Atsedena-Eskoriatza

**GIPUZKOAKO LIGA**
Oiartzun-Aretxabaleta
Azaroak 8an.
Mondrate-Baobab
Azaroak 8an.

**GIZONEZKO GAZTEAK**
Zaldibia-Mondrate
Zapatua. ordua zehazteko. Resti.

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Ford Mugarri-Uharte
Domeka. 12:00. Iturripe.

**SENIOR GIZONEZKOAK**
Bergara-Erandio
Zapatua. 12:30. Labegaraieta.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
Aloña Mendi-Usurbil
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

**KADETEAK, EMAKUMEZKOAK**
Aloña Mendi-Errotabarri
Zapatua. 10:30. Zubikoa.

**GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK**
Aloña Mendi-Errotabarri
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

**SASKIBALOIA**

**EBA MAILA**
Clavijo-Mondragon Unibertsitatea
Zapatua. 12:00. Lobete (Logroño).

**SENIOR GIZONEZKO 2. MAILA**
Natra Oñati-Leioa
Egubakoitza. 20:00. Zubikoa.
Soraluce Bergara-Bosteko
Zapatua. 16:30. Labegaraieta.
Mondragon Unibertsitatea-Allerru
Egubakoitza. 20:00. Musakola.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
Eskoriatza-Kafes Aitona
Egubakoitza. 20:15. Manuel Muñoz.

**JUNIOR GIZONEZKOAK**
Mondragon Unibertsitatea A - Easo 97 Ezpala
Domeka. 17:30. Iturripe.
Soraluce Bergara-Añorga-
Domeka. 12:30. Labegaraieta.

**ERRUGBIA**

**EUSKAL LIGA, SENIORRAK**
Universitario de Bilbao-Kanpanzar Arrasate
Domeka. 12:00. Mojategi.



Larreategi. | GOIENA




MOYUA

HILETA ZERBITZUAK
24 ORDUKO ZERBITZUA



- Kliniketara joaten gara (Zerbitzu osoak egiten ditugu)
- Leku aldatzeak
- Dokumentazioa
- Koroak
- Eskelak (Irrati, egunkari eta paretetan)

Tel.: 943 78 34 47
943 78 06 71
Sakelakoa: 617 44 24 66
mmoyua@telefonica.net
Obispo Otadui 27 (Bolibar auzoan)
20560 OÑATI


SAIO BERRIA
Kulturrizketak
Arte edo kultura sortzaileekin elkarrizketak
Larraitz Zeberiok aurkeztuta
▶ Egubakoitza, 22:00
GOIENA TELEBISTA
Bertakoa eta sasoikoa
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
goiena“

# 'Lou Reed, mila esker': euskal musikarien omenaldi diskoa

- Lou Reed zale eta musika ekoizle Jonan Ordorikak bultzatutako proiektu pertsonala da
- Euskaraz, Lou Reeden askotariko garai eta estiloetako hamaika kantu batu dituzte diskoan

A. ARANBURUZABALA | OÑATI

Lou Reed abeslariari Euskal Herritik omenaldia egin gura izan dio Joan Ordorika musika ekoizle oñatiarrak. Oso gaztetatik da Lou Reeden jarraitzaile; ezagutzea ere lortu zuen, baita harekin Beteluko hainbat gatzatu dastatu ere.

**Lagunen artean egina**

25 urtetako eskarmentua du musika arloan lanean, eta, horregatik, samur izan zuen norekin grabatu gura zuen jakitea. Lagunengana jo zuen, diskoa lagunekin egindako Lou Reedentzako omenaldi bat izatea gura zuen-eta hasieratik. Argi zuen bakoitzari zein kantu eman behar zion. Guztiek baiezkoa eman zioten eta Ordorikaren aginduetara jarri ziren, hasieratik ulertu zuten harentzako proiektu garrantzitsua zela. Txuma Murugarrenek itzuli ditu hitzak eta abeslariek egin dizkiote azken moldaketak gero.

Musikariak ere aspaldiko lagunak ditu. Reeden taldekoak eta Euskal Herriko beste hainbat musikari ere bai: Tapia eta Leturia, Karlos Arantzegi, Rafa Rueda, Arkaitz Miner, Txus Aranburu, Iñigo Mugurutza...

Lou Reeden heriotzaren lehenengo urteurrena bete zen egunean, astelehenean, kaleratu zuten *Lou Reed, mila esker*. CD eta binilo formatuan eskuratzeko aukera dago.



Jose Ordorikaren margolanean, Fernando Saunders, Jonan Ordorika eta Lou Reed. | JONAN ORDORIKA

## ABESLARIAK ETA KANTUAK

- **ROMEO HAD JULIETTE**
  Ruper Ordorika
- **WALK ON THE WILD SIDE-**
  Andoni (Delirium Tremens)
- **SMALLTOWN-**
  Txuma Murugarren
- **A GIFT-**
  Santi & Alvaro (El Inquilino Comunista)
- **THE BLUE MASK**
  Petti
- **I'LL BE YOUR MIRROR-**
  Maddi Oihenart
- **WHO AM I?**
  Gorka Urbizu
- **REAL GOOD TIME TOGETHER-**
  Evaristo
- **XNYC MAN**
  Gari
- **SAD SONG**
  Anari
- **MILA ESKER (Instrumentala)**
  Paco Loco




**JONAN ORDORIKA** | MUSIKA EKOIZLEA, PROIEKTUAREN BULTZATZAILEA

## "Euskararen eta euskal kulturaren zalea zen; beraz, gustuko izango zuen diskoa"



JONAN ORDORIKA

Durangoko Azokan egongo da, baina dagoeneko salgai dago ohiko salmenta tokietan ere. Euskal Herritik eta euskaraz egindako Lou Reedi omenaldi-diskoa Jonan Ordorikaren proiektua da.

**Urteurreneko oparia egin zenioten Lou Reedi eta baita zaleoi ere.**

Oso gustura nago, ez nekien-eta zer aterako zen, nola bukatuko zen. Buruan neukan Lou bizi zenean ere. Gustatuko zitzaiola uste dut, eta esango nuke *Smalltown* izango zuela gustukoena. Originaletik aldendu egiten da euskal kutsua hartuaz. Euskararen eta euskal kulturaren aldekoa zen Lou.

**Eta Beteluko gatzatua-zalea ere bai, ezta? Diskoko *gailleta*-n ere keinua egin diozue.**

Bai, horixe! Fernando Saunders ezagutu nuen lehenengo eta oso lagun onak gara gaur egun. Kontzertuetara joaten nintzenean gatzatu batzuk eramaten nizkion Saundersi, oso zalea zen-eta. Egun baten, Lou Reedek probatu zituen, eta gogoan dut haren managerrari horrelako batzuk ekartzeko eskatu ziola. *Special yogurts* deitzen zien hark. Danone batzuk ekarri zizkion eta probatu zituenean ez zitzaizkion gustatu eta Saundersi truke egiten saiatu zen: lau Danone, Beteluko bategatik, baina ez zuen lortu aldatzerik.

**Geroago, bisitan izan zenuen Lou Reed ere.**

Bai, Saunders eta bera etxean izan ziren behin, tai txi irakasle eta guztï. Besteak beste, *Special yogurts* batzuk ere jan zituen orduan. Gustura egon ginen.

**Nolakoa zen tratuan?**

Izar bat zen eta horrela jokatzen zuen. Fama txarra zuen, besteak beste, kazetariekin-eta borde paperean sartuta egoten zen. Nirekin oso jatorra zen. Inteligentea zen.

**Nola joan zen grabazioa?**

Ez da ohiko grabazioa izan. Denbora eta toki ezberdinetan grabatuta, nahasketak hemen eta han eginda. Martxoan hasi ginen grabatzen. Fernando Saunders (Lou Reeden baxu-jolea) Euskal herrira biran etorri zela aprobetxatuta. Izan ere, hasiera-hasieratik dago Saunders proiektuan. Harekin eta lagun dudan Paco Locorekin komentatu nuen ezer egin aurretik. Azken hori Gijongoa den baina Andaluzian bizi den musikari eta ekoizlea da.

> **"Buruan neukan Lou bizi zenean ere; hil zenean, argi nuen saiatu beharra nuela "**

**Zergatik aukeratu zenituen kantu horiek?**

Ez dira gehien gustatzen zaizkidanak edo onenak; izan ere, Lou Reeden kantu guztiak dira onak [barrez]. Ez nuen *hit*-ak aukeratu gura izan. Garai eta estilo askotarikoak dira. Disko bakoitzeko bakarra.

**Txuma Murugarreni ez diozu lan makala eman, baina maisuki bete du hitzen zentzua errespetatuz.**

Zaila zen nork itzuliko zituen erabakitzea. Ingelesa, euskara eta musika menperatu behar zituen itzultzaileak. Txuma aproposa iruditu zitzaidan, eta halaxe izan da.

**Hiru anaia batu zarete proiektuan.**

Ruperrek diskoa zabaldu duen kantua abestu du, eta, horrez gainera, eskatu dizkiodan aholkuak ere eman dizkit. Eta azala eta kontrazaleko margoak orain urte batzuk hil zen Jose anaiarenak dira. Margolaria zen eta diskoetarako azalak ere egiten zituen. Itoiz, Hertzainak eta Ruperren hainbat azal Joserenak dira.

**Bernat Alberdi** | 'Euskara, añubea eta eguzkibegixa' ikuskizuneko zuzendaria

# "Euskararen jazarpenari buruz diziplina asko batzen dituen ikuskizuna da"

- Askotariko herritarrek elkarlanean egindako lana da
- Santa Ana aretoan bi emanaldi egingo dituzte gaur


Bernat Alberdi da ikuskizunaren zuzendaria. | MIREN ARREGI

**AITZIBER ARANBURUZABALA** | OÑATI

*Euskara, añubea eta eguzkibegixa* euskarak historian zehar izan duen jazarpenari buruzko ikuskizuna erakutsiko dute gaur, egubakoitza, Oñatiko Santa Ana antzokian. Bi emanaldi egingo dituzte: 19:00etan eta 22:00etan. Ikuskizuna zuzendu duen Bernat Alberdirekin izan gara.

**Estreinaldiaren eguna; zer moduz?**

Pozik gaude, eta irrikaz, egindako lana jendaurrean erakusteko.

**Zer kontatzen duzue ikuskizunean? Eta nola?**

Askotariko diziplina batzen dituen multimedia ikuskizuna da. Euskarak Erromatar garaitik gaur egunera arte izan duen jazarpena eta errepresioa kontatzea da istorioaren mamia. Hizlariak, aktoreak, musikariak eta dantzariak izango dira taularen gainean, eta horien guztien osagarri izango dira pantaila handian erakutsiko ditugun irudi eta bestelako testigantzak.

**Izan ere, gaur Santa Anan erakutsiko duzuenak aurrez egindako dokumental bat du abiapuntu.**

Hori da; kontua da orain dela hilabete batzuk euskararen jazarpenari buruzko *Euskera, ospela eta egutera* dokumentala egin genuela hainbat lagunek, Euskal Memoria elkarteak horrela eskatuta; Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundu zuen. Dokumental hori, gai bera jorratzen duen erakusketarekin batera, herririk herri dabil. Oñatira zetorrela-eta pentsatu genuen urrats bat gehiago egitea; hala, dokumentala oinarri hartuta sortu genuen gero gaur estreinakoz erakutsiko duguna.

> **"Oñatiko eta oñatiarren bizipenak jaso ditugu ikuskizunean"**

**Gaur erakutsiko duzuena, beraz, espresuki Oñatirako egindakoa da.**

Bai, hala da; berez, ikuskizuna ibiltaria izateko jaioa da. Horren ekoizpena herri bakoitzean aztertu beharko litzateke nola egin. Guk Oñatiko idiosinkrasia jaso dugu; hau da, barruko kontuak (euskara, dantzak, bertako testigantzak...). Ikuskizuna beste herri batean egingo balitz, gure ustez, herri horretako protagonistak eta ezaugarriak jaso beharko lituzke; bide batez, herri horren memoria historikoa jasota geratuko litzateke horrela. Atzean oso lan interesgarria dago memoria hori guztia gal ez dadin. Ikuskizuna Oñatiko Udalak ekoitzi du, eta benetan eskertzen dugu Udaletik jasotako babesa.

**Nola heldu zen, baina, proiektu zabal hori zure eskuetara?**

Maiatzean Euskal Memoriakoak etorri zitzaizkigun euskarari buruzko dokumentala egiteko eskaerarekin. Esan behar da lantalde berak aurrez torturari buruzko *Barruko arrastoak* dokumentala egin genuela elkarte horrendako. Euskararena egiteko, baina, hilabete bat bakarrik genuela esan ziguten. Gai honetan jantziak dauden pertsonengana jo genuen, orduan: David Anaurt *Euskararen kate hautsiak* liburuaren idazleak eman zizkigun historiaren gaineko argibideak; hain zuzen ere, aurrez aipatutako erakusketarekin paralelo doazen hitzaldiak egiten ari denak; Joan Mari Torrealdaik frankismo garaiaren azalpenak, Xabier Amuritzak eta Kontxita Beitiak 60ko hamarkadako borrokaz eta ikastolaren sorreraz, besteak beste. Gaur egunera etorrita, berriz, Zigor Etxeburuarekin eta Garbiñe Petritegirekin izan gara, besteak beste. Horiekin guztiekin eta *Ahotsak.com* atariko testigantzekin eta Filmotekako irudiekin osatu genuen dokumentala. Hainbat herritan erakutsi dute dagoeneko; besteak beste, Arrasaten, eta datorren astean Oñatin.

> **"Ilusio handiz egin dute lan hainbat arlotan jardun duten herritarrek"**

**Oñati hankaz gora jarri duzu.**

Egia da, bai [barrez]. 60 lagun inguruko lantaldea osatu dugu. Horien artean daude: askotariko teknikoak (argiztapena, jantziak, dekoratuak...), aktoreak, dantzariak, Ganbarako abesbatzakoak, bestelako musikariak... Arloka antolatu gara eta arloka landu ditugu ikuskizuneko osagaiak.


Herritar askok aktore lanak egingo dituzte. | ITZIAR BASTARRIKA


Tttakun taldekoak. | ITZIAR BASTARRIKA


Xabier Amuritza ere Santa Ana aretoko agertokira igoko da. | ITZIAR BASTARRIKA

# Domekan itxiko dute Xabier Alvarez de Eulate erakusketa

Arantzazu Gaur eta Arantzazuko Adiskideak elkarteen eskutik, Gandiaga Topagunean dago

**ANDER LARRANAGA** | ARANTZAZU

Irailaren 13an egin zen Xabier Alvarez de Eulate pintura leihaketako bigarren edizioa, Arantzazun, eta margolan horiekin erakusketa egin zuten gero. Arantzazuko Adiskideen eta Arantzazu Gaur Fundazioaren eskutik, urriaren 11n zabaldu zuten Gandiaga Topagunean domekan, azaroaren 2an, itxiko dutena.

Asteburuan, bada, 11:00etatik 14:00etara izango da Xabier Alvarez de Eulateren omenezko lehiaketako lanak ikusteko bidea.

**Bertako txokoak margotzen**

Arantzazuko Adiskideak elkarteak Arantzazu Gaur Fundazioaren laguntzaz antolatutako lehiaketak 26 parte-hartzaile izan zituen helduen kategorian, 31 haurren sailean eta bi gazteenean. Lehiaketaren helburua zen Arantzazuko paisaia, eraikin edo txokoak mihisetan ahalik eta txukunen islatzea.

**Bisitari mordoa**

Arantzazu Gaur Fundazioko Juan Biainek azaldu du jende asko gerturatu dela hileko asteburu guztietan Arantzazura, lehiaketan parte hartu zuten margolanak ikustera. Hala, Biainek gaineratu du jende dezentek agertu duela margolanak erosteko gogoa, baina ez dituztela salduko, lehiaketako margolan irabazleak Arantzazuko Adiskideen eta Arantzazu Gaur Fundazioaren egoitzan gelditiko direlako.


Bisitariak, Xabier de Eulateren lehiaketako bildumari begira . | JUAN BIAIN



Xabi Donosti, Garbiñe Intsausti eta Ana Pimenta, lanaren gaztelerazko bertsioan. | M. DIAZ DE RADA

# Suizidioaren gaia umore beltz ukituarekin Amaia antzokian

'HappyEnd' antzezlana ekarriko du Vaiven antzerki taldeak domekan

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

18 urteko ibilbidea du Vaiven antzerki taldeak eta esperientzia horrek edozein gairi eusteko gaitasuna eman dio. Oraingoan, ekainean estreinatu zuten *HappyEnd* antzezlanarekin etorriko dira: domekan, hilaren 2an, Arrasateko Amaia Udal Antzokian taularatuko dute euren lana, 19:30ean.

Hala, 75 minututan, antzezlanak suizidioaren gaia lantzen du, askotan tabua izan daitekeen gaia izanda: *HappyEnd* euren buruaz beste egin nahi dutenei laguntzeko elkartea da. "Surrealista samarra dirudi eta nik uste dut hori duela helburu: surrealista izatea, batetik, eta bestetik, gaur bizi dugun garai honen isla izatea", adierazi du euskarazko bertsioaren egile Ainara Ortegak. Umore beltzarekin eta antzezlanaren irudi gogorrekin jokoa egiten da *HappyEnd*-en: tragedia bati denbora ematen bazaio, hor benetako komedia sortzen dela gaineratu du Ortegak.

### Lantalde bikaina

Borja Ortiz de Gondraren testuan dago oinarrituta antzezlana: idazlea eta antzerkigilea da eta estatu mailan arrakasta izaten ari da bilbotarra.

Aktoreek ere meritu handia dutela bistakoa da. Xabi Donosti, Garbiñe Intsausti eta Iñake Irastortza dira euskarazko bertsioan taula gainean arituko direnak; gaztelerazkoan, Ana Pimentak egiten du Irastortzaren papera. " Aktore bikainak dira, konpromiso handia hartu dute antzerkiarekiko. Ez da erraza halako gai bat jorratzea eta jorratu nahi izatea. Hirurek beraien pertsonaia oso ausart hartu dute eta nik uste dut oso ondo borobildu dituztela beraien pertsonaiak", azaldu du euskarazko bertsioaren egileak.

### Harrera ezin hobea

Vaivenek erantzun onak jaso ditu ikusleen partetik; ikusten gozatzeko lana da, duda barik. "Sabelean korapilo hori egin ondoren, korapilo hori irribarre batekin askatzeak oso sentsazio goxoa ematen die ikusleei", dio Ortegak. *HappyEnd* izenburuaren kontzeptuak eta antzezlanaren gaiak hausnarketarako bidea egiten duela gehitu du.

# Musika estilo desberdin eta berriekin datoz Kooltur Ostegunak azaroan

Cabezafuego, Tempora, Gramones eta Terry Lee Hale dira azarorako apustu berriak

A.L. | ARRASATE

Kalitatezko musikarekin datoz azaroko eguenak. Ibilbide luzea eta eskarmentua duten musikariak datoz; hori ukaezina da.

Datorren eguenean, hilaren 6an, Cabezafuego y Los Brutales izango da: musikazale askok ezagutzen dute talde hori, bere ibilbidea jarraitua izan delako. Mermaid, Black Lagun, Los Separatistas, Bizardunak eta Atom Rhumba taldeetako kide izan da, besteak beste, Cabezafuego. Bada, oraingoan, labetik atera berri duen *Camina conmigo* diskoarekin dator.

Hileko bigarren eguenean, azaroaren 13an, Tenpora taldearen txanda izango da. Gidaria Juantxo Seberio da, Benito Lertxundirekin urte askoan ibilitakoa. Konpositorea ere bada; esaterako, aurten Donostia2016ko eta Behobia-Donostiako kantuak hark konposatu ditu. Hala ere, ez da taldeko musikari ezagun bakarra: Ruper Ordorikarekin eta hamaika taldetan ibili den Asier Oleaga, Katamalon ibilitako Itsaso Etxebeste, ibilbide luzea duen Beñat Barandiaran gitarra-jolea eta Belen Arandia abeslari tolosarra ere badira taldean. Jazzaren ukitua nabarmena da Tenporan, blues eta folk zertzeladekin.

Azaroaren 20an, munduan Ramonesen bertsioak egiten dituen talderik ezagunena dator: Gramones talde gasteiztarra. Bi urtean behin edo birritan bakarrik elkartzen dira eta kontzertu gutxi batzuk baino ez dituzte eskaintzen. Horren harira, Andres Alvarezen *Todos somos Ramones* dokumentala eskainiko da egun berean, 19:00etan, Kulturaten.

Hilabetea ixteko, hilaren 27an, Texasko Terry Lee Hale bakarlaria dator. Sustraietako musika da harena: countrya eta bluesa, batik bat. Aipatzekoa da hura ere hemen izandakoa dela: duela hiru urte Arrasateko Iluntz tabernan izan zen bira berezi batean. Bada, duda barik, indarrez datoz azaroko Kooltur Ostegunak.



Tenpora boskotea. | TENPORA

# Izena emateko epea irekita dago Kameratoiaren 10. ediziorako

Azaroaren 28a da Ikus-entzunezkoen Rallyan izena emateko azken eguna

A.L. | ARRASATE

Hamargarren edizioa beteko du aurten Euskal Herriko ikus-entzunezkoen Kameratoia rallyak, eta Durangoko Azokako Irudienea ikus-entzunezkoen plazan izango da abenduaren 6tik 8ra bitartean.

Dagoeneko izena emateko epea ireki da, azaroaren 28ra arte, eta 18 eta 35 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute rallyan. Izena emateko, *Kameratoia.com* webgunean dagoen izen-emate fitxa bete beharko da. Azpimarratzekoa da izena ematen duten lehen 30 taldeek soilik izango dutela parte-hartzea bermatuta; gainerakoak itxaron-zerrendan sartuko dira.

Urtero legez, lehiaketak 48 orduko formatua izango du: abenduaren 6an, parte-hartzaileek aurkeztuko duten film laburren gaia eta bertan islatu beharko dituzten ezaugarrien zerrenda jasoko dituzte. Momentu horretatik aurrera, parte-hartzaileek 48 orduko epea izango dute gehienez sei minutuko iraupena izango duen film laburra osorik osatzeko: gidoia, grabazioa eta edizio lanak denbora tarte horretan egin beharko dituzte, betiere eskatutako oinarriak kontuan hartuta.

Bestetik, taldeek euren ekipo propioa erabili beharko dutela esan behar da, eta film laburretan erabilitako hizkuntzak, ahozkoa zein idatzizkoa, euskarak izan beharko du, derrigorrez.

### Ekoizpen artistikoa helburu

Kameratoiaren helburuetako bat parte-hartzaileen ekoizpen artistikoa gizarteratzea da. Horregatik, lehiaketan sortutako lanek *Creative Commons Aitortu–Partekatu* lizentziapean zabalduko dira. Eduki kulturalak erabiltzeko lizentzia delako horrek, copyright ezagunak ez bezala, sormen lanen zabalkundea errazten eta bermatzen du, baimena ematen baitu eduki horiek zabaldu, berrerabili eta horiek oinarri hartuta lan berriak sortzeko, betiere jatorrizko egileak aipatuta eta eratorritako lanak baldintza beretan partekatuta.

Horrela izanda, abenduaren 8an, goizean, parte-hartzaileek bideoak entregatuko dituzte eta arratsaldean ekitaldia egingo da Irudienea ikus-entzunezkoen plazan (Durangoko Zugaza zineman). Bertan, lan guztiak eskainiko dira eta epaileek sari banaketari ekingo diote.

### Topagunea sari berezia

Urtero eman ohi diren sariak egongo dira: 1.200, 900 eta 300 euroko sariak jasoko dituzte film labur onenen taldeek. Izan ere, aipatzeko da hamar urte ez direla egunero betetzen; horregatik, ohiko sariez gainera, aurten 500 euroko Topagunea sari berezia banatuko da Euskaltzaleen Elkarte baten izenean aurkezten diren taldeen artean, euskara sustatzeko proiektu bati bideratzeko asmoz.

Horrez gain, saria eroaten duenaren lanak zabalkunde berezia izango du: hain zuzen ere, Tokikom osatzen duten euskarazko tokiko hedabideetan zabalduko da.



Peru Abarrategi, Aramaioko bertso eskola kanpoan.

**Peru Abarrategi** | Bertsolaria eta ikaslea

ANDONI MUXIKA

# "Kirolak direla eta, futbola, saskibaloia... pixkanaka jendeak alde batera uzten dio bertsoak egiteari"

**ANDONI MUXIKA** | ARAMAIO

Peru Abarrategi (1997, Aramaio) 5. mailan zegoela hasi zen bertsolaritzan. Geroztik, hainbat sari irabazi ditu; 2013ko eta 2014ko Arabako Bertso Eskolarteko Txapelketak, besteak beste. Aramaioko gazte hau bere herriko bertso eskolan ari da ikasle, eta, horretaz gain, institutuan jarraitzen du, lehentasuna ikasketei emanda. Gainera, Arrasateko futbol taldean jarduteko ere ateratzen du denbora. Jardun horien guztien artean, Goienari tartetxo bat eskaini dio.

**Aramaiotik bertsolari handiak irten dira. Bat dator bertsolaria izatea aramaioarra izatearekin?**

Bai. Nik uste dut Aramaion betidanik egon dela zaletasuna. Egia esanda, horregatik erakarri ninduen bertsolaritzak. Gainera, txikitatik Aramaioko eskolan bertsotan aritzeko klase bat sortu zutenez, gustura sartu nintzen mundu honetan.

**Gaztea izan arren esperientzia polita duzu dagoeneko bertsolaritzan. Nondik dator bertsolari izateko sentimendu hori?**

Ez dakit nondik hartu dudan sentimendu hori. Agian, 5. mailan, bertso klaseak hasi genituenean, orain dela sei-zazpi urte. Hasieran, oso gustura sentitu nintzen. Gainera, zorionez, jende asko apuntatu ginen. Baina urteak pasa ahala, kirolak direla eta, futbola, saskibaloia... pixkanaka jendeak alde batera uzten dio bertsoak egiteari.

**Poliki-poliki bertsolaritza munduan ospea hartzen zoaz, Arabako Eskolarteko Txapelketak irabazi ondoren, batez ere. Nola daramazu hori? Aldaketarik sumatu duzu zure egunerokoan?**

Nire egunerokotasunean ez dut sentitu inolako aldaketarik. Berdin-berdin entrenatzen naiz eta lehen egiten nituen gauzak egiten ditut. Oraingoz, ez dut igartzen sari horiek irabazteak ospea eman didanik; oraingoz, behintzat. Beraz, ez diot garrantzi handirik ematen izan ahal dudan ospeari.

**Manex Agirre, Idoia Beitia eta halako irakasleekin, asko ikasiko duzu, ezta?**

Oso gustura egon naiz haiekin, asko erakutsi didate. Aramaioko bertso eskolan, Idoia Beitia eta Garazi Erizekin hasi nintzen. Ondoren, Xabi Igoa izan zen nire irakaslea, hura izan da urte gehienetan nire irakaslea. Baita ere Manex Agirre irakasle bezala eduki nuenean. Azken finean, kantatzen dudana haiengatik izan da; izan ere, oso ondo irakatsi didate denek.

**Nola entrenatzen da bertsolari bat?**

Erritmoak lantzen ditugu, doinu berriak... Horren ondoren, ikasitako guztia praktikatzen dugu. Horrela, gero eta errazago irteten dira bertsoak. Horretarako, astean behin bakarrik elkartzen gara gutxi batzuk Aramaioko bertso eskolan, eta bertan ordubeteko klaseak egiten ditugu. Joan den urtean lau lagun ginen gure bertso eskolan. Izan ere, Aramaion bertso eskola desberdinak daude, taldeka eta adinka banatuta daudenak. Gurean, bereziki, aurten ez dakit zenbat izango garen, klaseak ez direlako oraindik hasi.

**Horretaz gain, baduzu bestelako zaletasunik?**

Bai. Futbola asko gustatzen zait. Arrasateko gazteen taldean nabil.

**Nola bateratzen dituzu horrenbeste gauza? Bertsolaritza, ikasketak, futbola...**

Ikasketak obligazio bezala ikusten ditut; horrela hartzen ditut, behintzat. Bertsolaritza eta futbola, berriz, denbora-pasa bezala; hau da, zaletasun moduan ikusten ditut.

**Etorkizunerako, ze plan dituzu? Gustatuko litzaizuke bertsolaritza ogibide izatea?**

Ez dut uste. Ez dut uste ogibide bezala bertsolaritza izateko aukerarik izango dudanik. Oraingoz, bertsolaritzan jarraitzea gustatuko litzaidake. Poliki-poliki, saiorik saio eta irteten dena. Gustatzen zaidan bitartean bertsolaritzan jarraituko dut.

## PERTSONALA

**Bertsolari gustukoena:** Igor Elortza.

**Talde gustukoena:** Arkada Social.

**Abeslari gustukoena:** Fito & Fitipaldis.

**Toki gustukoena:** Aramaio.

**Janari gustukoena:** Arrautza frijituak.

**Pelikula gustukoena:** *Imparable* (2010, Tony Scott).

**Amets bat:** Futbolari izatea.

# ZURE IRAGARKIAK

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu. Hortik aurrera, ez da onartuko aldaketarik edo iragarkia bertan behera uzterik. GOIENAk ez du iragarkien ondoko operazioen erantzukizunik.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai Andra Marin. Erabat berritua, bizitzera sartzeko moduan. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Berokuntza indibiduala, gasarekin. 605 74 34 39 (M. Carmen) edo 645 00 90 03 (Ramiro)

**Bergara.** Etxebizitza saltzen da Matxiategi 10ean. Bigarren solairua. 115 metro koadro. Eguzkitsua. Hiru logela. Berriztua dago eta igogailua jartzen ari dira. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 60 26 55

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Etxea ematen da errentan San Antonion. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 76 21 39

**Elgeta.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, jangela-egongela, sukalde hornitua eta bi bainugela. Berokuntza eta igogailua. Egoera oso onean, eraikin nahiko berria. 606 08 39 92 edo 679 56 84 78

**Luz Saint Sauver.** 6-8 pertsonentzako apartamentua ematen da errentan Luz Saint Sauveurren, eski denboraldirako. Harremanetarako zenbakia: 699 82 85 26

**Oñati.** Etxebizitza berria ematen da errentan Kurtzebide kalean. Hiru logela eta bi bainugela. 652 76 50 90

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, egongela -jangela, bi komun eta sukaldea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 56 62 06

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 400 euro ordaintzeko gertu nago. 631 48 32 67

**Bergara.** Bi logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. 602 03 33 56

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Erdigunean, Juan Carlos Gerra 5ean, logela ematen da errentan. 250 euro hilean, gastuak barne. 699 78 87 36

**Arrasate.** Erdigunetik gertu etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dut. 678 82 69 77

**Arrasate.** Etxea osatzeko pertsona bat behar dut edo, bestela, logela bat hartuko nuke errentan prezio onean. Neska arduratsua naiz. Maider. 634 43 31 79 edo 654 92 57 92

**Oñati.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero deitu mesedez 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 653 74 87 51

## 2. GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Ibargarai kalean garaje itxia ematen da errentan, merke. 679 74 00 61

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Antzuola.** Pertsona euskalduna behar da egun erdiz, goizez, urtebeteko haur bat zaintzeko. 609 81 89 52

**Arrasate.** Mutil euskalduna behar da zaintza lanetarako. Bazkariak prestatu, paseatzera irten. . Astelehenetik ostiralera, goizeko ordutegian. 649 70 23 90

**Arrasate.** Gizonezko euskalduna behar da astelehenetik ostiralera pertsona nagusi bati laguntzeko, 16:00etatik 9:00etara bitartean. 619 18 12 81 edo 629 42 19 79

**Emakume euskalduna behar da.** Emakume euskalduna behar da Elgetako baserri batean etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 678 32 44 36

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta edo Arrasate.** Haur hezkuntzako zikloa duen neska gazte euskalduna eta haurrekin esperientzia. Arratsaldetan haurrak zaintzeko prest . 669 10 77 48

**Arrasate eta inguruak.** Neska euskaldun gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko gertu, arratsaldetan eta asteburuetan. Autoa daukat. 639 44 86 30

**Arrasate.** Mutila goizetan nagusiei laguntzeko prest. 673 71 80 93

**Arrasate.** Neska gertu asteburuetan, orduka, nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. 632 54 45 25

**Bergara.** Emakumea lanerako prest. 658 31 06 20

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea umeak eta nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

**Bergara.** Garbiketak egiten eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 65 10 22

**Debagoiena.** Emakumea prest goizez etxeak garbitu edo pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko. (Clara). Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 65 19 01

**Debagoiena.** Arratsaldez edo orduka nagusiak zaintzen eta garbitasunean lan egingo nuke. Asteburuetan, etxean bertan bizi izaten ere bai. 622 05 30 57

**Debagoiena.** Bertako neska, esperientziaduna, nagusiak etxean zaintzeko gertu. Baita gauez ere. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Dendari, sukalde laguntzaile edo zaintza lanetan arituko nintzateke. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen. Erreferentzia onak eta lege paperak ditut. 631 83 58 20

**Debagoiena.** Emakume arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, tabernatan eta abar. Etxean bizi izaten, egun osoz edo orduka ere bai. 615 06 28 04

**Debagoiena.** Esperientziadun pertsona asteburuetan nagusiak zaintzeko gertu. 695 96 98 74

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 688 88 38 32

**Debagoiena.** Garbiketak egiten, nagusiak eta umeak zaintzen esperientzia daukat. Tabernak garbitzen ere bai. 666 92 49 27 (Sarina)

**Debagoiena.** Gizona lan bila, orduka nagusiak zaintzeko. Asteburuetan ere bai. 602 07 12 06

**Debagoiena.** Haur hezkuntzako ikasle euskalduna goizetan umeak zaintzeko prest. 688 61 11 01

**ARRASATE**

Etxebizitza salgai Ferrerias kalean.
2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. Jantzia.
Oso argitsua. 20 urteko eraikuntza. Igogailua.
Ganbara. 155.000 euro.
Bibai Inmobiliaria: 943 25 38 21

**Debagoiena.** Mutila etxeko lanak egin, nagusiak zaindu edota sukalde laguntzaile jarduteko gertu. Esperientzia daukat nagusien zaintzan eta lege paperak ditut. 658 74 94 63 edo 632 26 01 84

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: eraikuntzan, gidari, sukalde laguntzaile edota nagusiak zaintzen. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila orduka zaintza lanak egiteko gertu. Eskarmentua eta erreferentziak dauzkat. 662 43 08 54

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaintzen eta garbiketak egiten lan egingo nuke. 678 84 35 81

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta etxeko garbiketak egingo nituzke, orduka edo jardun osoz. Sukalde laguntzaile eta zerbitzari ere bai. Nahiago dut Arrasaten bada. 658 31 06 20

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke eta garbitasun lanak egin ere bai. 632 08 57 69

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ez daukat gidabaimenik. 677 83 37 23

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 678 84 45 28

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko, zein nagusiak lagundu edo paseoan ateratzeko gertu. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska garbiketak egiteko, nagusiak zaintzeko, sukalde laguntzaile, zerbitzari eta abarretarako gertu. 663 40 92 67

**Debagoiena.** Neska lan bila sukaldean, zerbitzari, zaintza lanetan etxean bizi izaten, orduka edo egunez. 654 11 15 14

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen eta atari eta abarren garbiketan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 29 11 23

**Debagoiena.** Neska prest lan egiteko. Geriatriako ikasketak ditut. Ospitalean gaua pasatu edo etxean bertan gaixoak zaintzen. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600 00 51 60

**Debagoiena.** Urte askoan nagusiak zaintzen aritutako neska lanerako gertu. 631 88 01 58 (Marlene)

**Lan bila.** Mutil gaztea lan desberdinak egiteko prest; adineko jendea zaindu, sukaldeko laguntzaile, zerbitzari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 73 25 35

**Oñati.** Etxean bertan bizi izaten edo egunez lan egingo nuke. Etxe garbiketan eta umeak zaintzen ere arituko nintzateke. 685 79 80 81

**Sukaldaria.** Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitartekoak eta abar egiten urtetan aritutakoa. 666 83 21 95

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Etxean eskola partikularrak jaso nahi ditut. Lehen Hezkuntzako 6.maila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 62 60 15

**Marrazketa teknikoa.** Batxilergoko lehenengo mailako marrazketa teknikoko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut, Arrasaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 87 24 54

### 502. EMAN

**Bergara.** Ingeniaritza eta Irakaskuntzako Masterra duen pertsona eskola partikularra emateko prest. LH edo BH-ko edozein irakasgai emateko prest, ingelesa barne (Advance titulua dut).Deitu telefono zenbaki honetara: 620 88 16 29

**Eskoriatza eta Aretxabaleta.** Lehen Hezkuntzako edozein gaitako eskola partikularrak ematen ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 77 35 83

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Akuria.** Akuria, kaiola, liburua eta hainbat osagarri dauzkat saltzeko. Deitu zenbaki honetara: 671 84 15 63

### 703. EMAN

**Katakumeak.** Abuztuan jaiotako katakumeak eta katu helduak ematen dira opari. 629 09 63 46

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Fagor sukaldea.** Fagor sukaldea saltzen dut: 7 modulu goikoak eta 9 modulu behekoak, granitozko bi enzimera eta bitrozeramika. 1.200 €. Deitu telefono zenbaki honetara: 666 24 17 65

### 802. EROSI

**Mendirako eskiak.** Mendiko eskiak erosiko nituzke. Baita botak ere. Saltzeko asmoa izanez gero, deitu hurrengo telefonora: 675 70 58 54

KOROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Simon Arrieta 68 $m^2$, 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 132.600 €.
- Simon Arrieta 69 $m^2$, 3 logela. 20 m2ko terrazarekin. 107.100 €.
- Ibargarai 73 $m^2$, 3 logela. 235.000 €.
- Zubieta 110 $m^2$, 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €.
- Fraizkozuri 162 $m^2$, 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 $m^2$, 3 logela. 13 m2ko terrazarekin. 115.000 €.
- San Antonio 86 $m^2$. 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €.
- Angiozar 170 $m^2$, duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m2ko lur sailarekin.
- Artekale 47 $m^2$, 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €.
- Barrenkale 113 $m^2$, 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 $m^2$, 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 160.000 €.
- San Lorenzo 65 $m^2$, 2 logela. Garajea eta trastelekua aukeran. Berria. 200.850 €.
- Zubiaurre 70 $m^2$, 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €.
- Simon Arrieta 82 $m^2$, 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Ibargarai 57 $m^2$, 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €.
- Bidekurutzeta 71 $m^2$, 2 logela, erabat berriztua. Igogailua eta terraza haundiarekin. 204.344 €.
- Angiozar 60 $m^2$, 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Zubiaurre 104 $m^2$, 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 $m^2$, 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €.
- Aranerreka 79 $m^2$, 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €.
- Iraburu 82 $m^2$, 3 logela, berogailua. 120.000 €.
- Bidekurutzeta 65 $m^2$. 2 logela. Trastelekua. 100.000 €. PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Ibargarai 90 $m^2$, 3 logela. Igogailua 235.000 €.
- Ibarra 129 $m^2$, 4 logela, berogailua. 150.000 €.
- Martoko 140 $m^2$, 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Ibargarai, 60 $m^2$, 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 $m^2$, 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berriztua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Sagasti 140 $m^2$, duplexa. 250.000 €.
- Sagasti 86 $m^2$. 3 logela. 163 $m^2$ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364 €.
- Beheko Auzoa 60 $m^2$. 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 $m^2$. 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Sagasti 90 $m^2$. 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 $m^2$. 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Torrealdea 77 $m^2$. 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 $m^2$ + 45 $m^2$ garajea + 90 $m^2$ lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 $m^2$. 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

### 805. TRUKATU

**Hizkuntza truke.** Nik frantsesa erakutsiko nizuke, modu praktikoan, eta trukean ingelesa ikasi gura nuke. 630 05 91 98

**Hizkuntza trukea.** Alemana praktikatu nahiko nuke, C1 maila ikasten nago. Euskaraz, erderaz edo ingelesez hitzegin dezaket. 657 72 51 65

### 808. BESTELAKOAK

**Arrasate-Elgoibar joan etorria.** Arrasatetik Elgoibarrera eta alderantziz joaten naiz autoan egunero, autobidetik. Arratsaldez sartzen naiz eta iluntzean Arrasatera bueltan. Norbait interesatuta balego eta gure ordutegiek bat egingo balute, gastuak partekatzeko prest egongo nintzateke. 600 77 05 56.

**Leioara autoz.** Leioako kanpusera Arrasatetik autoz, eta arratsaldez, joaten garen bi lagun gara. 696 44 43 99

**Oñati-Lasarte joan-etorria.** Astelehenetik ostiralera Oñati-Lasarte, edo inguruko herriren batera, joan-etorria egiten baduzu, bidaia-gastuak konpartitu ditzakegu. Goizez joan eta arratsaldez bueltatzen naiz. Deitu telefono-zenbaki honetara. Eskerrik asko. 663 33 95 69



## ASTEA GOIENAN


IMANOL SORIANO

### Bergarako Dordoka taldearen erreportajea

Gaur, egubakoitza, *Debagoiena zuzenean* saioan, Bergarako Dordoka kirol egokituko taldea ezagutzeko aukera izango da. *Boccia* izenez ezagutzen den kirol entrenamendua nola egiten duten ere ikusi ahal izango da erreportajean.
**'Debagoiena zuzenean'**
Egubakoitza, 20:00


GOIENA

### Arrasateko osoko bilkura, eguaztenean

Goiena telebistan oso-osorik ikusi ahalko da Arrasaten martitzenean, azaroak 4, egingo den osoko bilkura. Eguaztenean 22:30ean eskainiko da telebistan. Modu horretara, herritarrek gertutik jarraitu ahal izango dituzte hartzen diren erabakiak.
**'Osoko bilkura'**
Eguaztena, 22:30

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 31**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Amaia DJ
**13:00** Ikusi irratia
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Gipuzkoa Pedalka
**17:30** Ertzak
**18:15** Ikusmira
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Ur eta lur
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Osoko bilkura
**23:15** Debagoiena zuzenean
**23:45** Berriak
**00:15** Debagoiena zuzenean
**00:45** Berriak

**ZAPATUA, 1**

**10:00** Amaia DJ
**10:30** Euskal Herriko dantza txapelketa
**11:00** Debagoiena zuzenean
**11:55** Astea iruditan
**12:00** Gipuzkoa Pedalka
**12:20** Zorion Agurrak
**12:30** Ikusmira
**13:00** Onein
**13:30** Idemtitateak
**14:00** Amaia DJ
**14:30** Gipuzkoa Pedalka
**15:00** Debagoiena zuzenean
**16:00** Astea iruditan
**16:05** Osoko bilkura
**18:30** Bertso saioa
**19:00** Debagoiena zuzenean
**19:55** Astea iruditan
**20:00** Euskal egitura
**20:30** Amaia DJ
**21:00** Gipuzkoa Pedalka
**21:30** Bertso saioa
**22:00** Debagoiena zuzenean
**22:55** Astea iruditan
**23:00** Euskal Herriko dantza txapelketa
**23:30** Gipuzkoa Pedalka
**00:00** Amaia DJ

**DOMEKA, 2**

**10:00** Debagoiena zuzenean
**10:55** Astea iruditan
**11:00** Gipuzkoa Pedalka
**11:30** Amaia DJ
**12:00** Osoko bilkura
**14:20** Zorion Agurrak
**14:30** Debagoiena zuzenean
**15:00** Astea iruditan
**15:30** Gipuzkoa Pedalka
**16:00** Amaia DJ
**16:30** Debagoiena zuzenean
**17:25** Astea iruditan
**17:30** Sasoi betean
**18:00** Pausoan
**18:45** Ikusmira
**19:00** Amaia DJ
**19:30** Euskal Herriko dantza txapelketa
**20:00** Gipuzkoa Pedalka
**20:30** Debagoiena zuzenean
**21:25** Astea iruditan
**21:30** Euskal Herriko dantza txapelketa
**22:05** Amaia DJ
**22:30** Euskal egitura
**23:00** Debagoiena zuzenean
**23:55** Astea iruditan
**00:00** Bertso saioa

**ASTELEHENA, 3**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**13:00** Pausoan
**13:25** Zorion Agurrak
**13:30** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Euskal Herriko dantza txapelketa
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Osoko bilkura
**18:00** Ur eta lur
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Amaia DJ
**19:30** Idemtitateak
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harmailatik
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harmailatik
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

**MARTITZENA, 4**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harmailatik
**13:00** Sasoi betean
**13:25** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harmailatik
**15:30** Onein
**15:55** Zorion Agurrak
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Amaia DJ
**17:30** Bertso saioa
**18:15** Ikusmira
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Idemtitateak
**19:30** Harmailatik
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harira
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harmailatik
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

**EGUAZTENA, 5**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harira
**13:00** Euskal egitura
**13:45** Ikusmira
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Sasoi betean
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Harmailatik
**17:30** Kontzertua
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Harmailatik
**19:30** Gipuzkoa Pedalka
**19:55** Zorion Agurrak
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Gipuzkoa Pedalka
**22:30** Osoko bilkura
**23:30** Debagoiena zuzenean
**00:00** Berriak
**00:30** Debagoiena zuzenean
**01:00** Berriak

**EGUENA, 6**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Gipuzkoa Pedalka
**13:00** Idemtitateak
**13:30** Euskal Herriko dantza txapelketa
**13:55** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Bertso saioa
**15:25** Zorion Agurrak
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Harira
**17:30** Euskal Herriko dantza txapelketa
**18:00** Ikusmira
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Sasoi betean
**19:30** Gipuzkoa Pedalka
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Amaia DJ
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### Cabezafuego taldea ikusteko kontzertuko sarrerak zozketan

Kooltur Ostegunak egitasmoaren barruan, Cabezafuego taldeak eskainiko du kontzertua gaztetxean eguenean, 22:00etan. Bertara joateko sarrerak eskuratzeko, hartu parte zozketan 943 25 05 05 telefonora deituta edo, bestela, idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Zorte on, entzule!

### Asteko gainbegiratua zapatu eta domekan 10:00etatik aurrera

Astean zehar Arrasate Irratian izan diren elkarrizketak entzun ahal izango dira asteburuan 10:00etatik aurrera. Besteak beste, azaroaren 2an 19:30ean Amaia antzokian izango den *Happy End* antzerkiari buruz hitz egingo du ikuskizunaren gidoilariak, eta xehetasunak kontatuko ditu.

## EZKONTZAK



### Begoña eta Felix

Begoña Heriz zena eta Felix Gainzarain 1964ko urriaren 31n ezkondu ziren Arantzazun. Gaur urrezko ezteiak beteko lituzkete, beraz. "Ama 2003an joan zitzaigun. Hala ere, beti gure gogoan bizirik daukagunez, bihar familian ospatuko dugu. Zorionak, aitteitte Felix!".



### Rosa eta Javier

Rosa Domaika eta Javier Iñiguez azaroaren 4an ezkondu ziren, orain 25 urte. Zilarrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, "zorionak familiaren partetik! Ondo-ondo pasatu eguna, bikote!".





### Mila eta Jon

"Urriaren 28an 25 urte bete dituzue elkarrekin, eta zuekin ospatzeko zortea izan dugu senideok, lagunok, kuadrillakook eta lankideok. Guztion partetik, eta joan den zapatuko ospakizunean egoterik izan ez zutenen partetik, zorionak eta jarraitu jator-jatorrak izaten".



### Visi eta Tomas

Visi Rubio eta Tomas Cachafeiro urriaren 24an ezkondu ziren, orain dela 50 urte. Urrezko ezteiak ospatu dituzte Lasa jatetxean aurtengo urriaren 24an. Etxekoen partetik , "zorionak bihotz-bihotzez eta urte askotarako! Bereziki, Hugoren partetik".



### Jero eta Juanita

Urriaren 31n, Jerok eta Juanitak ezkonduta 50 urte bete dituztela ospatuko dute. Zorionak, familia osoaren partetik!

## HILDAKOAK

**Maria Luisa Oianguren Atxa.**
Aretxabaletan, urriaren 22an. 99 urte.
**Antonio Matilla Sanchez.**
Arrasaten, urriaren 22an. 61 urte.
**Adrian Gomez Navarro.**
Arrasaten, urriaren 23an. 86 urte.
**Jose Maria Lenisoro Lete.**
Bergaran, urriaren 23an. 58 urte.
**Victoria Lamarain Ugaldea.**
Bergaran, urriaren 24an. 87 urte.
**Roberto Sanz Yabar.**
Bergaran, urriaren 25ean. 81 urte.
**Luis Arando Iturbe.**
Aretxabaletan, urriaren 25ean. 83 urte
**Milagros Arregi Zubizarreta.**
Arrasaten, urriaren 25ean. 87 urte.
**Juan Carlos Garcia Arribas.**
Aretxabaletan, urriaren 25ean. 46 urte.
**Genaro Aizpeurrutia Etxeberria.**
Bergaran, urriaren 26an. 79 urte.
**Ana Gomez Granado.**
Arrasaten, urriaren 28an. 90 urte.
**M. Asuncion Otadui Maidagan.**
Arrasaten, urriaren 28an. 84 urte.
**Kepa Jauregi Olabe.**
Aretxabaletan, urriaren 28an. 34 urte.
**M. Concepcion Bergaretxe Iparragirre.**
Arrasaten, urriaren 29an. 81 urte.
**M. Mercedes Galdos Aranburuzabala.**
Arrasaten, urriaren 29an. 91 urte.
**Jose Domingo Etxebarria Uriarte.**
Arrasaten, urriaren 29an. 68 urte.
**Jorge Ilzarbe Lonbide.**
Bergaran, urriaren 30ean. 55 urte.

URTEURRENA

## Miguel Gonzalez Bastida



Bergaran hil zen 2013ko urriaren 31n, 93 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza azaroaren 16an, domeka, izango da,
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.
—
*Maitasuna ez da inoiz itzaltzen;*
*bihotzean zaitugu.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2014ko urriaren 31n.**

URTEURRENA

## Pedro Leibar Arenaza



Oñatin hil zen 2013ko urriaren 28an, 69 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza
domekan izango da, azaroaren 2an, 12:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2014ko urriaren 31n.**

ESKER ONA

## Milagros Arregi Zubizarreta



Gregorio Martiarenaren alarguna

Arrasaten hil zen 2014ko urriaren 25ean, 87 urte zituela.

Seme-alabak: Ana eta Martin Arriolabengoa, Alberto eta Blanca Elices,
Miren eta Fernando Sanz, Alex eta Yolanda Ezkurra, Agurtzane eta Igor Saiz;
bilobak: Jone eta Jon, Markel eta Estitxu, Beñat, Maria, Eider eta Jose, Julen, Maider; anai-arreben,
ezkon anai-arreben, lehengusu-lehengusinen eta gainerako ahaideen izenean,

hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi eskerrik asko.

**Arrasaten, 2014ko urriaren 31n.**

ESKER ONA

## Miguel Iturrospe Peña

2014ko urriaren 13an hil zen, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Eskoriatzan, 2014ko urriaren 31n.**

ESKER ONA

## Kepa Jauregi Olabe



2014ko urriaren 28an hil zen, 34 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta
gertutasuna adierazi, eta Keparekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

**Aretxabaletan, 2014ko urriaren 31n.**

OROIGARRIA

## Kepa Jauregi Olabe



'Kepatzar'

*Izar bat itzali da*
*hemen lurrean*
*beste bat piztu da*

*zeru goienean*
*beti egongo zara*
*gure bihotzean.*

*Egurra Julian!*

**Olatz eta zure kuadrilla.**
**Aretxabaletan, 2014ko urriaren 31n.**

OROIGARRIA

## Kepa Jauregi Olabe



*Alaitasuna, irrifarria*
*giro onaren zutabe*
*Atxabaltako giro epela*
*hoztuko zaigu zu gabe*
*negar malkoak egin zaizkigu*

*gure bihotzetan jabe*
*zure indarra izango dugu*
*aurrerantzean herabe*
*izar gorrixa ixotu jaku*
*danondako bidai kide.*

**Kintxako neskak.**
**Aretxabaletan, 2014ko urriaren 31n.**

OROIGARRIA

## Kepa Jauregi Olabe



*Oiñaze haundixe ixten dozu,*
*baiñe alkarrekin emundeko pauso*
*sakonetan,*
*zure oñatzaz geraketan gare.*

*Aguro fan zara, ez ordie, aurrez*
*herrigintza*
*zure umoretik sustatu barik.*

loramendi

**Loramendi elkartea.**
**Aretxabaletan, 2014ko urriaren 31n.**

OROIGARRIA

## Juan Carlos Garcia Arribas



Gasteizen hil zen 2014ko urriaren 25ean, 46 urte zituela.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,*
*ez zaitugu inoiz galduko*
*gure bihotz barrenean*
*eramango zaitugu betiko.*

**Zure kuadrilla.**
**Aretxabaletan, 2014ko urriaren 31n.**

OROIGARRIA

## Luis Arando Iturbe

Aretxabaletan hil zen 2014ko urriaren 25ean, 83 urte zituela.

*Alboan zaindu duzuen bezala,*
*izan dadila maitasunez zuen gogoan.*

**Jonen lagunak.**
**Aretxabaletan, 2014ko urriaren 31n.**

OROIGARRIA



## Juan Jose Arregi Agiriano-Zabalaga



2013ko urriaren 31n hil zen.

*Aita, guretzat izan zarenagatik*
*eta erakutsi diguzunagatik*
*zure argia ez da inoiz itzaliko.*
*Guk jarraituko dugu zure bidea.*

*Betiko gure bihotzetan.*

**Arrasaten, 2014ko urriaren 31n.**

OROIGARRIA

## Jose Domingo Etxebarria Uriarte



'Txetxu'

Donostian hil zen urriaren 29an, 68 urte zituela.

*Agur eta ohore.*

Zure lagunak:
Luis Mari, Mari Cruz, Jesus Mari, Mari Carmen, Cristi, Miguel, Edurne,
Xanti, Kontxi, Juan Bautista, Isabel, Bene eta Maria Jesus.

**Arrasaten, 2014ko urriaren 31n.**

HILETA

## Jorge Ilzarbe Lombide



Atzo hil zen, 55 urte zituela.

Emaztea: Belen Garcia; seme-alabak: Arantzazu eta Unai Olabarria, Markel eta Oihana Rodriguez; gurasoak: Bitxori eta Javier (†); ezkon-gurasoak: Jesus eta Felisa; anai-arrebak: Arantza eta Jose Mari Laskurain, Iban eta Deysi Mejia, Ioseba eta Cristina Perez; ezkon anai-arrebak: Mari Carmen eta Jesus Alberdi, Jesus eta Mariasun Irazola, Michel eta Asun Iglesias; ilobak, osaba-izebak, lehengusuak eta beste senide guztiak.

Elizkizuna, gorpua aurrean dela, gaur, urriak 31, izango da, 19:00etan, Bergarako San Pedro parrokian.

Helbidea: Martoko 14-1. C. Familiak Oroiloren hartuko zaituzte, 11:00-14:00 eta 15:30-18:10ak bitartean.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2014ko urriaren 31n**


**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*
*NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua*
*AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



***maribi 617 44 21 55***
***BERGARA***

## ZINEMA

**ARRASATE**

**AMAIA ANTZOKIA**

**Un viaje de diez metros**
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Khumba**
Zapatua: 17:00.

**OÑATI**

**KULTURA ETXEA**

**La isla minima**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua eta domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Campanilla: hadas y piratas**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**ARETXABALETA**

**ARKUPE**

**Lasa eta Zabala**
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Como entrenar a tu dragon 2**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**EIBAR**

**COLISEO**

**Lasa y Zabala**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Vamos de polis**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**ANTZOKIA**

**Relatos salvajes**
Zapatua; 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Las tortugas Ninja**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**GASTEIZ**

**BOULEVARD**

**Rec 4, Apocalipsis**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30.

**Serena**
Egubakoitza eta domeka: 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Zapatua: 15:30, 17:40, 20:20, 22:30, 00:40.
Astelehenetik eguenera: 18:10, 20:20, 22:30.

**Caminando entre las tumbas**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 15:45.

**Los boxtrolls 3D**
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Los boxtrolls**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:00.

**Scream, vigila quien llama**
Egubakoitza: 20:00.

**Pesadilla en Elm Street**
Egubakoitza: 22:45.

**Los cazafantasmas**
Zapatua: 20:00.

**Dracula, la leyenda jamas contada**
Egubakoitza eta zapatua: 00:10.
Egubakoitzetik domekara: 18:10, 20:10, 22:10.
Zapatua eta domeka: 16:10.

**Vamos de polis**
Egubakoitza: 17:45.
Zapatua: 20:00.
Domeka: 17:45, 20:00.

**El juez**
Egubakoitzetik eguenera: 22:15.

**Las tortugas Ninja**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:10, 22:20.
Zapatua eta domeka: 15:50.

**The equalizer**
Egubakoitzetik eguenera: 19:45, 22:20.

**Torrente 5**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**El corredor del laberinto**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

**Anabelle**
Egubakoitza eta domekatik eguenera: 17:50, 20:00.
Zapatua: 17:50.

**Relatos salvajes**
Egubakoitza eta zapatua: 00:35.
Egubakoitzetik domekara: 22:10.

**Las isla minima**
Egubakoitza eta domeka: 20:20, 22:30, 00:40.
Zapatua; 22:30, 00:40.
Astelehenetik eguenera: 20:20, 22:30.

**Perdida**
Egubakoitzetik eguenera: 22:00.

**Lasa y Zabala**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**La abeja Maya**
Zapatua eta domeka: 15:45.

**Frozen**
Zapatua eta domeka: 15:40.

**Como entrenar a tu dragon**
Zapatua eta domeka: 15:45.

**Operacion cacahuete**
Egubakoitzetik domekara; 18:15.
Zapatua eta domeka: 16:15.
Eguaztena: 18:15.

**El niño**
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:30.

**FLORIDA**

**Relatos salvajes**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Dracula, la leyenda jamas contada**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 16:45.

**La isla minima**
Egubakoitzetik domekara: 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 20:30.

**Perdida**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Filth**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 16:45, 19:45.

**Lasa eta Zabala**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 20:30.

**Los boxtrolls**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30.
Zapatua eta domeka: 12:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:45.

**Alguien a quien amar**
Egubakoitzetik domekara: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 20:30.

**Loreak (euskaraz)**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00.
Astelehenetik eguenera: 16:45, 18:40, 20:30.

**Las tortugas Ninja**
Egubakoitzetik domekara: 16:30.
Zapatua eta domeka: 12:00.
Astelehenetik eguenera: 16:45.

**REC 4, apocalipsis**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:40, 20:30.

**Operacion cacahuete (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Como entrenar a tu dragon 2**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Guardianes de la galaxia**
Zapatua eta domeka: 12:00.

## KRITIKA

# Sentimenduen misterioa

**LOREAK** ★★★★☆
**Zuzendaria:** Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga.
**Aktoreak:** Itziar Ituño, Nagore Aranburu, Itziar Aizpuru, Josean Bengoetxea.

Gaurtik aurrera, zinema aretoetan, Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean lehiatu zen *Loreak* euskaraz egindako filma ikusteko aukera izango dugu. Saririk jaso ez bazuen ere, filma Zinemalditik indartuta atera zen: kritikak eta ikusleek harrera ona egin zioten. Garaño eta Goenaga fintasun eta sentsibilitate handiz hurbiltzen dira pertsonaien ezkututako sentimenduak azaltzera.

Loreak dira filmaren istorioa bultzatzeko erabiltzen diren osagaiak. Ezezagun batek bidalitako loreak eta errepidean hildako bati utzitako loreak balioko dute hiru emakumeren istorioak garatzeko. Lore batzuek ilusioa berpiztuko dute, beste batzuek mesfidantza eta jakin–nahia. Kasu askotan gure sentimenduak gordetzen ditugu, eta eguneroko errealitatearen azpitik askotan aditzera ematen ez ditugun ilusioak eta sentimenduak daude. Pelikulan, kontatuko ez dugun gertaera batek eragina izango du hiru emakumeen bizitzan. Eta horren aurrean emakumeen jarrera ezberdinak ikusiko ditugu.

*Loreak* sentsibilitate handiz filmatua dago. Pertsonaien erraietaraino sartu nahi du, eta, hori lortzeko, ia zarata egin barik, pertsonaien intimitatea ez asaldatzeko, horien zalantzak, minak edo nahaste sentimenduak azaltzen ditu. Filmak Kieslowskiren zinema gogorarazi zidan: maitatutako pertsona baten galerak sorrarazten duen nahaste eta hutsunea, ezezagunen artean sortzen diren harremanak... *Azul* edo *Rojo* filmetara hurbiltzen da eta argiarekin egiten den erabilera enigmatikoak zuzendari poloniarraren ukitua du.

Zuzendariek fintasuna adierazten badute pertsonaiengana hurbiltzerakoan, aipatzekoa da aktoreek egindako lana. Aktore guztiak oso ondo daude. Ahalmen handia erakusten dute pertsonaien barneko sentimenduak azaltzerakoan. Pertsonaiak oso desberdinak badira ere, ulergarria egiten zaigu bakoitzaren portaera.

**ANTONIO ZABALA**



ITZARI BASTARRIKA

**OÑATI 'Euskara, añubea eta eguzkibegixa' ikuskizuna**
Euskarak historian zehar izan duen jazarpenari buruzko ikuskizuna erakutsiko dute Santa Ana antzokian. Askotariko diziplinak batzen dituen multimedia ikuskizuna da. Oñatiko eta oñatiarren bizipenak jaso dituzte.
Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 19:00etan eta 22:00etan.



**BERGARA Bisita gidatuak Angiozarren eta San Migelen**
Erritu pagano eta erlijiosoak nahastu ziren garaitik honako bisita gidatuak egingo dituzte Angiozarren eta San Migel auzoan. Heriotzari buruzko bisita gidatuak egingo dituzte zapatuan 17:00etan eta domekan 11:00etan. Deialdi irekia egin diete herritarrei.
Aipatutako egunetan eta orduetan, Angiozarren.

# NON-ZER

URRIA **31**
AZAROA **6**

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**BERGARA Aldeta taldea**
Aldeta taldeak *Izarrak izaretan* diskoa aurkeztuko du. Sarrerak lehiatilan salduko dituzte zortzi eurotan.
Etzi, domeka, Zabalotegin, 20:00etan.

**OÑATI Pow Pow Pows taldea**
2012. urtean sortutako rock-and-roll talde iruindarra da Pow Pow Pows. *Animales fantásticos* lehen lana grabatu berri dute, eta bertan, pop, psikodelia eta power-pop doinuak dira nagusi.
Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

## ANTZERKIA

**ESKORIATZA 'Donde no hay mata no hay patata' antzezlana**
Mugarik Gabe elkarteak eskainiko du *Donde no hay mata no hay patata* antzerki foroa, Ibarraundi museoan. Sarrera, doan.
Gaur, egubakoitza, Ibarraundin, 22:00etan.

## LITERATURA

**BERGARA 'Hodei baten bidaia'**
Umeendako ipuin emanaldia Belen Azkarateren eskutik. Bi saio egingo ditu: 18:00etan eta 18:30ean.
Gaur, egubakoitza, Errotalden, 18:00etan.

**ELGETA Ipuin kontalaria**
Cecilia Paganini ipuin kontalari argentinarrak *En la boca del lobo* izeneko saioa egingo du Espaloian: helduendako eta gazteleraz. Sarrera, hiru euro.
Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:00etan.

**ANTZUOLA Ipuin kontalaria**
Ixabel Agirresarobek umeendako ipuin kontaketa saioa egingo du Torresoroan. Antzuolako neska-mutiko guztiak gonbidatu dituzte ekitaldira.
Etzi, domeka, Torresoroan, 18:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**BERGARA Gorlako Igoerako 40. urteurreneko ospazkizunak**
2015eko martxoan 40 urte beteko ditu Gorlako Igoerak. Hori horrela, irabazleei omenaldia egingo diete: Gorla igo eta ostean bazkaria egingo dute pilotalekuan. Ondoren, ziklismoaren gaineko mahai-ingurua omenduekin.
Bihar, zapatua, San Martin plazan, 12:30ean.

**BERGARA Antxitxika krosak 10 urte**
Soraluze-Bergara krosaren 10. urteurrena ospatzeko egun osoko festa egingo dute domekan: 11:30etik aurrera lasterketak (kirol egokitua, patinak eta korrikalariak); eta 18:00etan Porrotxek eta Ane piratak jaialdia egingo dute, Bergarako hainbat talderekin batera. Sarrerak aurrez salgai: Depor tabernan, Lazkano oinetakoak dendan, Tartufo tabernan, eta Bergarako eta Arrasateko ASPACE zentroetan. Sarrerekin lortutako dirua Dordoka taldearentzat izango da.
Etzi, domeka, pilotalekuan, 11:00etan.

## BERTSOLARITZA

**ARRASATE Bertso desafioa**
Libre ekimenak antolatuta, bertso desafioa egongo da Mungiako Taket eta Arrasateko Altutik bertsolarien eskutik.
Gaur, egubakoitza, Irati tabernan, 21:30ean.

**BERGARA Bertso afaria**
Azaroaren 8an egingo den bertso afarirako sarrerak salgai daude



BEHIALA.BLOGSPOT.COM

**ARRASATE 'Happy End' antzezlana**
Erretiroa aldez aurretik hartzera behartutako andereñoak eta zorrez lepo etxea galtzeko zorian dagoen gazteak ezer gutxi dute komunean, etsipenaz harago. Egoera horretatik abiatutako antzezlana, Vaiven taldearekin.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.



GOIENA

**BERGARA Fly Shit eta Estricalla**
Txapa Irratiaren 30. urteurrena ospatzeko, kontzertua egingo dute bi taldeek. Fly Shit bergararrek *Barneko ahotsaren bila* disko berriko kantuak aurkeztuko dituzte. Era berean, Estricallak *Triple asalto mortal* lana erakutsiko du. Taldearen hirugarren diskoa da. Sarrerak, leihatilan, bost eurotan.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.



FLYSHIT

Pol-Pol, Kortazar eta Arrano tabernetan, 25 eurotan. Jone Uria eta Julio Soto ariko dira bertsotan.
Azaroaren 8an, Artatse elkartean.

## ERAKUSKETAK

**ARETXABALETA Manuel Montiel**
Gaur, egubakoitza, da Manuel Montielen argazki bilduma ikusteko azken eguna.
Urriaren 31ra arte, Arkupen.

**OÑATI 'Euskara ospeletik eguterara'**
Oñatiko Euskal Memoria Taldearen eskutik. Hilaren 27tik aurrera egongo da ikusgai kultura etxean.
Azaroaren 9ra arte, kultura etxean.

**BERGARA Agustin Gurrutxaga**
Bergarako argazkilariaren erretratuak batu dituzte Aroztegin. Lau multzotan banatzen dira argazkiak: mendia, kirola, natura eta librea.
Azaroaren 9ra arte, Arkupen.

**BERGARA Gorlako Igoera iruditan**
*1975-2014 Gorlako Igoerako 40 edizio* delako erakusketan, hedabideen kronikak, artikuluak eta argazkiak, eta taldeen maillotak ikusgai daude udaletxeko osoko bilkura aretoan.
Azaroaren 20ra arte, udaletxean.

**ESKORIATZA Perretxiko erakusketa**
Perretxikoak ikusi, *Zein da zein* jokoan parte hartu eta taloak eta pintxoak jateko aukera.
Etzi, domeka, Eskoriatzan, 12:00etan.

**ARETXABALETA 'Euskal Herriko hilarriak'**
Azaroaren 3an zabalduko dute erakusketa eta ikusgai egongo da astelehenetik egubakoitzera (11:00-13:00 eta 18:00-20:00) eta zapatuetan (11:00-13:00). Zabalik azaroaren 29ra arte. Euskal Herriko hilarriak ezagutzeko aukera.
Azaroaren 3tik 29ra, Arkupen.

**BERGARA Errege Seminarioko kultura eraikinaren erakusketa**
Errege Mintegiko eliza kultura-areto bihurtzeko proiektuaren aurkezpena.
Azaroaren 4an, Errege Mintegian, 19:00etan.

## LEHIAKETAK

**OÑATI I. gazte txef txapelketa**
12 eta 17 urte arteko lauko gazte taldeek hartuko dute parte. Lehiakideek arroza, pasta edo patata tortilla egin beharko dute.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 17:00etan.

**ELGETA 'Ezetz igarri!' lehiaketa**
Liburutegiko arduradunek pistak emango dituzte eta parte-hartzaileek bi idazleren izenak asmatu beharko dituzte denbora jakin baten. Lehiaketa 12 eta 16 urte arteko nerabeendako da.
Azaroaren 3an, liburutegian, 10:20ean.

## UMEAK

**ELGETA Karlista galduaren altxorra**
Maala guraso elkarteak umeendako jokoak egingo ditu Arimen Gauan. Tartean, karlista galduaren altxorraren bila ibiliko dira Elgetako kaleetan.
Gaur, egubakoitza, Mendizaleen plazan, 17:00etan.

**ESKORIATZA 'Sorgin gaua'**
*Sorgin gaua* ospatuko dute umeekin Tortolis ludotekan.
Gaur, egubakoitza, ludotekan, 17:30ean.

**ESKORIATZA 'Gaba beltza' eta beldurraren asteburua**
Beldurra eta misterioa izango dira protagonistak gaztelekuko bi ekintza horietan. Ekitaldi irekia gazteendako.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:00etan.

**ESKORIATZA Umeentzako ekintza**
Igeltsuarekin gorputzeko atal ezberdinetako maskarak egingo dituzte. Herriko ume guztiak gonbidatu dituzte.
Azaroaren 5ean, ludotekan, 17:30ean.

## IRTEERA

**ESKORIATZA Mendi irteera**
Perretxikoak ezagutzeko eta biltzeko irteera egingo dute. Batutako perretxikoen sailkapena Errotari Elkarte Mikologiokoaren eskutik.
Bihar, zapatua, Fernando Eskoriatza plazan, 09:30ean.

## HITZALDIAK

**ARRASATE Biloben zaintzan aitona-amonek duten paperaz**
Arrasateko Udaleko Prebentzio Sailak hitzaldia antolatu du etxetik kanpora lan egiten duten guraso eta euren seme-alaben ordezko zaintza aitona-amonen esku dagoen kasuetan, egunerokotasunean sortzen diren beharren gainean hausnartzeko.
Azaroaren 4an, Kulturaten, 18:00etan.

## DEIA

**OÑATI Txirrinkaren bilera**
Oñatiko bizikleta-zaleen elkarteak bilera irekia egingo du herritar guztiendako. Askotariko gaiak aztertuko dituzte.
Azaroaren 3an, Zubikoan, 19:15ean.

## IKASTAROAK

**BERGARA Argazkilaritza ikastaroak**
Hamalau lagun onartuko dituzte eta bergararrek lehentasuna izango dute. Lekua baino jende gehiagok izena ematen badu, zozketa egingo dute.
Azaroaren 3an, Arizondo argazkilari elkartearen egoitzan, 19:15ean.

**ARRASATE Baserritar jantziak egiten ikasteko**
Amaia Albes diseinatzaile arrasatearra izango da Ekin Emakume elkarteak antolatutako ikastaroaren irakaslea. Izena eman nahi duten guztiek elkartearekin harremanetan jarri beharko dute, 651 70 79 36 edo 943-79 83 70 telefonora deituta, bertara joanda edo posta elektroniko bidez. Ikastaroa azaroaren 5etik abenduaren 17ra arte egingo dute, eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara arte.
Azaroaren 5etik, Ekin Elkartearen egoitzan, 19:00etan.

**ARRASATE Olio-pintura ikastaroa**
San Andresko emakumeen elkarteak (Emasan) olio-pintura ikastaroa egingo du martitzenero, 15:00etatik 18:00etara arte. Interesatuek 606 04 94 81 (Cari) telefonora dei dezakete izena emateko edo informazioa eskatzeko.
Izen-ematea, telefono horretan.



## TIRABIRAKA




goiena" 2014-10-31

## BUKATZEKO

# Ibarreko kazetarien harrobia lantzen

▶ Euskal Herriko pertsona ezagunak ekarrizketatuko dituzte gaztetxoek 'Galdegazte' saioan

▶ Goienako kazetari Miren Arregik elkarrizketen inguruko ikastaro bat eman du ikastetxeetan

**TXOMIN MADINA** | ARRASATE

Egun batez liburu, boligrafo, erregela, ordenagailu eta gainerako tresnak alde batera utzi, eta elkarrizketatzaile lanetan ibiliko dira laster Debagoieneko hainbat gaztetxo. Horixe da Goiena telebista prestatzen ari den *Galdegazte* izeneko saio berriaren abiapuntua: ibarreko 14 eta 18 urte bitarteko ikasleek Euskal Herriko pertsonaia ezagunak elkarriztatzea telebistako platoan.

Goiena, Debagoieneko udalak eta ibarreko ikastetxeak daude ekimen horren atzean, eta grabazioak bi txandatan egingo dira: azaroan bost elkarrizketa grabatuko dituzte eta urtarrilean beste bost. Eta azken emaitza ikusteko, otsailera arte itxaron beharko da, orduan hasiko dira-eta saioak emititzen.


Miren Arregi, ikasle talde bati azalpenak ematen. | T.M.

### Ikastaroa ikastetxeetan

Hamar ikastetxek egin dute bat ekimenarekin, eta ikastetxe bakoitzetik hiru ikaslek egingo dituzte elkarrizketak.

Programaren prestaketa lanak, baina, hasita daude dagoeneko. Izan ere, asteotan, kazetari lanetan ibiliko diren ikasleek eta euren ikaskideek *Zela gertatu elkarrizketa bat telebistarako?* izeneko ikastaro trinkoa jaso dute Goienako kazetari Miren Arregiren eskutik. Galdera egokiak nola egin, elkarrizketa prestatzeko zein urrats jarraitu, kamera aurrean nola egon... Horien inguruko azalpenak eman dizkie Arregik: "Ilusionatuta ikusi ditut, eta baita elkarrizketak egiteko gogoz ere".

Ez da gutxiagorako; izan ere, ikasleek eurek proposatuko dituzte elkarrizketatuak, eta, normala den moduan, gogoko dituzten pertsonaia ezagunak aukeratu dituzte. Mikel Gonzalez futbol jolakari arrasatearra; Xabi Solano, Fermin Mugurutza eta Leire Martinez abeslariak; Jon Gonzalez aktorea, Felipe Uriarte mendigoizalea... dira proposamenetako batzuk; oraindik, baina, ikusteko dago saioan egoterik izango duten edo ez. Zenbait kasutan, proposamenak errepikatu egiten dira, eta erabaki egin beharko da nork nor elkarrizketatu.

Gazteak, gainera, ez dira saiorako propio prestatuko den platoan bakarrik egongo, Miren Arregi bera izango dute-eta bidelagun: "Nik bakarrik lagundu egingo diet, baina programaren pisua ikasleek eurek eroango dute; eurak izango dira protagonistak".

Galdegazte

Otsailean estreinatuko den saio berriaren logotipoa. | GOIENA

## AZKEN BERBA

**MIKEL IRIZAR**



### Lasa eta Zabala

Asteon ikusi dut Pablo Maloren filma. Eta bereziki interesatu zait bere alde dokumentala. Hau da, jakitea han ikusten dena –ia dena- gertatu egin zela benetan.

Tortura zuzenean jasan ez dugunoi gogorra egiten zaigu besteena irudikatzea, eta kasu honetan tortura irudikatu beharrik ez dago, ikusi egiten da. Modu lazgarrian, gainera. Modu sinesgarrian, batez ere.

Baina hortik harago, dokumentuaren balio pare bat azpimarratu nahi nuke. Lehena da ze argi erakusten duen inpunitatea, goikoen babesa, torturatzaileak duen askatasuna nahi duen astakeria burutzeko, inori konturik eman beharrik gabe.

Eta bigarrena –zeharkakoa- da nola filmaren estreinaldiak erakutsi duen ahanzturaren arriskua. Hogeita hamar urte dira bi gazteak bahitu zituztela eta jende gehienak ez ditu gertakariak gogoan. Interesa egon da horretan, estatu terrorismoa ezkutatzen, eta begi bakarrarekin errealitatea ikusarazten.

Aldiz, ona da begi biak irekitzea eta dena gogoratzea, inoren minik ez ukatzea eta min guztiak gainditzeko giharra indartzea. Ona, mosaiko batean biltzea alde guztien bizipenak. Horrela bakarrik izango dugu etorkizuna hobea iragan hurbila baino.

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak







BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA

bai euskarari
zerbitzua euskaraz

Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net